Beste bi lurralde historikoetan bezala, Gipuzkoa zazpi eskualdetan antolatzen da. Honako hauek dira, bakoitza bere hiriburuarekin: Bidasoa Beherea (Irun), Debarbarrena (Eibar), Debagoiena (Arrasate), Donostialdea (Donostia), Goierri (Beasain), Tolosaldea (Tolosa), eta Urola Kosta (Zarautz). Garraioaren atalean Arrasatek eta Zarautzek biltzen dituzte ETJI balio altuenak. Berrito, lurraldearen hiriburuan, Donostian, datu baxuena ematen da atal honetan. Turismoan, soilik kostaldeko udalerriek, Zarautzek eta Donostiak, datu baxuak lortzen dituzte, beste gainerako udalek oso datu onak dituzte, Eibarrek altuena lortuz. Zoruaren erabileran, Donostiak datu baxuena du, beste bi lurraldetan hiriburuekin gertatu den bezala. Eremu onetan, Beasainek eta Tolosak aipamen positiboa irudikatzen dute. Zarautzek eta Irunek dute airearen kalitatean emaitza onenak. Beasainek txarrenak. Udal guztiek datu onak dute uraren esparruan. Tolosa, Zarautz, Eibar eta Beasain zerrrendaren buruan daude. Antzera gertatzen da energia eta zaborren kasuetan. Tolosak lidergoa du energia jasangarritasunaren arloan Gipuzkoan, eta Irunek zaborren arloan. Aurka, Donostiak ditu emaitza txarrenak azkenengo bi arlo hauetan. Zaborren kasuan, eta Gipuzkoako gainerako udalen artean salbuespena izanda, Bizkaiko batz-besteko ez-haztatuaren azpitik agertzen da Donostia.


6. grafikoa. Gipuzkoako eskualdeen hiriburuaren ETJI eremu bakoitzeko balioak (2016-2019).



Iturria: López-Laborda et al. (2023).

ETJI-ren zazpi jasangarritasun arloentzako balioak lortu ondoren, indize konposatua kalkulatu daiteke. Hau da, udal bakoitzaren jasangarritasun maila zenbaki bakar batean laburbildu daiteke. Aldagaiekin lehen egin den bezala, atal bakoitzak formula duen pisua finkatzeko, OLS erregresioa erabili da. Hala eta korrelazio handiagoa ETJI arlo bakoitzaren eta tokiko zerga diru bilketaren artean, horrela eta pisu altuagoa izango du atalak formulatan. Kasu honetan, turismoaren arloa ezabatu da, haren lotura diru bilketarekin esanguratsua ez zelakoan -hizkera ekonometrikoan-. Horrela, sei atalen artean banatzen da ETJI kalkulatzeko pisuak. 7. grafikoan ikus daitekeen arabera, energia eta garraio atalak dira garrantzi handiena duten jasangarritasun arloak. Bakoitzak, ETJI-ren balioaren heren bat inguru zehazten dute. Zentzua du, kontutan hartzen badugu arlo hauek etxebizitzekin eta autoekin lotura dutela. Izan ere, OHZ eta trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga udalen diru-sarrera garrantzitsuenen artean daude. Ostean, airearen kalitatea aurkitzen da, eta % 10 azpitik, zaborra, ura eta zoruaren erabilera.

7. grafikoa. ETJI-ren kalkuluan ingurumen eremu bakoitzak duen pisua (%).




Iturria: López-Laborda et al. (2023).

Lurraldez lurralde, Araban, ETJI totalen udal guztiek balio erlatibo nahiko negatiboak lortzen dituzte. ETJI balio altuenetik baxuenera ordenatuta: Aiara (-0,05), Gasteiz (-0,15), Zuia (-0,31), Agurain (-0,35), Kanpezu (-0,37), Laguardia (-0,77), eta Erribera Beitia (-0,91) agertzen dira. Alde batetik, Aiara emaitza onak lortzen ditu zoruaren erabilera eta energiaren eremuak direla eta. Hain zuzen ere, ingurumen eremu hauek dira, Erribera Beitiaren emaitzei negatiboki eragiten diotenak, errepide loturak eta poligono industrial handi baten kokapena direla eta. Izan ere, energiak ETJI-ren formularen heren bat zehazten du. Hori dela eta, energiako eremuan lortutako emaitza oso garrantzitsua da ETJI totalen.

Bizkaian, ETJI totalen emaitza hobeak lortzen dira, baina desberdintasun garrantzitsuak daude udalen artean. ETJI balio altuenetik baxuenera ordenatuta: Balmaseda (0,36), Gernika-Lumo (0,27), Markina-Xemein (0,26), Igorre (0,25), Durango (0,23), Sopela (0,08), eta Bilbo (-0,04). Balmasedaren emaitza oso positiboa da jasangarritasun arlo guztietan, zaborra eta airearen kalitatean izan ezik. Garraio eta energian datu bikainak lortuta, formularen pisu gehien duten arloak direnez, ETJI totalen oso balio altua lortzen du Enkarterriko hiriburuak. Bestalde, Bilboren datua, zoru erabilera eta, batez ere, garraio arloetan jasotako balio baxuak direla eta azaltzen da.

Gipuzkoan, ETJI totalen emaitza onenak aurki daitezke Euskadi mailan. ETJI balio altuenetik baxuenera ordenatuta: Tolosa (0,43), Arrasate (0,27), Eibar (0,27), Beasain (0,24), Zarautz (0,19), Irun (0,14), eta Donostia (-0,16) aurkitzen dira. Tolosaren emaitzak oso orekatuak eta positiboak dira arlo guztietan, aztertutako hirien artean, jasangarritasun indizerik altuena duena da eta. Ura eta zaborraren kudeaketan nabarmentzen da. Aurka, Donostia, zoruaren erabilera, garraioari eta zaborra kudeaketari dagokion emaitzek zigortzen dute. Nahiko esanguratsua da Donostia, jasangarritasun indizean emaitza onena lortzen duen lurralde historikoan kokatuta egonda, Euskadiko hiriburuen artean datu baxuena jasotzea. Izan ere, hiru hiriburuen artean Bilbo da buruan agertzen dena, Gasteiz eta Donostiatik urrun.

8. grafikoa. Euskadiko hiri nagusien ETJI balioak eta lurralde historikoen batz besteko ez-haztatuak (2016-2019).




Iturria: López-Laborda et al. (2023).

4. Nola aldatuko lirateke Euskadiko udalen finantzak berdinketa fiskal berdea aplikatuz gero?

Ekonomia Ituna dela eta, Euskadiko udalen finantzazio erdua ez du Estatuak finkatzen baizik eta lurralde historiko bakoitzak ezartzen du (Rubí, 2016; Galdeano, 2022). Hori dela eta, zerga diru-sarrera iturri aparta, udalek jasotako transferentzia finantzarioak kalkulatzeko dituen formula hiru lurraldeetan desberdina da. Bizkaian, Udalkutxa deitutako funtsetik ordaintzen dira udalek jasotako berdinketa fiskalerako transferentziak. Gipuzkoan, Udalen Finantzaketarako Foru Funtza deitzen da, eta Araban, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (FOFEL, gazteleraz). Nahiz eta desberdinak izan, hiru ereduak antzeko aldagaiak erabiltzen dituzte, pisu desberdinekin. Ikerketa honetarako, Bizkaiko Udalkutxa sistema erabiltzen da adibide gisa, Euskadiko udal guztiei aplikatu zaie simulazioa sinplifikatzeko objektiboarekin, baita ere hiriburuei, nahiz eta gaur egun formulatik kanpo esleipen zehatza jaso izana. 9. grafikoak Udalkutxak erabilitako formula aurkezten du.

9. grafikoa. Udalkutxa-ko esleipenak zehazteko erabilitako formula eta proposamen berdea




Udalen finantzaketa sistemak ingurumen jasangarrtasuna bereganatzeko proposamena, Udalkutxa sistemaren formularen oinarrituta, ETJI-ren emaitzetatik abiatzen da. Horrela, Portugaleko adibidea jarraituz, udalek jasotako berdinketa fiskaleko transferentzien % 5-a ingurumen jasangarrtasun indizearen arabera banatzea proposatzen da, 9. grafikoak adierazten duen legez. ETJI-a integratzeko hiru proposamen egiten dira. Lehenengoa, esleipenen % 5-a ETJI mailaren arabera banatzea. Bigarren proposamena, funtsaren % 2,5-a ETJI mailaren arabera banatzea eta beste % 2,5-a ETJI-an lortutako urtez-urteko aldaketaren arabera. Horrela, udalek transferentzia gehiago jasoko lituzkete urtean zehar lortutako jasangarrtasun hobekuntza erlatiboari esker. Puntu honetan oso garrantzitsua da ulertzea ETJI-ren balioen efektua transferentzietan haren balio erlatiboaren arabera aplikatuko zela. Hau da, lurralde historikoaren ETJI per capita-ren batz besteko haztatuaren gaineratik dauden udalerriek, transferentziak irabaziko lituzkete. Alderantziz, lurralde historikoaren ETJI per capita-ren batz besteko haztatuaren azpitik dauden udalerriek, transferentziak galduko lituzkete. Era berebean, lurraldearekiko urtetik urtera ETJI-n lortutako hobekuntza erlatibo handiena izandako udalek, esleipen gehiago jasoko lituzkete.

Azkenik, hirugarren proposamenak, gaitasun fiskaletan emandako aukera kostuez gain, gastu beharretan klima aldaketak izango dituen eraginak ere kontutan hartuko lituzke. Horrela, lehorteei eta uholde arriskuei, hau da klima adaptazioari aurre egiteko beharrezkoak diren inbertsioak, formularen % 2,5-ko pisua irudikatuko lituzke (beste % 2,5 ETJI mailak eta aldaketak finkatuta). Azken proposamena simulatzeko, ETJI-ri gehitu zaio lhorbe-k eskainitako EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluaziorako datu-baseko informazioa. Horrela, ETJI+ deitutako indizea kalkulatu da.

Jarraian, OLS bidez kalkulaturako hirugarren proposamenaren emaitzak aurkezten dira. Hau da, ETJI+ erabiliz lortutako 2019. urterako emaitzak (datu erabilgarriak dauden azken urtea). Emaitzek, hurrengo galderari erantzuten diete: berdinketa fiskal berdea ezarri gero, gaur egun jasotako esleipenen ze nolako portzentajea irabaziko/galduko lukete aztertutako udalek? Eta, zeintzuk izango litzakete irabazle/galtzaile nagusiak? Bigarren galdera honi erantzun ahal izateko, lehen aztertutako hiriez gain, lurralde historiko bakoitzeko irabazle eta galtzaile nagusiak ere analizatzen dira hurrengo paragrafoetan. Emaitza guztiak ezagutzeko, artikulua hau idazteko oinarri bezala erabilitako López-Laborda et al. (2023) irakur daiteke.

Metodologia honen arabera, EAEko udalen artean, per capita esleipen gehien irabaziko lukeen herria Araban kokatzen da. Gainerako elementu guztiak berdin mantenduz, ceteris paribus, Barrundia, urte horretan jasotako % 3,71 esleipen gehiago biztanle bakoitzeko jaso izango litzuke berdinketa berdeari esker. Araban, Navaridas izango liteke galtzaile nagusia; -% 1,87 transferentzia txikiagoa jaso izango zuen biztanle bakoitzeko. 10. grafikoak erakusten du Arabako udalen per capita transferentzietan emango litezkeen gainerako aldaketak. Kuadrilla hiriburuen artean, termino erlatiboetan transferentzia gehien irabaziko litzuketen udalerrriak honako hauek dira: Aiara (+% 2,99), Kanpezu (+% 1,91), Erribera Beitia (+% 1,35), eta Zuia (+% 0,19). Kontrari, galtzaile nagusiak, Laguardia (-% 1,87), Agurain (-% 0,41) eta Vitoria-Gasteiz (-% 0,09) izango litzateke. Laguardia eta Agurainen kasuetan, ETJI negatiboa dela eta, emaitza ez da harrizkoa. Baina Erribera Beitia eta Kanpezuren kasuetan, nahiz eta ETJI baxuak lortu, irabazleen artean agertzen dira ETJI+ altua dutelako. Izan ere, bi udalerrri hauek klima adaptazio behar handia dute. Horregatik, ETJI+ erabiltzen duen formulak gastu behar altuago horiek konpentsatzen dituzte transferentzia gehiago esleituz.

10. grafikoa. Arabarentzako per capita esleipenetan aldaketa (%). Gaur eguneko sistema vs. OLS bidez kalkulaturako ETSI+ sistema (2019).




EUSKADIKO UDALEN FINANTZAK ETA BERDINKETA FISKAL BERDEA.
EUSKAL TOKIKO JASANGARRITASUN INDIZEAREN APLIKAZIOAREN EMAITZAK

Udalerrria	Gaur (€ per capita)	Proposamena (€ per capita)	Esleipen aldaketa (%)
+Barrundia	358,30	371,59	+3,71
Aiara	399,04	410,97	+2,99
Kanpezu	440,37	448,77	+1,91
Erribera Beitia	440,44	446,38	+1,35
Zuia	531,17	532,17	+0,19
Vitoria-Gasteiz	685,62	685,01	-0,09
Agurain	640,26	637,60	-0,41
Laguardia	612,07	603,92	-1,33
-Navaridas	631,55	619,72	-1,87

Iturria: López-Laborda et al. (2023).

Metodologia honen arabera, Euskadin per capita esleipen galera erlatibo handiena jasango lukeen udalerria berdinketa berdea dela eta, Nabarniz herri bizkaitarra izango litzateke, 2019. urtean biztanle bakoitzeko jasotako transferentzien $-3,3\%$ galduz. Hiri bizkaitarren artean, Trapagaran izango litzake irabazi handienak jasoko zituenak, transferentziak $1,27\%$ handituz, klima adaptazio beharrak direla eta. 11. grafikoak erakusten du Bizkaiko udalek jasotako transferentzietan emango litezkeen aldaketa erlatiboak. Lurralde historiko honen eskualde hiriburu gehienek kasuan emaitza positiboak emango lirateke, per capita transferentziak handituz. Termino erlatiboetan, hurrengo zerrenda lortuko genuke: Balmaseda ($+1,04\%$), Gernika-Lumo ($+0,8\%$), Durango ($+0,65\%$), Markina-Xemein ($+0,64\%$), Igorre ($+0,6\%$) eta Sopela ($+0,53\%$). Kontrarioki, Bilbo da galtzaile bakarra, gaur eguneko jasotako per capita esleipenen $1,01\%$ galduz. Arabar ez bezala, kasu honetan, ETJI eta ETJI+-en emaitzak oso antzekoak dira, eta udalerrien sailkapenaren ordena mantentzen da, klima adaptazio behar handienak eta jasangarriagoak diren (eta bilakatu diren) hiriak berdina baitira.

11. grafikoa. Bizkaia-erentzako per capita esleipenetan aldaketa (%). Gaur eguneko sistema vs. OLS bidez kalkulaturako ETJI+ sistema (2019).




EUSKADIKO UDALEN FINANTZAK ETA BERDINKETA FISKAL BERDEA.
EUSKAL TOKIKO JASANGARRITASUN INDIZEAREN APLIKAZIOAREN EMAITZAK

Udalerria	Gaur (€ per capita)	Proposamena (€ per capita)	Esleipen aldaketa (%)
+Trapagaran	647,83	656,07	+1,27
Balmaseda	697,36	704,60	+1,04
Gernika-Lumo	669,43	674,80	+0,80
Durango	639,67	643,84	+0,65
Markina-Xemein	697,54	702,00	+0,64
Igorre	716,02	720,36	+0,60
Sopela	666,10	669,65	+0,53
Bilbo	977,07	966,69	-1,01
-Nabarniz	1688,80	1633,00	-3,30

Iturria: López-Laborda et al. (2023).

Azkenik, Gipuzkoako eskualde hiriburuen artean ez litzateke aldaketa nabarmenik emango berdinketa berdea dela eta. Horrela, hauek izango lirateke 2019. urtean per capita esleipenetan emandako aldaketak hiri nagusietan: Tolosa (+% 0,22), Beasain (+% 0,18), Irun(+% 0,13), Zarautz (+% 0,12), Eibar (+% 0,02), Arrasate (-% 0,09), eta Donostia (-% 0,27). Ikusten den bezala, Arabako, eta batez ere Bizkaiko udalekin konparatuz, Gipuzkoan aldaketa txikiagoak emango ziren berdinketa fiskal berdea dela eta. Lurralde historiko honetan irabazle nagusia Hondarribia izango litzateke, per capita esleipenen +% 1,46a handituz. Kostaldean egonda, adaptazio klimatikoarekin lotutako gastu behar handiagoak ditu Hondarribiak. Bestalde, Oresa 2019. urtean jaso zituen esleipenen -% 2,97a galduko litzuzke.

12. grafikoa. Gipuzkoarentzako per capita esleipenetan aldaketa (%). Gaur eguneko sistema vs. OLS bidez kalkulatutako ETSI+ sistema (2019).



EUSKADIKO UDALEN FINANTZAK ETA BERDINKETA FISKAL BERDEA.
EUSKAL TOKIKO JASANGARRITASUN INDIZEAREN APLIKAZIOAREN EMAITZAK

Udalerrria	Gaur (€ per capita)	Proposamena (€ per capita)	Esleipen aldaketa (%)
+Hondarribia	726,51	737,09	+1,46
Tolosa	707,40	708,95	+0,22
Beasain	710,41	711,70	+0,18
Irun	715,46	716,36	+0,13
Zarautz	711,12	711,98	+0,12
Eibar	716,90	717,05	+0,02
Arrasate	716,18	715,54	-0,09
Donostia	767,98	765,92	-0,27
-Orexa	1453,95	1410,82	-2,97

Iturria: López-Laborda et al. (2023).

Hasieran azpimarratu den bezala, emaitzak tentu handiz interpretatu behar dira, urteen, metodologiaren eta formularen diseinuaren arabera aldakorrak direlako. Hain zuzen ere, López-Laborda et al. (2023)-k erakusten duten arabera, erabilitako metodologiaren arabera, ETJI-n emaitza okerrenak dituzten udalak, biztanleko transferentzien % 5 arte gal lezakete; udalerrri txiki eta jasangarrienenek, berriz, per capita esleipenen % 13 irabazi ahal izango lukete.

Emaitza konkretuez gain, irakurketa orokorrago bat egin daiteke ariketa honetatik. Tokiko berdinketa fiskal berdeak udalen finantzaketa sistemaren eraginkortasuna zein ekitatea indartuko lituzke. Eraginkortasunari dagokionez, gaur egun kontutan hartzen ez diren kanpokotasunak, hau da, ingurumen babesa politikak direla eta galdutako zerga oinarriak, udalen transferentzia sisteman barneratuko lirateke. Horrela, udalek jarrera berdeagoa bereganatzeko pizgarriak izango lituzkete eta nazioarte eta Europa mailan adostutako ingurumen objektiboen alde egiteko lankidetzaz erraztuko zen. Bestalde, ekitateri dagokionez, azken hiru grafikoekin datozen taulek erakusten duten arabera, tokiko erakundeek berdinketa fiskal berdeak biztanle bakoitzeko transferentzia handienak eta txikienak jasotzen duten udalerrien arteko desberdintasunak murrizten lagunduko luke. Izan ere, galtzaile nagusiak gaur egun esleipen hobereak lortzen dituzten udalak izango liratekelako (adibidez, Nabarniz, 1688,80€/biztanleko 2019-n). Eta alderantziz, esleipen txikiagoa duten udalak izango ziren onuratuenak (adibidez, Barrundia, 358,30€/biztanleko 2019-n).

5. Ondorioak

Gobernu azpizentralak, eta bereziki tokiko erakundeak giltzarriak dira nazioarte eta Europa mailan adostutako helburu klimatiko eta ingurumen babeserako objektiboak lortu ahal izateko. Baina gaur egun, udalek ez dituzte pizgarriak, eta batzuetan gaitasun ekonomiko, material eta pertsonalik, helburu horiek bete ahal izateko behar diren ingurumen politikak diseinatu eta aplikatu ahal izateko. Zehazki, ingurumen babeserako politika oso zorrotzak, udalen zerga oinarriak murriztu ditzakete, aukera kostu bat irudikatuz. Bestalde, klimak eragindako arriskuak mugatzeko inbertsioak ere udalen aurrekontuen gaineko presioa handitu dezakete. Ondorioz, berdinketa fiskalaren zerga gaitasunaren aldetik zein gastu beharren partetik, arazo honek berebiziko garrantzia du.

Testuinguru honetan, Lopez-Laborda et al. (2023)-k Euskadiko udalen finantzaketa sistema berdeago izateko proposamena egiten dute. Lehendabizi, euskal udalerrien arteko berdinketa fiskalen eredueta konponente berdea integratzeko, Euskal Tokiko Jasangarritasun Indizea (ETJI) diseinatu eta kalkulatu da. Indize konposatu honek hainbat aldagai berde kontutan hartzen ditu: hala nola ura, airearen kalitatea, energia, garraioa eta mugikortasuna, presio turistikoa, lurzorua erabilera eta hondakinak. Ondoren, klima arrisku konponentea sartzen da, ETJI+ kalkulatzeko eta indizea udal jasotako transferentzien % 5a banatzeko erabiltzen da.

Artikuluaren emaitzen arabera, orokorrean, emaitza onenak Bizkaiko eskualde hiriburuetan emango litzateke, eta txarrenak Arabako kuadrilla-buru diren udalerrietan. Bestalde, Gizpuakoan, aldaketak txikiagoak izango lirateke. Euskadi mailan, Barrundia (Araba) izango litzateke transferentzia gehien lortuko lukeena, aurka, Nabarniz (Bizkaia) gehien galduko litzatekeena. Eskualde hiriburuen artean, lurraldez lurralde, Aiara, Balmaseda eta Tolosa irabazle nagusitzat agertzen dira, non Donostia, Bilbo eta Laguardia, galtzailatzat. Oro har, Euskal Tokiko Jasangarritasun Indizea erabiliz, udal berdinketa fiskal sistema eraginkorragoa eta ekitatiboagoa bilakatuko zen.

Bibliografia

Busch, J., Ring, I., Akullo, M., Amarjargal, O., Borie, M., Cassola, R. S., ... & Zhou, K. (2021). *A global review of ecological fiscal transfers*. *Nature Sustainability*, 4(9), 756-765. <https://doi.org/10.1038/s41893-021-00728-0>

Campos, L. D. R. (2000). *ICMS Ecológico: experiências nos estados do Paraná, São Paulo, Minas Gerais e alternativas na Amazônia. Trabalho apresentado na 3ª reunião temática do programa piloto para proteção de florestas tropicais*. Cuiabá (MT).

Cao, H., Qi, Y., Chen, J., Shao, S., and Lin, S. (2021). *Incentive and coordination: Ecological fiscal transfers' effects on eco-environmental quality*. *Environmental Impact Assessment Review*, 87, 106518. <https://doi.org/10.1016/j.eiar.2020.106518>

Cheng, Y., Ma, B., and Sun, Y. (2023). *Does central ecological transfer payment enhance local environmental performance? Quasi-experimental evidence from China*. *Ecological Economics*, 212, 107920. <https://doi.org/10.1016/j.ecolecon.2023.107920>

De Mello, L., eta Ter-Minassian, T. (2023). *Decarbonisation and intergovernmental fiscal relations: Policy challenges and reform options*. OECD Working Papers on Fiscal Federalism, No. 43, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/c434c385-en>.

Dougherty, S., eta Montes-Nebreda, A. (2022). *Going global, locally? Decentralized environmental expenditure and air quality*. *Public Sector Economics*, 46(4), 489-503. <https://doi.org/10.3326/pse.46.4.3>

Dougherty, S., eta Montes-Nebreda, A. (2023). *The multi-level fiscal governance of ecological transition*. OECD Working Papers on Fiscal Federalism, No. 44, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/2051f0f7-en>.

Droste, N., Lima, G. R., May, P. H., and Ring, I. (2017). *Municipal responses to ecological fiscal transfers in Brazil: a microeconomic panel data approach*. *Environmental Policy and Governance*, 27(4), 378-393. <https://doi.org/10.1002/eet.1760>

Droste, N., Ring, I., Santos, R., and Kettunen, M. (2018a). *Ecological fiscal transfers in Europe– evidence-based design options for a transnational scheme*. *Ecological Economics*, 147, 373- 382. <https://doi.org/10.1016/j.ecolecon.2018.01.031>

Droste, N., Becker, C., Ring, I., and Santos, R. (2018b). *Decentralization effects in ecological fiscal transfers: a Bayesian structural time series analysis for Portugal*. *Environmental and Resource Economics*, 71(4), 1027-1051. <https://doi.org/10.1007/s10640-017-0195-7>

Droste, N., Farley, J., Ring, I., May, P. H., and Ricketts, T. H. (2019). *Designing a global mechanism for intergovernmental biodiversity financing*. *Conservation Letters*, 12(6), e12670. <https://doi.org/10.1111/conl.12670>

Gainza, X., and Montes-Nebreda, A. (2023). *The Waste War: on the electoral costs of local sustainability policies*. *Journal of Environmental Policy & Planning*, 1-17. <https://doi.org/10.1080/1523908X.2023.2238638>

Galdeano, I. (2022). *Manual de Haciendas Locales de Euskadi. Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)*. https://www.ivap.euskadi.eus/webivap00-a2app/es/s20auUdaWar/s20aupublicaciones/detalle/711_0/?locale=es

- Gatto, L., eta Montes-Nebreda, A. (2021). *Better policies for urban waste collection. A comparative approach*. Estudios de Progreso, (101). Fundación Alternativas, Madrid. <https://fundacionalternativas.org/wp-content/uploads/2022/07/8b5321bbe47b13b63ea4d13fb3fcd248.pdf>
- Gong, C., Zhang, J., and Liu, H. (2021). *Do industrial pollution activities in China respond to ecological fiscal transfers? Evidence from payments to national key ecological function zones*. Journal of Environmental Planning and Management, 64(7), 1184-1203. <https://doi.org/10.1080/09640568.2020.1813695>
- Ihobe (2019). *EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa*. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz. <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/eaeko-udalerriek-klima-aldaketaren-aurrean-duten-kalteberatasunaren-eta-arriskuaren-ebaluazioa-3>
- Oates, W. E. (1972). *Fiscal federalism*. New York, 1.
- OECD (2020). *A Territorial Approach to the Sustainable Development Goals: Synthesis report*. OECD Urban Policy Reviews, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/e86fa715-en>.
- OECD (2023). *City-to-City Partnerships to Localise the Sustainable Development Goals*. OECD Urban Studies, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/d2fe7530-en>.
- López-Laborda, J., Montes-Nebreda, A., eta Onrubia, J. (2023). *Going green through local fiscal equalisation*. Documento de Trabajo, 07. https://documentos.fedea.net/pubs/dt/2023/dt2023-07.pdf?utm_source=documentos&utm_medium=enlace&utm_campaign=estudio
- Loureiro, W. (2002). *ICMS Ecológico-A consolidação de uma experiência brasileira de incentivo a Conservação da Biodiversidade*. In Congresso Brasileiro de Unidades de Conservação, Vol. 3, 02-12.
- May, P. H., Gebara, M. F., Conti, B. R., and Lima, G. R. (2012). *The Ecological Value Added Tax (ICMS-Ecológico) in Brazil and its effectiveness in State biodiversity conservation: a comparative analysis*, Proceedings of the 12th Biennial Conference of the International Society for Ecological Economics, Rio de Janeiro. <https://www.isecoeco.org/conferences/isee2012-versao3/pdf/sp33.pdf>
- May, P.H., Gebara, M.F., Lima, G., Jordão, C., Nogueira, P., and Grieg-Gran, M. (2013). *The effectiveness and fairness of the Ecological ICMS as a fiscal transfer for biodiversity conservation. A tale of two municipalities in Mato Grosso, Brazil*. Paper prepared for the Policymix project and presented at the European Society for Ecological Economics Conference, Lille: <https://policymix.nina.no/Portals/policymix/Documents/Publications/articles/May%20et%20al-2013-Effectiveness%20and%20Fairness%20of%20ICMS.pdf?ver=2016-03-07-124249-710>
- Miao, X. & Zhao, Y. *Impact of transfer payment in eco-functional areas on eco-environmental improvement: capital compensation or institutional incentives?* (txinatarrez) Public Financ. Res. 435, 17–32 (2019).
- Ring, I. (2008a). *Integrating local ecological services into intergovernmental fiscal transfers: The case of the ecological ICMS in Brazil*. Land Use Policy 25, 485–497. <https://doi.org/10.1016/j.landusepol.2007.11.001>
- Rubí, J. G. (2016). *La financiación municipal en el País Vasco y la Ley de Instituciones Locales de Euskadi*. Zergak: gaceta tributaria del País Vasco, (52), 111-126.
- Yan, Z., and Honghua, C. (2020). *Did the transfer payment in key eco-functional areas improve the eco-environment? Based on the results of PSM*. South China Journal of Economics, 39, 125–140. 10.19592/j.cnki.scje.371556

EB-KO FISKALITATEA (2024ko urtarriletik ekainera)

Luis Elizondo Lopetegi
Euskadiren EBko Ordezkaritza

Sumarioa:

1. Sarrera: 1.1. Espainiaren, Belgikaren eta Hungariaren presidentetzen hirukotea; 1.2. Belgikaren presidentetza 2024ko urtarrilaren 1a – ekainaren 30a. 2. Hurrengo legegintza ziklorako lehenetsunak buruzko eztabaida orokorra. 3. Zuzeneko fiskalitatea: 3.1. FASTER; 3.2. Entitate fantasmak erabileraren bidegabekeria; 3.3. Transferentzia-prezioei buruzko zuzentaraua. 3.4. Egoitzako zergapetze-sistemari buruzko zuzentaraua; 3.5. Europako enpresei buruzko zuzentaraua: sozietateen gaineko zergarako esparrua; 3.6. Jokabide Kodea taldea, enpresen fiskalitateari buruz: 3.6.1. Alderdi orokorrak; 3.6.2. Standstill eta Rollback berrikuspen-prozesuak; 3.6.3. Neurri indibidualen benetako ondorioen jarraipena; 3.6.4. Zerga-ondorioetarako kooperatiboak ez diren jurisdikzioen EBko zerrenda. 4. Balio erantsiaren gaineko zerga: 4.1. BEZa aro digitalean. 5. Zerga bereziak: 5.1. Energiaren fiskalitateari buruzko zuzentaraua berrikusketak. 6. Administrazio-lankidetzak: 6.1. Zerga-ondorioetarako informazio egokia automatikoki trukatzeko EBtik kanpoko herrialde eta lurraldeekin; 6.2. EBren akordioak Andorra, Liechtenstein, Monako, San Marino eta Suitzarekin; 6.3. Europar Batasunaren eta Norvegiako Erresumaren arteko akordioa, administrazio-lankidetzari, iruzurraren aurkako borrokarari eta BEZaren eremuan kredituak kobratzeko buruzkoa; 6.4. Fiskalis programa, fiskalitatearen arloko lankidetzarako; 7. Politika fiskalen koordinazioa (legegintzakoak ez diren jarduerak): 7.1. Nazio Batuen Ebazpena, tributazio-gaieran nazioarteko lankidetzak inklusiboak eta eraginkorra Nazio Batuetan sustatzeko buruzkoa; 7.2. Errusiak Ukrainari egindako erasoak; 7.3. Nazioarteko egoeraren bilakaera; 7.4. Fiskalitatea fiskalitate kanpoko eremuetan; 8. Arau-hausteetarako prozedurak: 8.1. Hitzaurrea; 8.2. Epatze-gutunak; 8.3. Irizpen arrazoituak; 8.4. Gaiak Justizia Auzitegiari igortzea. 9. EB-ko justizia auzitegia. 10. Albisteak, ekitaldiak eta argitalpenak. 11. Europako herritar ekimena: «Planeta salbatu, lanaren fiskalitatea berotegi-efektuko gasen emisioetara eramanez».

1. Sarrera

1.1. Espainiaren, Belgikaren eta Hungariaren presidentetzen hirukotea

EBko estatu kideek beren gain hartzen dute EBko Kontseiluaren Presidentetza, sei hilabeteko txandetan. Sei hileko batez, dagokion estatua Kontseiluaren maila guztietako bilkuretako presidentea izango da (lantaldeetatik hasi eta Ministro Kontseiluetaraino) eta EBk erakunde horretan egiten duen lanaren jarraitutasuna bermatzen lagunduko du.

Presidentetzan diharduten estatu kideek lankidetzan estuan jardungo dute hiruko taldeetan, «hirukote» deritzenetan. Sistema hori Lisboako Tratatuak edo EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (aurreantzean, EBFT) ezarri zuen 2009an. Hirukoteak epe luzerako helburuak finkatzen ditu, eta hemezortzi hilabeteko epean Kontseiluak landuko dituen gai nagusiekin programa bateratua prestatzen du. Programa horren arabera, hiru herrialde horietako bakoitzak xehetasun gehiagorekin prestatzen du sei hileko programa.

Gaur egungo hirukotea Espainiaren, Belgikaren eta Hungariaren presidentetzek osatzen dute, eta 2023ko uztailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean izango dute kargua.

Fiskalitateari dagokionez, bere lan-programan ikusten denaren arabera¹, garrantzi berezia emango zaio BEZaren sistema erkidea digitalizazioaren bidez modernizatu eta sinplifikatzeko neurri berriak hartzeari, eta BEZaren arrakala ixteko lan egiteari, estatuetakoa nahiz EBko aurrekontuen mesedetan. Hirukoteak nazioarteko zerga-erreformarako ELGaren esparrua Batasunaren Zuzenbidean sartzea bultzatuko du. Era berean, hirukoteak Batasunaren aduana-kodea berrikusten lagunduko du, etorkizunerako prestatzeko. Helburua da errendimendu harmonizatuagoa lortzea, polizia-agintaritzekiko eta merkatua zaintzeko agintaritzekiko lankidetzan indartzea, eta teknologia berriak efizientzia eta lehiakortasuna handitzeko aprobetxatzea, aldi berean barne-merkatua babestuta.

1.2. Belgikaren presidentetza: 2024ko urtarrilaren 1a – ekainaren 30a

2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era arte, Belgikak EBko Kontseiluaren txandakako presidentetza izan du, eta programan² sei lehentasun ezarri ditu:

- Zuzenbide-estatua, demokrazia eta batasuna defendatzea
- Gure lehiakortasuna indartzea
- Trantsizio berde eta justua bilatzea
- Gure agenda sozial eta sanitarioa indartzea
- Pertsonak eta mugak babestea
- Europa globala sustatzea

Zuzenbide-estatua, demokrazia eta batasuna defendatzea

Europar Batasuna oinarritzko eskubideen, zuzenbide-estatuaren eta balio demokratikoen errespetuan oinarritzen da, eta, horrela, kohesiorako, askatasun indibidualen babeserako, berdintasunerako, diskriminaziorik ezerako eta gure herritarren ongizaterako bidea errazten du. Demokraziaren, zuzenbide-estatuaren eta oinarritzko eskubideen printzipioak defendatzea funtsezko elementua izango da Belgikaren presidentetzak Kontseiluan egingo duen lanean.

¹ <https://belgian-presidency.consilium.europa.eu/en/programme/trio-programme/>

² <https://belgian-presidency.consilium.europa.eu/en/programme/priorities/>

Presidentetzak herritarren ahalduntzea eta inklusioa indartuko ditu, eta arreta berezia jarriko du gazteen partaidetzan, bai eta Europako hezkuntza-esparruan, hezkuntzaren kalitatean, etengabeko ikaskuntzan, mugikortasunean eta kirolean ere. Balio demokratikoak sustatuko ditu. Hala, komunikabideen askatasuna eta aniztasuna indartuko du; kultura- eta sormen-sektoreen eraldaketa digitala sustatuko du, eta kulturaren, ondarearen eta Europako nortasunaren arteko loturak aztertuko ditu. Ildo horretan, gobernu-maila desberdinetan elkarrekin lan egiteari esker, behar eta erronka ugari eraginkortasunez erantzun ahal izango diegu, eta, aldi berean, subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatuko ditugu.

Batasuna zabaltzeak indartsuago bihurtu behar gaitu denok. Beraz, Presidentetzak konpromisoa hartzen du herrialde hautagaiei Batasunera batzeko ahaleginetan laguntzeko. Horrekin batera, funtsezkoa izango da Batasunaren politikak, baliabideak eta erabakitze-egiturak prestatzea, etorkizuneko atxikimenduei begira.

Gure lehiakortasuna indartzea

Errealitate geopolitikoaren bilakaeraren eta adimen artifiziala eta antzeko teknologia berrien garapen azkarraren argitan, EBk industria- eta lehiakortasun-politikak lehenetsi behar ditu epe luzera. EBk bidezko baldintzak bermatu behar ditu enpresentzat, batez ere ETEentzat, Europan nahiz munduan modu justuan lehiatu ahal izateko. Funtsezkoa da arau-esparru koherente, auresangarri eta sinplifikatua izatea. EBk buru izan behar du ekosistema digital jasangarri, berritzaile eta erresiliente bat sortzeko bidean, herritarrak ahalduntzeko eta enpresen mesedetan.

Belgikaren presidentetzak EBko barne-merkatua eta industria-etorkizuna indartzeko egingo du lan, eta kapital-merkatuen batasuna eta energia-batasuna osatzeko lanean jarraituko du. Arreta berezia jarriko da gure segurtasun ekonomikoaren hobekuntzan, mendekotasun kaltegarrien murrizketan eta sektore kritikoetan gure lidergo teknologikoaren sustapenean.

Presidentetzaren helburua ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren zeregina hobetzea da, EBko funtsezko balio-kateen erresilientzia eta lehiakortasuna bultzatuko duten irtenbide pertsonalizatuak garatzen eta merkaturatzen aitzindari izateko. Etorkizunerako diseinatutako lan-merkatuaren alde egingo du lan, eta, horren bidez, enplegu-tasak hobetu eta hazkundera suspertuko du. Inbertsio publiko zein pribatuaren garrantzia azpimarratuko du. Halaber, kohesio-politikak epe luzerako funtsezko inbertsio-tresna gisa, eraldaketa eta konbergentziaren katalizatzaile gisa eta Europar Batasunarentzako zementu gisa duen garrantzia azpimarratuko du. Arreta berezia eskainiko dio elikagaien ekoizpenean dugun autonomiari. Presidentetzak EBko barneko eta kanpoko politiken arteko koherentzia izango du ardatz.

Trantsizio berde eta justua bilatzea

EBren trantsizio-agenda anbiziotsuaren atzean, klima-aldaketaren, biodibertsitatearen galeraren eta kut-saduraren krisi hirukoitzari aurre egiteko premiazko beharra dago. Belgikaren presidentetzak ekintza erabakigarri eta holistikoak egitearen garrantzia nabarmendu du, inor atzean utzi gabe.

Itun Berdearekin jarraituz, Presidentetzak lehenetsunaren artean kokatuko du energia- eta klima-trantsizioa. Klima-aldaketarekiko kalteberatasunak murrizteko, Presidentetzak ekonomia zirkularra eta Batasunaren egokitzeko eta prestatzeko gaitasunak hobetzen ahaleginduko da. Uraren kudeaketa jasangarria ere sustatuko du.

Muturreko gertakari geopolitiko eta klimatikoek agerian utzi dute energia-trantsizioak azeleratua eta inklusiboa izan behar duela. Trantsizio horren bidez, energia merkea eskaini beharko litzaieke herritarrei eta enpresei, hornidura-segurtasun sendoa eta fidagarria bermatu beharko litzateke, eta klima-neutraltasunaren helburua lortzen lagundu beharko litzateke. EBk bete-betean aprobetxatu behar du energia-efizientziaren potentziala ekonomia osoan, eta azkar egin behar du aurrera energia-iturri eta

-bektore berriztagarri eta karbono-emisio gutxikoen garapenean. Horretarako, ezinbestekoa da inbertsioak handitzea, Europako energia-sare malgu eta integratu bat sortze aldera.

Gure agenda sozial eta sanitarioa indartzea

Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen oinarrituta, Belgikaren presidentetzaren helburua EBk gizarte-agenda anbiziotsua izatea da, Europan gizarte inklusiboagoa, genero-berdintasuneko eta guztiontzat bidezkoa sustatzeko.

Presidentetzaren xedea izango da gizarte-elkarrizketa maila guztietan indartzea, lan-mugikortasun justua izatea, lanean osasun mentala zaintzea eta gizarte-babes jasangarria lortzea. Helburua Europako sei-hilekoaren dimentsio soziala indartzea da —arreta berezia jarritz gizarte-konbergentziaren esparruaren lehen aplikazioari eta inbertsio sozialen potentzialari—, eta gizarte-ekonomiaren garapenerako esparru egokia sustatzea. Era berean, ekintza politiko handiagoen alde egingo du Presidentetzak, guztiek etxebizitza duina eta eskuragarria izatea bermatzearen.

Gainera, EBk krisietarako duen prestakuntza ebaluatzen lagunduko du, sendagaien horniduraren segurtasuna indartuko du eta estrategia bat garatuko du EBko lan-indar sanitario eta asistentziala bultzatzeko. Herritarrek sendagai merkeetarako irispide hobea izan dezaten, bete gabeko beharizan medikoei hobe aurre egiteko egingo du lan Presidentetzak.

Pertsonak eta mugak babestea

Presidentetzaren helburua da migrazioari eta asiloari buruzko Europako itun berriarekin lotuta egiteke dauden legegintza-espeditante guztiei heltzea. Itunak estatu kideen arteko konfiantza indartuko du erantzukizun- eta elkartasun-espirtuarekin, EBra iristen diren pertsonen argitasun juridikoa emango die eta EBko herritarrei migrazioaren kudeaketa gizatiarra eta eraginkorra bermatuko die, gure balioekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat. Orobat, migrazio-krisiei erantzun bateratu eta azkarra emango die, eta EBrako lege-bideak hobetuko ditu.

Presidentetzak migrazioaren eta asiloaren kanpo-dimentsioa indartzeko egingo du lan, bereziki gure kide afrikarrekin hertsiki lan eginez, bi kontinenteen arteko elkarketa onuragarria garatzen jarraitzeko ahaleginik zabalaren zati gisa, eta nazioarteko zuzenbidea erabat errespetatuz.

Presidentetzak arreta berezia eskainiko dio krimen antolatuen aurkako borrokari; terrorismoa eta indarkeriazko estremismoa saihestu eta horien aurka borroka egingo du, eta EBren erresilientzia indartuko du krisi eta erronka berri eta hibridoaren aurrean.

Gure herritarrak babesteko, Europako segurtasunaren eta defentsaren etorkizunari buruzko eztabaidak egin behar dira, Batasunaren ikuspegi integratuago baterantz egin dezagun aurrera. Europako defentsaren oinarri teknologikoa eta industrial indartzea izango da ardatza, eta defentsa-industriarako Europako estrategia garatzeko aukera ere aztertuko da.

Europa globala sustatzea

Sistema aldeaniztunak eta arauetan oinarritutako nazioarteko ordenak gero eta tentsio handiagoa dute, konfrontazio geopolitikoaren ondorioz, baita Europako kontinentera gerra irekia itzuli izanaren ondorioz ere. Errealitate horretara egokitzeko, Presidentetzak tinko eutsiko dio EBk erresilientzia eta autonomia indartzeko eta bere interesak eta balioak defendatzeko egindako ahaleginari.

Ikuspegi asertiboago horretan, Presidentetzak azpimarratuko du irekitasuna, elkarrizketa eta lankidetzak EBk bere interesei buruz duen ikuskeraren erdigunean daudela. Kanpo-politikako helburuak lortzeko, EBk erabat mobilizatu behar ditu bere gaitasun ekonomikoak, segurtasunekoak eta defentsakoak, bai eta garapenerako eta laguntza humanitariorako gaitasuna ere. Horren barruan, anbizio handiko mer-

kataritza-politika orekatua dago, irekia, jasangarria eta asertiboa. Horretarako, merkataritza-sistema aldeaniztuna beharko da, sendotua eta arauetan oinarritua. 2030 Agendaren ildo beretik, Presidentetzak osasun-arretako sistema indartzea sustatuko du, estaldura sanitario unibertsala lortzeko oinarri gisa, eta, aldi berean, osasun-arretako zerbitzu eta produktu berritzaile, erresiliente, jasangarri eta kalitate handikoak modu ekitatiboan eskuratzeko aukera bermatuko du guztiontzat.

Ekonomia- eta finantza-gaien programa espezifiko

Errusiak Ukrainaren aurka egindako eraso eta nazioarteko ekonomiaren ziurgabetasunak eragin larria izaten ari dira EBren aurreikuspen sozioekonomikoetan. Belgikaren presidentetzak erantzun eraginkorra emango die aurrean ditugun erronkei; adibidez, trantsizio berdea eta digitala sustatzea eta EBren autonomia estrategiko irekia eta lehiakortasun globala sustatzea.

Konpromiso horrek barne hartzen du Europako proiektuaren bizkarrezurra diren printzipio ekonomikoak babestea. Horretarako, honako alderdi hauek joko ditu Presidentetzak ardatz gisa: Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoaren berrikuspina amaitzea, Ukrainari finantza-laguntza ematen jarraitzea eta bankuen batasuna eta kapital-merkatuen batasuna arautzen duen legedia. Gainera, Presidentetzak hau egiten saiatuko da: BEZaren arrakala murriztu, EBren baliabide propioen gainean, Urte Anitzeko Finantza Esparruaren (UAFE) tarteko berrikuspina osatu eta Aduana Kodearekin lotutako legeria eta mugaldeko telelanerako zerga-arauak berrikusi.

Belgikaren presidentetzak Europako legegintzaldi baten amaierari eta beste baten hasierari heldu, eta egiteke dauden espediente nagusiak amaitzeko egingo du lan. Aldi berean, Batasunaren egoera ekonomikoari eta haren etorkizunari buruzko eztabaida sustatuko du.

Fiskalitatearen arloko programa espezifiko

EBk eta estatu kideek konpromisoa hartu zuten ELGaren bigarren zutabea 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen eta lehen zutabea 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen ezartzeko. Zuzeneko fiskalitatearen esparruan, Belgikaren presidentetzak lehentasuna eman zien ihes fiskala, saiheste fiskala eta plangintza fiskaleko eta lehia fiskal kaltegarriko jardunbide oldarkorak geldiarazteko neurriei. Horren ondorioz, EBko jurisdikzio ez-kooperatiboan zerranda eguneratu zen, ekimen legegileak eta legegileak ez direnak bultzatu ziren, betetze-kostuak eta mugaz gaindiko inbertitzaileentzako karga murrizteko, eta jatorriko atxikipenekin lotutako abusu fiskalari ekin zitzaion. Presidentetzak pozik hartu zuen BEFIT paketea (Enpresak Europan: sozietateen gaineko zergaren esparrua), eta zerga-arau bateratuagoen erabilgarritasuna aztertu zuen epe luzerako beste esparru batzuetan. Gainera, Presidentetzak Unshell Zuzentaraua aplikatzea babestu zuen, bai eta SAFE ekimena ere. Halaber, gardentasun fiskal handiagoa bermatzeko eta EBren barruan informazio garrantzitsuaren trukea indartzeko lan egin zuen, bereziki bigarren zutabeko zuzentarauaren funtzionamendu egokiari dagokionez. Belgikaren presidentetzak BEZaren arrakala ixteko neurrietan egin zuen azpimarra, eta horrek mesede egin zien bai estatu-aurrekontuei bai EBkoei. Testuinguru horretan, «BEZa aro digitalean» proposamenari ere lehentasuna eman zitzaion. Estatu kideetako aduana-zerbitzuek gero eta erronka eta zeregin handiagoei egin behar diete aurre, baita trantsizio berde eta digital bikoitzaren testuinguruan ere. Hori ikusita, Belgikaren presidentetzak Batasunaren aduana-kodea berrikusten lagundu zuen, egungo eta etorkizuneko beharretara hobeto egokitzeko eta EBko estatu kideentzat, EB osoarentzat eta gizartearentzat, oro har, onuragarriagoa izan zedin. Horrez gain, Belgikaren presidentetzak energiaren fiskalitateari buruzko zuzentaraua berrikusten jarraitu zuen.

Belgikaren presidentetzak espediente nagusiak lantzen jarraitu zuen, besteak beste, «BEZa aro digitalean» paketea sartutako proposamenak, jatorriko gehiegizko atxikipenak azkarrago eta seguruago arintzeari buruzko proposamena (FASTER, ingelesezko sigletan), energiaren fiskalitateari buruzko zuzentarauaren berrikuspina, «Enpresak Europan: sozietateen gaineko zergaren esparrua» proposamena, transferentzia-prezioei buruzko proposamena, egoitzako zergapetze-sistemari buruzko proposamena, ondorio fiskaletarako ez-kooperatiboak diren herrialde eta lurraldeen EBko zerranda eguneratzea, eta zerga-ondorioetarako sozietate fantasmak bidegabe erabiltzea saihesteko proposamena. Era berean, ak-

tiboki jarraitu zuen lanean Nazio Batuetako lankidetzak fiskalari buruzko negoziatioetan, EBko estatu kideen arteko eztabaidetan oinarrituta.

Zehazki, Kontseiluak:

- a) «BEZa aro digitalean» neurri sortari buruzko eztabaidekin jarraitu zuen.
- b) Kontseiluaren zuzendaruari buruzko orientazio orokorra lortu zuen, gehiegizko jatorriko atxikipean azkarrago eta seguruago arintzeari buruzkoa.
- c) Jarrera bateratua lortu zuen tributazio-gaien inguruko nazioarteko lankidetzari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen baterako erreferentzia-terminoak idazteaz arduratzen den komite bereziaren lehen bilkuraldirako.
- d) Kontuan hartu zuen estatu kideek aurrera jarraitzen zutela estatu kideen eta EBkoak ez diren herrialde eta lurraldeen arteko zerga-arloko informazio-truke automatikoari buruzko lanetan.
- e) BEZaren eremuko administrazio-lankidetzaren arloan EBren eta Norvegiaren arteko akordioa aldatzen duen akordioa sinatzeko baimena eman zuen.
- f) Nazioarteko zerga-betearazpena hobetzeko finantza-kontuei buruzko informazio-truke automatikoaren inguruko bost akordioak aldatzeko negoziatioak hastea baimentzen duen Kontseiluaren erabakia hartu zuen.
- g) Energiaren fiskalitateari buruzko zuzendaruaren berrikuspenean aurrera egin zuen.
- h) Sozietate fantasmak zerga-ondorioetarako bidegabe erabiltzea saihesteko arauak ezartzen dituen Kontseiluaren zuzendarau-proposamena eztabaidatzen jarraitu zuen.
- i) Hauek aztertzen jarraitu zuen: mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako egoitzako zergapetze-sistema ezartzen duen Kontseiluaren zuzendarau-proposamena, transferentzia-prezioei buruzko Kontseiluaren zuzendarau-proposamena eta «Enpresak Europan: sozietateen gaineko zergarako esparrua» Kontseiluaren zuzendarau-proposamena.

Jokabide Kodea (Enpresen fiskalitatea) taldeak egungo agintaldian jasotako askotariko gaien inguruan ere lan egiten jarraitu zuen, hala nola ondorio fiskalitarako ez-kooperatiboak diren herrialde eta lurraldeen EBko zerrindaren inguruan, sei hileko txostenean adierazten denaren arabera³. Kontseiluak 2024ko otsailaren 20an egin zuen EBko zerrindaren azken eguneratzea⁴.

Jarraian, gai eta espediente espezifikoei buruzko informazio zehatzagoa emango dugu.

2. Hurrengo legegintza-ziklorako lehentasunei buruzko eztabaida orokorra

Goi Mailako Taldeak lehen eztabaida orokorra izan zuen EBren hurrengo legegintza-ziklorako fiskalitatearen arloko lehentasunei buruz. Hainbat ordezkariak gogorarazi zuten, Kontseiluaren ondorioetako asko berariaz aipatuz, arreta berezia jarri behar dela saiheste eta ihes fiskalari aurre egiteko helburuetan eta fiskalitate erraz eta eraginkorra lortzeko helburuan, horrela, administrazio-karga murriztuz pertsonentzat, enpresentzat eta zerga-administrazioentzat. Testuinguru horretan, ordezkariak batzuek EBko indarreko legerian eta administrazio-prozeduretan ordena jartzera bideratutako ekimenak begi bereziki onez hartuko lituzkete bereziki. Administrazio-karga ahalik eta gehien murrizteko eta estatu kideei legedi berriaren transposizioa egiteko denbora nahikoa eman behar dela azpimarratu zen. Halaber, estatu kideek gogorarazi zuten jarduketa legegileak ez direnek ere garrantzia dutela fiskalitatearen esparruan. Pozik hartu zen Presidentetzak Nazio Batuen testuinguruan izandako zeregin aktibo eta eraikitzailea.

³ 11151/24 AE.

⁴ AO C 2024/1804, 2024/02/26koa, 1. or.

Zuzeneko fiskalitatearen aldetik, ordezkariak adierazi zuten pozik zeudela Kontseiluan egindako lanarekin, bereziki egungo legegintza-zikloan onartutako EBko legediarekin eta gobernuarteko lanetan egindako aurrerapenekin. Ordezkaritza askok aipatu zuten lan-karga ikaragarria eta doikuntza informatiko izugarriak egin behar direla kasuan kasuko legeria betearazi eta aplikatzeko, batez ere zerga-agintaritzei dagokienez. Horrenbestez, ordezkariak nabarmendu zuten beharrezkoa dela onartutako legeriaren aplikazioan jartzea arreta. Ordezkaritza batzuek esan zuten nahiago zutela lehenik eta behin fiskalitatearen arloko egungo ekimenen inguruko lanak amaitzea, eta zuzentarau fiskal berriak abian jarri aurretik estatu kideen partaidetza handiagoa lortzea proposatu zuten. Testuinguru horretan ere, ondo etorriko liriateke zerga-administrazioa eta zerga-betebeharrak betetzea erraztuko duten neurriak (zerga-araudian ordena jartzea).

Zerga berezien harira, ordezkariak adierazi dute tamalgarria dela aurreikusitako hainbat lege-proposamen oraindik ere aurkeztu ez izana. Esaterako, oraindik ez da aurkeztu tabakoaren laboreak zergapetzen dituen zerga bereziaren egiturari eta tasei buruzko 2011/64/EB Zuzentaraua aldatzeko iragarri zen legegintza-proposamena; eta zenbait estatu kidek hurrengo legegintzaldian aurkezteko eskatu zuten berriro⁵. Era berean, zenbait ordezkariak berretsi zuten 92/83/EEE Zuzentaraua aldatu behar zela, alkoholaren eta edari alkoholadunen gaineko zerga berezien egiturak harmonizatzeari buruzkoa, eta beste batzuek proposamen bat aurkezteko eskatu zuten berriro, zerga berezien araubide orokorra ezartzen duen 2020/262 Zuzentarauaren 32. artikuluari buruz.

Balio erantsiaren gaineko zergen ildotik, ordezkariak adierazi zuten oro har pozik zeudela egiten ari diren lanekin, baita Kontseiluaren 2020ko Ondorioen argitan ere. Ondorio horiek susperraldi garaietan fiskalitate ekitatiboa eta eraginkorra lortzeari, digitalizazioari lotutako erronka fiskalei eta EBko eta kanpoko eremu fiskaleko gobernantza onari buruzkoak dira. Ordezkaritza batzuek gogorarazi zuten BEZaren arauak aldatu behar zirela turismo-sektorean eta finantza-zerbitzuetan, eta beste ordezkariak batzuek pozik hartu zuten 904/2010 (EB) Erregelamenduaren etorkizuneko berrikuspena, administrazio-lankidetzari eta balio erantsiaren gaineko zergaren arloko iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa.

3. Zuzeneko Fiskalitatea

3.1. FASTER

2023ko ekainaren 16an, Batzordeak Kontseiluaren zuzentarau-proposamen bat aurkeztu zuen, gehiegizko jatorriko atxikipenak azkarrago eta seguruago arintzeari buruzkoa («FASTER», ingelesezko sigletan)⁶. Lege-proposamen horren helburu nagusia bikoitza da: kapital-merkatuen batasunaren funtzionamendu egokia babestea, mugaz gaindiko inbertsioak erraztuz, eta bidezko fiskalitatea bermatzea, eremu horretan iruzur eta abusu fiskalaren prebentzioaren bidez.

Lehenik eta behin, proposamen horren helburua da EB osoan prozedura eraginkorragoak (eta harmonizatuagoak) ezartzea, jatorrian atxikipena arintzen den mugaz gaindiko kasuetan, estatu kideek aplikatzen dituzten balio kotizatuen (baloreen dibidenduak eta bonuen interesak) edukizatik datozen diru-sarreretan. Gaur egun, inbertitzaile ez-egoiliarrei zerga-hitzaumenen edo onura nazionalen onuradun izateko aukera ematen dieten prozedurak kostu handikoak, garestiak eta luzeak izaten dira askotan, alde nabarmenak baitaude estatu kide batetik bestera, bai zergadunek jatorriko atxikipena arintzeko aurkeztu behar duten dokumentazioari dagokionez, bai haien digitalizazio-mailari dagokionez.

⁵ Ikus, halaber, tabako-laboreak zergapetzen dituen zerga bereziaren egiturari eta tasei buruzko Kontseiluaren Ondorioak (8483/20 AE).

⁶ 10820/23 AE + ADD 1-5.

Bigarrenik, baina ez hutsalenik, estatu kideek diru-sarrerak galtzeko arriskua saihestea da proposamenaren xedea. Jatorrian atxikipena arintzeko prozedurek iruzur eta abusu fiskalak izateko arriskua eragin dezakete, zenbait jakinarazpenek agerian utzi zuten bezala; adibidez, inbertitzaile baten benetako itzulketa-eskubidearen zenbatekoa oker handitzea helburu duten sistemak (cum-cum) edo ordainketa beragatik itzulketa-eskaera ugari egitea (cum-ex). Iruzur fiskala gerta daiteke zerga-agintaritzen eskura informazio zehatzik ez egoteagatik, finantza-katean gardentasun-maila txikia dagoelako eta azpian da-goen aktiboarekin lotutako finantza-akordioei buruzko informaziorik ez dagoelako.

Datuak Babesteko Europako Ikuskatzaileak 2023ko abuztuaren 8an eman zuen irizpena⁷. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak 2023ko abenduaren 13an eman zuen legegintza-proposamen horri buruzko irizpena⁸. Europako Parlamentuak 2024ko otsailaren 28an eman zuen irizpena⁹.

Legegintza-proposamen horren azterketa teknikoan eta Gai Fiskalak taldearen bileretan estatu kideekin izandako eztabaidetan, agerian geratu zen Batzordeak hasieran proposatutako testuan egokitzapenak egin behar zirela, Kontseiluari aurkeztu baino lehen, onetsi zezan. Horrenbestez, Espainiaren eta Belgikaren presidentetzen agintaldietan hainbat aldaketa egin ziren, Batzordearen proposamenari zuzenketak eginez.

Zuzentarau berriak honako ezaugarri nagusi hauek izango lituzke:

i) Jatorriko atxikipena itzultzeko edo arintzeko egungo prozedura arruntak hobetzen dituzten bi prozedura azeleratu.

- Jatorrian arintzeko prozedura bat; horren bidez, zerga-tasa aplikagarria dibidenduak edo interesak ordaintzeko datan aplikatuko da.

- Itzulketa azkarreko prozedura bat; horren bidez, hasiera batean, jatorriko atxikipena ordainketa-datan kenduko da, baina gehiegizko jatorriko atxikipenaren itzulketa epe laburrean egingo da.

ii) EBko egoitza fiskal erkidearen ziurtagiri digital bat, inbertitzaileek (zergadunek) prozedura azeleratu horiei heltzeko erabili beharko luketena.

iii) Erregistro bat eta informazioa komunikatzeko betebeharrak normalizatu batzuk finantza-bitartekarietat. Inskripzioak bermatuko luke ziurtatutako finantza-bitartekariak bakarrik eska dezaketela jatorriko atxikipena arintzea beren bezeroen izenean, prozedura azeleratuen bidez. Informazioa jakinarazteko betebeharrak normalizatuak harmonizatu egingo lituzkete eremu horretan EB osoan bete beharreko baldintza nagusiak, eta zerga-agintaritzei funtsezko informazioa emango liekete jatorriko atxikipena arintzea onargarria den egiaztatzeko, egin beharreko ordainketei arrastoa jarraitzeko eta iruzur edo abusu fiskalak saihesteko.

Gai Fiskalak (Goi Maila) taldearen 2024ko otsailaren 7ko bileran iragarri zen legez, Belgikaren presidentetzak lehentasuna eman die espediente horren gaineko lanei, Kontseiluan akordioa lortzeko helburuarekin. Gai Fiskalak taldearen sei bilera egin dira Belgikaren presidentetzaren agintaldian: 2024ko urtarrilaren 24an eta 25ean, otsailaren 21ean, martxoaren 15ean, apirilaren 16an eta maiatzaren 2an (Goi Maila).

Ecofin Kontseiluak, maiatzaren 14ko bilkuran, zuzentarau-proiektuaren testuari¹⁰ buruzko orientazio orokorra lortu zuen, Zuzentaruua onartze aldera, Europako Parlamentuari beste kontsulta bat egiteko eta formalizazio juridiko-linguistikoa egiteko.

⁷ AO C C/2023/897, 2023/11/13koa; 12427/23 AE.

⁸ AO C C/2024/1580, 2024/03/05ekoa, 8961/24 AE.

⁹ P9_TA(2024)0102.

¹⁰ 9925/24 AE.

Estatu kideek zuzentarauaren transposizioa egin beharko dute beren barne-zuzenbidera 2028ko abenduaren 31 baino lehen, baina arau nazionalak 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko dira.

3.2. Entitate fantasmak erabilera bidegabea

2021eko abenduaren 22an, Batzordeak Kontseiluaren zuzentarau-proposamen bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez sozietate fantasmak zerga-ondorioetarako bidegabe erabiltzea saihesteko arauak ezartzen baitira eta 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen baita («Unshell» proposamena)¹¹.

Proposamenaren helburua da gutxieneko substantziarik ez duten entitateen akzioen ondoriozko saiheste eta ihes fiskalak prebenitzea eta barne-merkatuaren funtzionamendu egokia sustatzea. Proposamenaren xedea da borroka egitea sozietate fantasmak bidegabeko helburu fiskalekin erabiltzearen aurka, eta bermatzea EBn jarduera ekonomikorik ez duten edo oso jarduera txikia duten sozietate fantasmek ezin izango dutela abantaila fiskalik eskuratu.

Proposamenaren azterketa tekniko 2022ko lehen seihilekoan hasi zen, eta ordezkariak eztabaidak izan zituzten transakzio-testuetan eta ondorengo presidentetzek egindako azalpen-oharretan oinarrituta¹². Honako gai hauek eztabaidatu ziren gehien: ondorio fiskalak, abusuzko praktiken aurkako estatu-legeriarekiko loturak, baztertutako erakundeak, gutxieneko substantzia, presuntzioa ezeztatzea eta administrazio-karga murriztea, egoitza fiskalaren ziurtagiria eta informazio-trukea. Goi Mailako Taldeak orientabideak eman zituen geroko lanetarako, ebazteke zeuden gaiei buruz. Hasiera batean, ordezkariak gehienek proposamenaren helburuen alde egin zuten, baina akordioa egingarria izan zedin lan tekniko gehigarri garrantzitsuak behar zirela adierazi zuten.

2024ko ekainaren 11n, Belgikaren presidentetzan, aurrera egiteko bide posible bat aurkeztu zen Goi Mailako Taldean. Eztabaidekin jarraitu beharko da, konpontzeke dauden gaiei buruzko irtenbide transakzionaletara iristeko.

3.3. Transferentzia-prezioei buruzko zuzentaraua

2023ko irailaren 12an, Batzordeak transferentzia-prezioei buruzko Kontseiluaren zuzentarau-proposamen bat aurkeztu zuen¹³. Horren helburu nagusia da EBko legedian txertatzea ELGaren esparruan adostutako transferentzia-prezioen arloko funtsezko printzipio eta arauak.

Batzordearen legegintza-proposamenaren xedea araudi fiskala sinplifikatzea da. Horrela, EBko enpresentzako segurtasun fiskala handituko da; auzien eta zergapetze bikoitzaren arriskua eta dagozkion betetze-kostuak murriztuko dira, eta, beraz, merkatu bakarraren lehiakortasuna eta efizientzia hobetuko da¹⁴. Proposamen horrek funtsezko alderdi hauek biltzen ditu:

- Lehia osoaren printzipioa Batasuneko Zuzenbidean txertatzea.
- Transferentzia-prezioen arloko funtsezko arauak harmonizatzea.
- Transferentzia-prezioei buruzko ELGaren gidalerroen funtzioa eta maila argitzea.
- Transferentzia-prezioei buruzko ELGaren gidalerroen esparruan, transferentzia-prezioen gai espezifikoiei buruzko arau erkide lotesleak ezartzeko aukera sortzea Batasunaren barruan.

Transferentzia-prezioei buruzko Kontseiluaren Zuzentarauari buruz Batzordeak aurkeztutako proposamenari buruzko lehen eztabaida orokorra 2023ko urriaren 20an egin zen Espainiaren presidentetzan,

¹¹ 15296/21 AE.

¹² Ikus 16411/23 AE dokumentua.

¹³ 12954/23 AE + ADD1.

¹⁴ Ikus 12954/23 AE dokumentuan agertzen den Batzordearen proposamenaren zioen azalpena.

eta horren ondoren, Belgikaren presidentetzak legegintza-proposamen horri buruz Gai Fiskalak taldearen hiru bileraren deialdia egin zuen 2024ko urtarrilaren 12an, otsailaren 27an eta apirilaren 22an.

Batzordearen proposamenari buruzko hasierako eztabaidek agerian utzi zuten, oro har, estatu kideek segurtasun juridikoa hobetzeko helburuen alde zeudela, EBn lehia osoaren printzipioa aplikatzeari dagokionez, bai eta transferentzia-prezioei buruzko ELGaren zuzentzarauen mailari eta Batzordeak proposamen horrekin lortu nahi duen gidalerro horien interpretazio bateratu berriari dagokionez ere. Hala ere, estatu kideek kezka orokor batzuk azaldu zituzten zuzentzara batean transferentzia-prezioen arloko arauak sartzeari buruz, Batzordeak proposatu bezala. Orobat, estatu kideek kezka handia azaldu zuten Batzordearen proposamenaren testuaren inguruan, bai eta transferentzia-prezioen esparruan irakurketa bikoitza sortzeko arriskuaren inguruan eta transferentzia-prezioei buruzko ELGaren gidalerroak negoziazteko eta aplikatzeko orduan gaur egun duten malgutasuna galtzearen inguruan ere.

Belgikaren presidentetzak ordezkartzen ohar eta iruzkin nagusiak abiapuntu gisa hartuko zituela esan zuen, eta estatu kideei gonbita egin zien gai nagusi hauei buruzko ikuspuntuak adieraz zitzaten:

- Transferentzia-prezioei buruzko ELGaren gidalerroen maila.
- Zuzentzara mugaz gaindiko transakzioei zein neurritan aplika dakiekeen zehaztearen auzia, EBkoak ez diren zerga-entitate eta -agintaritzei dagokionez.
- Batzordearen proposamena eta ELGaren zerga-hitzarmenaren eredia gehiago harmonizatzea.
- Establezimendu iraunkorretarako eta enpresa elkartuetarako proposatutako transferentzia-prezioei buruzko arauen funtzionamendua, bereziki enpresa elkartuen definizioan aurrera egiteko bide posibleak.
- EB mailan harmoniza litezkeen transferentzia-prezioak zehazteari buruzko prozedura-arauen irismen posiblea, eta horren abantaila potentzialak.
- Estatu kideen artean eztabaidarako eta koordinaziorako plataforma bat sortzeko aukera, transferentzia-prezioak zehaztearekin zerikusia duten gaietarako.

Orain arte, Gai Fiskalak taldeko eztabaidek agerian utzi dute estatu kideek ezin dutela babestu Batzordeak transferentzia-prezioei buruz aurkeztu duen zuzentzara-proposamena, egungo idazkera kontuan hartuta. Hortaz, beharrezkoa izango da lanean jarraitzea, aurrera egitea ahalbidetuko duen oinarri bat prestatzeko.

Aipatzekoa denez, estatu kide askok esan dute baliagarria izan litekeela «transferentzia-prezioak zehazteari buruzko EBren plataforma» bat sortzea, loteslea ez den foro berri bat, hala nola enpresen fiskalitatearen eremuko transferentzia-prezioei buruzko Europar Batasunaren foro bateratua, edo horren antzekoa neurri batean. Eztabaida horri jarraipena eman ahal izango litzaioke, eta, estatu kideek gai horrekin aurrera egin nahi badute, azken batean, honako funtsezko alderdi hauek eztabaidatu eta erabaki behar harko lirateke: plataformaren osaera (kideak), konfigurazio instituzionala, agintea (aplikazio-eremua, iraupena, eskumena, emaitzak), gobernantza (Presidentetza —hautapen edo izendapen bidez—, bozketara-arauak eta idazkaritza-zerbitzuak), bai eta mamiari edo prozedurari buruzko beste hainbat alderdi ere (dokumentuetarako sarbide publikoa, adibidez).

3.4. Egoitzako zergapetze-sistemari buruzko zuzentzara

2023ko irailaren 12an, Batzordeak Kontseiluaren zuzentzara-proposamen bat aurkeztu zuen, mikroenpresentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako egoitzako zergapetze-sistema bat ezartzen duena¹⁵. Horren helburua da sozietateei aplikatu behar zaizkien zerga-betebeharren betearazpena erraztea EBren barruan mugaz gaindiko eskalan jardutea erabakitzen duten mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainentzako (ETE). Funtsean, Batzordeak proposatzen du establezimendu iraunkor bat beste

¹⁵ 12951/23 AE + ADD1-ADD5.

estatu kide batean («harrerakoa») duten ETEek beren borondatez aplikatzen jarrai dezatela ezagutzen dituzten zerga-arauak («jatorrizko» estatu kidekoak), «jatorrizko» estatu kideko zerga-administrazioei beren establezimendu iraunkorrek beste estatu kide batzuetan («harrerakoa») duten zerga-emaizta kalkulatzeko eta aitortzeko. Espero izatekoa da akordio horren bidez enpresentzako zerga-betebeharren betetze-kostuak murriztea, enpresa txiki eta ertainen mugaz gaindiko hedapena sustatzea eta enpresa txiki eta ertainek barne-merkatuan parte hartzeko bidezko lehia-baldintzak bermatzen laguntzea.

Batzordearen proposamenari buruzko lehen eztabaida orokorra 2023ko abenduaren 1ean izan zen, Espainiaren presidentetzan. Ondoren, Belgikaren presidentetza azterlan zehatzagoa egiten hasi zen Gai Fiskalak taldearen bileretan, 2024ko apirilaren 9an (proposamenaren 2. artikulutik 5.era eta 7.etik 10.era artekoak buruz) eta 2024ko maiatzaren 29an (gainerako artikuluei buruz, batez ere egoitzako zergapetze-sistemaren prozedurak administratzeari buruz, 6. artikulua eta 11. artikulutik 14.era bitartekoak). Batzordeak hainbat estatu kideko adituen talde informala ondu ondorioen laburpena ere aurkeztu zien ordezkarietara. Talde horretan, proposamen horrek zerga-agintaritzari ekar diezazkiekeen administrazio-errotak aztertu zituzten. Eztabaida horien helburua gai teknikoak eta proposamenaren balizko abantailen ikuspegi orokorra lortzea zen.

Aipatzekoa da ordezkari guztiek babesten dutela ETEen mugaz gaindiko jarduerak errazteko helburu orokorra. Estatu kide batzuek Batzordearen proposamena oinarri hartuta eztabaida tekniko berriak egin daitezkeela uste badute ere, garrantzitsua da aipatzea ordezkari askok kezka handiak azaldu zituztela Batzordearen proposamenaren zenbait alderdiri buruz, hala nola Batzordeak proposatutako zuzentzarauak zerga-agintaritzari zerga-plangintza administratibo edo oldarkorraren arloan sor diezazkiekeen errorei buruz, estatu kideen diru-sarrera fiskaletan izan dezaketen eraginari buruz, merkatu nazionalen lehiakortasunarekin lotutako arriskuei buruz (mugaz gaindiko eskalara ez hedatzea erabakitzen duten edo ezin duten ETE «nazionalak»), bai eta argudio orokorretan buruz ere; adibidez, estatuen zerga-sistemarako zamari edo subiranotasun fiskalari buruz.

Zenbait estatu kideren iritziz, aurrerapen tekniko berriak egin baino lehen, espediente horri buruzko eztabaida orokorragoa (orientaziokoa) egin behar da. Beraz, espediente horri buruzko lanekin jarrai lezakete, Batzordearen proposamenaren inguruan hartu beharko liratekeen aukera politikoei buruzko goi-mailako eztabaida bat prestatze aldera.

3.5. Europako enpresei buruzko zuzentzaraua: sozietateen gaineko zergarako esparrua

2023ko irailaren 12an, Batzordeak «Enpresak Europan: sozietateen gaineko zergarako esparrua» Kontseiluaren zuzentzarau-proposamena aurkeztu zuen (BEFIT, ingelesezko sigletan)¹⁶. Zuzentzarauaren xede nagusia sozietateen gaineko zergaren esparru erkide bat garatzea da EBko multinazional handientzat. BEFIT proposamenarekin, Batzordeak sozietateen gaineko zergaren (BICIS/BICCIS) zerga-oinarri bateratuari buruzko proposamenak baztertu zituen. Proposamen horiek Kontseiluaren mahai gainean zeuden 2016tik, eta etenda geratu ziren, bi zutabetan oinarritutako erreformari buruzko mundu mailako negoziazioen ondorioz (ELGAren BEPSaren eta G20aren esparruaren testuinguruan).

Legegintza-proposamen hori aurkeztu ondoren, Espainiaren presidentetzan, Gai Fiskalak taldeak 2023ko irailaren 29an egindako bilera batean, Belgikaren presidentetzak azterketa xehatua egin zuen talde horrek 2024ko maiatzaren 28an egindako bileran. Bertan, Batzordearen proposamenaren lehenengo hogeitun artikuluetako gehienei buruzko eztabaida zehatzagoa egin zuten, batez ere artikuluek bigarren zutabeko arauarekin harmonizatze aukerari buruz.

16 12965/23 AE + ADD1-ADD3.

Orain arte izan diren eztabaidetan, estatu kideek EBko enpresen fiskalitateari buruzko arauak sinplifikatzeko eta enpresen eta zerga-agintaritzen administrazio-karga murrizteko helburu orokorren alde egin dute. Hala eta guztiz ere, zuzentarauak, Batzordeak proposatu bezala, helburu horiek lortuko ote lituzkeen kezka ugari agertu dira. Zehazki, orain arte kezka azaldu dira proposatutako zuzentarauaren funtzionamenduaren gainean, arlo hauetan: sozietateen gaineko zergaren arau nazionalak, bigarren zutabeko arauak eta fiskalitatearen arloan indarrean dagoen EBren arau multzoa (hala nola abusuzko praktiken aurkako neurriak eta benetako gutxieneko zerga-mailari buruzko zuzentaraua), aplikazio-eremua eta aplikazio-eremuan sartutako taldeen aurretiazko aitopenaren emaitzaren zehaztapena.

Azaldutako kezken izaera dela eta, eztabaida politikoa egiteko eskatzen duten zenbait estatu kideekin, Batzordearen proposamenaren azterketa teknikoa egiten jarrai daiteke, Batzordearen proposamen horren inguruan hartu beharko liratekeen aukera politikoei buruzko eztabaida prestatzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan, beharrezkoa izango da gogoeta eta lan teknikoak egiten jarraitzea, hurrengo presidentetzaren agintaldian negoziazio horien hurrengo etapak zehazteko.

3.6. Jokabide Kodea taldea, enpresen fiskalitateari buruz

Jokabide-kodea gobernuarteko konpromiso politikoa da. Kontseiluko Jokabide Kodea taldea estatu kideetako goi-mailako aditu fiskalek osatzen dute. Kontseiluko idazkaritzaren laguntzarekin, EBko estatu kideetan egon daitezkeen neurri fiskal kaltegarriak ikuskatzeaz arduratzen da. Batzordeak laguntza teknikoa ematen dio taldeari.

Taldearen lanak nazioarteko dimentsioa ere badu, alegia, mundu mailan aldaketa eraginkorrak sustatu nahi ditu gobernantza fiskal onari dagokionez, lankidetzaren bidez. Jokabide Kodea taldeak lan teknikoa, kontrola eta ebaluazioa egiten ditu, eta, horren bidez, Kontseiluak aldi-aldi berrikusten du ondorio fiskaletarako kooperatiboak ez diren jurisdikzioen EBko zerranda. EBko zerranda hori aldi-aldi berrikusten da, prozesuaren parte diren hirugarren herrialdeetako jurisdikzio guztiek beren gain hartutako konpromisoen implementazioa sakon berrikusi ostean. Testuinguru horretan, taldea eta presidentea elkarriketa politikoa izaten ari dira 90 jurisdikzio ingururekin mundu osoan.

3.6.1. Alderdi orokorrak

LANA ANTOLATZEA

2024ko lehen seihilekoan, Jokabide Kodea taldeak (COCG, ingelesezko sigletan) —María José Garde Garde Espainiako Ogasun Ministerioko Fiskalitateko zuzendari nagusia izan da presidente— agintaldia betetzen jarraitu du, adostutako urte anitzeko lan-paketaren eta Ecofin Kontseiluaren 2023ko lan-programaren eta orientabideen arabera, bereziki 2023ko abenduko¹⁷ eta 2024ko otsaileko¹⁸ lan-programaren arabera.

COCGaren bilerak 2024ko otsailaren 7an eta ekainaren 10ean egin ziren, eta azpitaldearen bilerak 2024ko urtarrilaren 19an, martxoaren 1ean, apirilaren 24an eta maiatzaren 23an.

¹⁷ 16361/23

¹⁸ 6776/24

3.6.2. Standstill eta Rollback berrikuspen-prozesuak

2023ko azaroaren erdialdean, 2023aren amaierarako aldarrikatutako lehentasunezko neurri fiskal berriak eteteko eta desegiteko jakinarazpenen deialdia egin zen, eta emaitzak COCGaren 2024ko otsailaren 7ko bileraan aurkeztu ziren. Honako araubide berri hauek jakinarazi ziren¹⁹:

- Italia: Eremu Ekonomiko Bakarrean egindako inbertsioengatiko kreditu fiskala 2024rako (IT025).
- Italia: mikroelektronikaren sektorean ikerketa eta garapenerako kreditu fiskala (IT026).
- Italia: errentaren gaineko zergaren kenkari gehigarria, enplegu-oinarria eta lan-kontratu mugagabeak areagotzea sustatzeko (IT027).
- Lituania: errentaren gaineko zergaren aldaketak, eskala handiko proiektuak gauzatzeko enpresentzat (LT010).
- Portugal: Enpresen Kapitalizazioa Sustatzeko Zerga Araubidea (PT019).
- Portugal: Madeirako zona frankoa – IV (PT020).

STANDSTILLA AZTERTZEKO PROZESUA.

Taldeak honako erabaki hauek hartu zituen:

1. Enplegu-oinarria eta lan-kontratu mugagabeak areagotzea sustatzeko Italiako errentaren gaineko zergaren kenkari gehigarria (IT027): COCGak erabaki zuen neurria ez duela Taldeak ebaluatu behar²⁰.
2. Lituaniak eskala handiko proiektuak ezartzen dituzten enpresentzako sozietate-zergari egindako zuzenketak (LT010): COCGak erabaki zuen ez dela beharrezkoa neurria ebaluatzea, baina haren ondorioak Taldeak monitorizatu behar ditu²¹.
3. Madeirako zona frankoa Portugalen – IV (PT020): COCGak erabaki zuen neurria ez duela Taldeak ebaluatu behar. Hala ere, Portugalak konpromisoa hartu zuen 2025eko ekaina baino lehen Taldeari 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra Madeirako zona frankoan jarduteko baimendutako entitate kopurua emateko, urtearen eta jarduera-sektorearen arabera banakatuta²².
4. Berrikuntza-jarduerak eta I+G jarduerak dituzten enpresak Errumaniako mozkinen gaineko zergatik salbuestearen etendako berrikuspena (RO008) etenda mantentzen da dagokion estatu-legeria onartu arte: araubide hori ez da aplikatzen gaur egun, orain arte ez baitira ondorengo administrazio-egintzak onartu.

ROLLBACKA AZTERTZEKO PROZESUA.

Kroaziako Inbertsioak Sustatzeko Legearen (HR019) itzulketa-jakinazpenari dagokionez, Taldeak 2023an erabaki zuen itzulketa oraindik egiteke dagoela eta Inbertsioak Sustatzeko Lege berrira (HR020) zabaldu beharko litzatekeela²³.

STANDSTILL PROZEDURAREN ESPARRUKO JAKINARAZPENETAN ZENTRATZEA

2023an egindako lana oinarri hartuta, COCGak, gainera, bere lan-praktikak hobetzeko modu posibleak aztertu zituen, estatu kideek Taldeari kodearen irismenaren barruan sar daitezkeen neurrien berri noiz eman behar dioten gehiago argitzeko, eta neurri horiek irizpide argi eta objektiboen arabera jakinaraz-

¹⁹ Ikus dokumentuan eguneratutako bilduma. 8602/7/20 REV 7

²⁰ Ikus ADD 1

²¹ Ikus ADD 2

²² Ikus ADD 3

²³ 15757/23.

teko. 2024ko ekainaren 10ean, COCGak lehentasunezko zerga-neurrien jakinarazpenari buruzko gida berrikusi bat adostu zuen, Kodearen E paragrafoaren arabera (ikus I. eranskina).

3.6.3. Neurri indibidualen benetako ondorioen jarraipena

Azken urteotan, aztertu diren neurri batzuei jarraipena egin zaie urtero. Aurreko jardunarekin bat etorritik, espero da ukitutako estatu kideek ekainaren amaieran jakinaraziko dizkiotela Taldeari dagozkion datuak (hau da, 2022rako). Taldeak dagozkion neurrien benetako ondorioak aztertuko ditu bigarren seihilekoan. Aldi berean, eta datu garrantzitsuak eskura jartzen direnean, Taldeak 2023ko jarraipen-zikloaren gaine-rako neurrien ondorioak ere aztertuko ditu; izan ere, neurri horiek ez ziren jorratu datuak falta zirelako: CY020 neurria, eta portu seguruko arauen erabilera Zipren eta Polonian.

3.6.4. Zerga-ondorioetarako kooperatiboak ez diren jurisdikzioen EBko zerrenda

A. ZERGA-ONDORIOETARAKO KOOPERATIBOAK EZ DIREN JURISDIKZIOEN EBKO ZERRENDA EGUNERATZEA

2023ko abenduaren 8ko ondorioetan²⁴, Ecofin Kontseiluak pozik hartu zituen Jokabide Kodea taldeak lortutako aurrerapenak, batez ere, 2023ko urrian herrialde eta lurralde ez-kooperatiboan EBko zerrenda berrikusteari dagokionez, baita jokabide-kodearen eragin positiboa eta Taldearen lana ere jardunbide fiskal kaltegarriak eta lehentasunezko zerga-arabideak murrizteko EBn zein mundu osoan.

Kontseiluak pozik hartu zituen, bereziki, atzerriko iturrien diru-sarrerak salbuesteko arabideen erre-forma osatu zuten jurisdikzioek (FSIE) iradokitako epearen barruan egindako aurrerapenak, bai eta FSIE arabidea erreformatzeko prozesuan dauden beste jurisdikzio batzuekin hasitako elkarrizketa ere. Kontseiluak pozik hartu zituen, alde batetik, jurisdikzio fiskal deusez edo soilik nominalekin egindako aurre-rapenak, 2.2 irizpidearen arabera substantzia ekonomikoaren betekizunen ezarpenaren jarraipenaren testuinguruan, eta, bestetik, jurisdikzio garrantzitsuekin egindako aurrerapenak, BEPSaren aurkako gutxieneko estandarraren inplementazioari dagokionez, herrialdez herrialdeko txostenak aurkezteari dago-kionez (CbCR), 3.2 irizpidearen arabera, informazio-truke automatikoaren ezarpenari dagokionez (AEOI) (1.1 irizpidea) eta alde zurretik eskatuta informazioa trukatzeari dagokionez, 1.2 irizpidearen arabera.

Kontseiluak atseginez hartu zituen onuradun errearen informazioari buruzko etorkizuneko 1.4 irizpi-dearen inguruko aurrerapenak, eta Taldeari lanean jarraitzeko eskatu zion, onuradun erreala gardenta-sun fiskalari buruzko laugarren irizpide gisa txertatzeko.

Kontseiluak arlo fiskalean jurisdikzio ez-kooperatiboan aurrean defentsa-neurriak ebaluatzeko lanean jarraitzeko eskatu zion Taldeari, adostutako orientabideekin bat etorritik, eta Kontseiluari arlo horretan egin-dako aurrerapen berriak jakinarazteko.

Kontseiluak BEPSaren aurkako gutxieneko estandarraren arabera oraindik ebaluatu ez diren jurisdikzio garrantzitsuekin lankidetzan aritzera gonbidatu zuen Taldea, herrialdez herrialdeko txostenak aurkez-teari dagokionez (CbCR) (3.2 irizpidea).

COCGak jurisdikzio egokiekin interakzioan eta elkarrizketan jarraitu zuen, azkenaldiko gertaerak eta konpromisoen ezarpena ebaluatzeko, EBko zerrenda aldian behin eguneratzeko asmoz.

Zerrendaren azken berrikuspena urtarrilaren 19ko azpitaldearen bileran prestatu zen, eta COCGaren 2024ko otsailaren 7ko bileran amaitu zen. Kontseiluak 2024ko otsailaren 20an²⁵ onetsi zuen jurisdikzio ez-kooperatiboan EBko zerrenda eguneratua, eta 2024ko otsailaren 26an²⁶ argitaratu zen Aldizkari Ofi-zialean.

²⁴ 16361/24.

²⁵ 6776/24.

²⁶ AO C 2024/1804, 2024/02/26koa, 1-4. or.

Eguneraketaren ostean, 12 jurisdikzio daude EBko zerrendan. Ondorio fiskaletarako kooperatiboak ez diren jurisdikzioen EBko zerrendatik lau jurisdikzio kendu ziren (I. eranskina): Bahamak, Belize, Seychelleak eta Turk eta Caico uharteak. ELGaren Jardunbide Fiskal Kaltegarrien Foroaren (FHTP) azken ebaluazioan, Bahamentzako eta Turk eta Caico uharteentzako informazio-trukeari buruzko gomendioak gomendio «gogor» izatetik gomendio «bigun» izatera igaro ziren, eta, horri esker, jurisdikzio horiek substantzia ekonomikoari buruzko estandarra betetzen dutela iritzi zion Jokabide Kodea taldeak. Foro Globalak berri-kuspen osagarri bat eman zien Belizeri eta Seychellei, aldez aurretik eskatuta informazioa trukatzeari buruzko EBko zerrendaren 1.2 irizpidearen harira. Azterketa horren emaitzaren zain, Belize eta Seychelleak II. eranskinean dagokien atalean sartu dira.

Konpromisoen egoeran ere aurrerapen positibo ugari izan dira (dagozkion ondorioen II. eranskina). Bi jurisdikzio, hots, Albaniak eta Hong Kongek, beren konpromisoak bete, eta araubide fiskal kaltegarriak aldatu zituzten, eta, hala, II. eranskinetik ezabatu ziren.

Arubak eta Israelek ere bete zituzten finantza-kontuen informazio-truke automatikoarekin lotutako konpromisoak, txostenak aurkezteko estandar komunaren esparruan, eta, beraz, konpromiso horiek ere ezabatu egin ziren. Foro Globalak kalifikazio positiboak eman zizkien Botswanari eta Dominikari, aldez aurretik eskatutako informazio-trukeari dagokionez. Horren ondorioz, jurisdikzio horiei buruzko erreferentzia ezabatu zen II. eranskinean dagokien atalean.

Hamabi jurisdikzio jarraitzen dute I. eranskinaren barruan: Samoa Estatu Batuarra, Aingira, Antigua eta Barbuda, Fiji, Guam, Palau, Panama, Errusia, Samoa, Trinidad eta Tobago, Birjina Uharte Estatu Batuarra eta Vanuatu.

Turkiak II. eranskinean jarraitzen du 1.1 irizpiderako (informazio-truke automatikoa), oraindik ez baitator guztiz bat Ecofin Kontseiluaren 2021eko otsailaren 22ko, 2021eko urriaren 5eko, 2022ko otsailaren 24ko, 2022ko urriaren 4ko, 2023ko otsailaren 14ko, 2023ko urriaren 17ko eta 2024ko otsailaren 20ko ondorioei jarraituz eskatutako konpromisoekin. Espero da Turkiak estatu kide guztiekin datu-truke eraginkorra egiteari buruzko lan teknikoa hastea edo jarraitzea, adostutako nazioarteko estandarrak betetzeko eta Ecofin Kontseiluaren ondorioetan arestian aipatutako baldintzak erabat betetzeko.

B. JURISDIKZIOEK BEREN GAIN HARTUTAKO KONPROMISOEN INPLEMENTAZIOAREN JARRAIPENA

Ikuspegi orokorra

2024ko otsailean, Taldeak gainbegiratzeke zeukan 10 jurisdikzio²⁷ maila politiko handian hartutako 17 konpromisoren²⁸ inplementazioa. Kontseiluaren ondorioen II. eranskinean daude jasota:

Irizpidea	Konprometitutako jurisdikzioen kopurua
1.1	3
1.2	3
2.1	3
3.2	1

Informazio-truke automatikoari, aldez aurretik eskatuta informazioa trukatzeari eta CbCRaren gutxieneko estandarrak ezartzeari buruz hartu gabe dauden konpromisoak 1.1, 1.2 eta 3.2 irizpideei buruzko ataletan zehaztu dira, hurrenez hurren.

²⁷ Armenia, Belize, Birjina Uharte Britainiarrak, Costa Rica, Curaçao, Eswatini, Malasia, Seychelleak, Turkia eta Vietnam.

²⁸ Kopuru hori irizpide bakoitzaren arabera jurisdikzio-konpromisoen batuta da (ikus taula).

Gainera, 2.1 irizpidearen arabera kaltegarriak diren hiru zerga-araubide lehengoratu gabe daude oraindik; horietako bat COCGren ikuskaritzapean dago²⁹, eta bi ELGAren FHTPren ikuskaritzapean³⁰. Deskribapen zehatza COCGk 2.1 eta 2.2 irizpideen arabera aztertutako lehentasuneko araubide eta neurrien bilduman³¹ jasota dago.

Elkarrizketa politikoa eta prozedurazkoa

COCGko presidenteak elkarrizketa politikoak eta prozedurazkoak izaten jarraitu zuen nazioarteko erakunde eta jurisdikzio egokiekin, beharrezkoa izan zenean.

Presidenteak gutun batzuk jaso zituen jurisdikzioen aldetik, eta bilera pertsonalak eta maila politiko handiko bideokonferentziak ere egin zituen horietako batzuekin. Ordezkaritzei interakzio horien berri eman zitzaien, eta Taldeak erabaki zituen presidenteak sinatutako erantzun-gutunak.

C. DETEKZIO- ETA IRISMEN-GAIAK

1.1 irizpidea (Foro Globalaren binakako berrikuspenak, AEOIraiko Txostenen Estandar Komunari dagokionez)

Hasieratik, eboluzionatzeko diseinatu da 1.1 irizpidea, Gardentasun Fiskalari eta Informazio Trukeari buruzko Foro Globalak (Foro Globala) Finantza Kontuen Informazio Truke Automatikoari (AEOI) buruzko binakako berrikuspen-prozesuaren ildotik. 2022an, AEOIren binakako berrikuspen-prozesuaren zati gisa, Foro Globalak lehen aldiz kalifikazioak egin zituen AEOI estandarra praktikan jartzearen eraginkortasunari buruz.

2022ko ekainean, Jokabide Kodea taldeak bi urratseko ikuspegia adostu zuen 1.1 irizpidea ezartzeko, AEOIri buruzko Foro Globalaren binakako berrikuspenen bilakaeraren balantzea eginez, 2022ko txostenarekin hasita. Taldeak, gainera, 1.1 irizpide eguneratua lehen urratsean ezartzeari buruzko gida ere hartu zuen³². Zehazki, gidak argitu zuen COCGk 1.1 irizpenaren ebaluazioak egiteko hartu beharreko erreferentzia-puntua Foro Globalak jurisdikzioei esleitutako lege-zehaztapenak direla, estatuko eta nazioarteko lege-esparru beharrezkoa ezartzeko. Irismenean gutxieneko betetze-maila hauxe eskatzen da jurisdikzioetarako: «Badu, baina hobekuntzak behar ditu», bai oinarritzko 1. betekizunerako, bai oinarritzko 2. betekizunerako, AEOIren erreferentzia-baldintzetan. Presidenteak sinatutako gutunak bidali zitzaizkien interesa zuten jurisdikzio guztiei, eguneratze horren berri emateko. 2022ko urriaren 24ko bileran, COCGk zer bide jarraitu erabaki zuen, Foro Globalaren ustez AEOIren binakako berrikuspenetan oinarrituta 2022rako betetzen ez zituzten jurisdikzioei dagokienez.

2022ko Foro Globalak AEOIri buruz egindako binakako berrikuspen-txostena 2022ko azaroaren 9an argitaratu zen³³. Ondoren, presidenteak sinatutako gutunak bidali ziren, jurisdikzioei gabeziak konpontzeko konpromisoak eskatzeko. Izan ere, jurisdikzioek ez zuten behar besteko betetze-maila izan 2022. urteko AEOIren binakako berrikuspenean³⁴. Jurisdikzioek hartutako konpromisoak EBko 2023ko otsaileko zereendaren eguneratzean islatu ziren.

2023ko AEOIren binakako berrikuspenaren eguneratze-txostenean, Foro Globalak 2023ko azaroaren 29an argitaratutakoan³⁵, Aruba, Belize eta Israelerako zehaztapenak aldatu egin ziren, «Indarrean ez» iza-

²⁹ Malaysiako FSIE araubidea.

³⁰ Armeniako «eremu ekonomiko libreak» eta Eswatiniko «eremu ekonomiko berezia».

³¹ 6430/23 AE.

³² 10346/22ren eranskina.

³³ https://www.oecd-ilibrary.org/taxation/peer-review-of-the-automatic-exchange-of-financial-account-information-2022_36e7cded-en

³⁴ Aruba, Belize, Ocaçao, Costa Rica, Israel eta Trinidad eta Tobago.

³⁵ <https://www.oecd.org/publications/peer-review-of-the-automatic-exchange-of-financial-account-information-2023-update-5c9f58ae-en.htm>

tetik gutxienez «Badu, baina hobekuntzak behar ditu» izatera. Beraz, jurisdikzio horiek hartutako konpromisoaren erreferentzia II. eranskinean dagokion ataletik kendu zen EBko zerrenda eguneratu zenean, 2024ko otsailean.

1.2 irizpidea (Foro Globalak binaka egindako berrikuspenak, alde zurretik eskatuta informazioa trukatzeari buruzko estandarrari dagokionez)

2023ko azaroaren 8an, Foro Globalak Botswana (berrikuspen osagarria), Dominika (berrikuspen osagarria), Serbia eta Thailandiarekiko binakako berrikuspen-prozesuaren emaitza argitaratu zuen. Lau jurisdikzioak gehienbat betetzailatzat kalifikatu dira, eta II. eranskinean zegokien ataletatik kendu ziren EBko zerrenda eguneratu zenean, 2024ko otsailean.

1.4 irizpide berria, azken onuradunei buruzko informazioari buruzkoa

2023ko abenduaren 8ko ondorioetan, Ecofin Kontseiluak pozik hartu zituen onuradun erreala inforazioari buruzko etorkizuneko 1.4 irizpidearen inguruko aurrerapenak, eta Taldeari lanean jarraitzeko eskatu zion, onuradun erreala gardentasun fiskalari buruzko laugarren irizpide gisa txertatzeko. Taldearen 2024ko otsailaren 7ko bileran, orientazio gehigarria eman zen 1. azpi-irizpidearen irismena eta erreferentzia-terminoak hobetzeko behar den lan teknikorako, bereziki EBrekiko eta nazioarteko arauetiko aplikagarritasunari eta koherentziari dagokienez. 2024ko apirilaren 24ko azpialdeak ELGAN (WP10) gaiari buruz egindako aurrerapenak aztertu zituen, eta 2024ko maiatzaren 23ko azpialdearen bileran 1. azpi-irizpidea berriz diseinatzearen xehetasun teknikoari buruzko eztabaidarekin jarraitu zuten.

2.1 irizpidea. FHTPre monitorizaziopeko erregimenak

2023ko urriaren 26an eta 27an egindako bileran, FHTPk Jokabide Kodea taldearekin konpromisoak hartu zituzten jurisdikzioekin lotutako lau araubideren erreformak ebaluatu zituen³⁶, eta Taldeak ebaluazio horiek aztertu zituen 2023ko azaroaren 22ko bileran. 2023ko urriaren 26an eta 27an egindako bileran, Albanian eta Armenian lehentasunezko zerga-erregimenak «indargabetzea» ondorioztatu zuen FHTPk (informazioaren teknologiko proiektuak). Albanian buruzko erreferentzia II. eranskinean dagokion ataletik kendu zen EBko zerrendaren eguneratu zenean, 2024ko otsailean. Urriaren 26an eta 27an egindako bileran, Armeniako eta Eswatiniko «eremu ekonomiko libreak» aldatzeko/ezabatzearen prozesuan dardela erabaki zuen FHTPk. 2024ko maiatzaren 14an eta 15ean egindako bileran, aldatutako bertsioan bi araubideak kaltegarriak ez direla erabaki zuen FHTPk —dagozkion legeriak onartu behar dira—.

2.1 irizpidea (Atzerriko diru-sarrerak salbuesteko araubideak)

2019ko urrian, Ecofin Kontseiluak orientabideak onetsi zituen EBko kotizazio-ekitaldiaren eremuan (2.1 irizpidea), atzerriko diru-sarrerak salbuesteko araubideei buruz (FSIE). Gida horrek onartzen du FSIE araubideak ikuspegi legitimoa direla zergapetze bikoitza prebenitzeko, baina araubide horietan egon litezkeen elementu potentzialki kaltegarriak identifikatzen ditu.

2019ko abenduan, COCGko presidentek hamahiru jurisdikziori idatzi zien, eta jakinarazi zien haien jurisdikzioan mota horretako erregimen bat identifikatu zela. Batzordeko zerbitzuek bederatzi jurisdikziotako galdetegi batekin egin zuten jarraipena 2020ko otsailean; erantzuteko azken eguna 2020ko martxoaren 20a zen. Hurrengo etapa batean lau jurisdikzio aztertzea erabaki zen.

Jurisdikzio guztiek erantzun zioten galdetegiari. Batzordeko zerbitzuek erantzunak aztertu zituzten eta jarraipena egin zuten beharrezkoa izan zenean. Hori oinarri hartuta, Batzordeak ordura arte egindako lanaren ikuspegi orokorra prestatu zuen, baita herrialde bakoitzeko aurrerapen-txosten espezifikoak ere.

³⁶ Albanian «pizgarri industrialak», Armeniako «gune ekonomiko libreak» eta «informazioaren teknologiko proiektuak» eta Eswatiniko «eremu ekonomiko berezia».

2021eko maiatzaren 19an, COCGk sei jurisdikziori gutunak bidaltzea erabaki zuen, eta haien FSIE araubide kaltegarriak indargabetzeko edo aldatzeko konpromisoak bilatu zituen. Bost jurisdikziok erantzun zuten, eta beren araubideak indargabetzeko edo aldatzeko konpromisoa berretsi zuten³⁷. Jurisdikzio batek ez zuen eskatutako konpromisoa adierazi³⁸. Gainerako hiru jurisdikzioak³⁹ bat etorri ziren EBko zerrendan sartzeko irizpideekin. Jurisdikzio batek⁴⁰ 2022ko amaiera baino lehen beritu zuen bere FSIE araubidea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko zena.

FSIEren erreformen azterketa teknikoetan, FSIEri buruzko gidaren hizkera argitu behar izan zen zenbait alderditan, bereziki kapital-irabazien tratamendu fiskalaren harira. 2022ko abenduan FSIE araubideei buruzko gida argitu ondoren⁴¹, Taldeak erabaki zuen ukitutako bi jurisdikzioei⁴² denbora gehigarria ematea kapital-irabazien tratamendu fiskalari buruzko legeria aldatzeko, hau da, 2023ko amaierarako, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jartzeko. Jurisdikzio bati⁴³ 2023ko ekainaren 30a baino lehen FSIE araubidea aldatzeko konpromisoa har zezan eskatu zitzaion, FSIE gidaren arabera, 2024ko ekainaren 30a baino lehen, 2024ko uztailearen 1etik aurrera indarrean jartzeko. Jurisdikzio horrek FSIE araubidea aldatzeko konpromisoa hartu zuen 2023ko abenduaren 31 baino lehen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta dagokion legeria onartu zuen 2023ko urriaren 3an, FSIE gidarekin bat etorritik. Jurisdikzio bati⁴⁴ 2023ko martxora arteko luzapena eman zitzaion FSIE araubidea erreformatzeko, eta lehen eta bigarren mailako legeria egokia onartu zuen, 2022ko abenduaren 22tik aurrera dagoena indarrean.

Jurisdikzio batek⁴⁵ FSIE araubidea aldatu zuen eta bi jurisdikziok⁴⁶ konpromisoak bete zituzten FSIE araubideei buruzko gidaren arabera, 2023ko urrian EBko zerrenda eguneratu aurretik.

Hong Kongek, legeria onartzeko, FSIE araubideko kapital-irabazien tratamendua aldatu zuen 2023ko azaroan. Hala bada, erreferentzia II. eranskineko dagokion ataletik ezabatu zen EBko zerrendaren eguneratu zenean, 2024ko otsailean.

2024ko otsailaren 7ko bileran, COCGk Malaysiari denbora gehiago ematea erabaki zuen, 2024ko martxoaren 31ra arte, FSIE araubidearen erreforma osatzeko. Erabaki hori hartzean, jurisdikzioak egindako funtsezko aurrerapena izan zuten kontuan. 2023ko abenduan, Malaysiak lehen mailako legeria onartu zuen 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta atzerriko kapital-irabazien gaineko zerga txertatu zuen. 2024ko martxoan, Malaysiak bigarren mailako legeria eta atzerriko kapital-irabaziak zergatik salbuesteko gidalerroak onartu zituen, substantzia ekonomikoaren baldintzak betetzen dituzten entitateentzat, eta azpitaldeak positiboki ebaluatu zituen 2024ko apirilaren 24ko bileran —bi aldaketa egin behar dira—. 2024ko apirilaren 26an, jurisdikzioak bi aldaketa horiek onartu zituen, COCGren betekizunekin bat. Taldeak ondorio bat aterako du Malaysiako FSIEren erreformari buruz, EBko zerrenda eguneratzen den hurrengoan.

2.2 irizpidearen araberako jarraipena

2021eko uztailean, Taldeak erabaki zuen 2.2 jurisdikzioen⁴⁷ substantzia ekonomikoaren betekizunen aplikazioaren urteko jarraipena egitea, zerga nominalak edo deusezak dituzten jurisdikzioen FHTPrek jarraipen paraleloarekiko sinergia bermatuz.

³⁷ Costa Rica, Hong Kong, Malaysia, Qatar eta Uruguai.

³⁸ Panama

³⁹ Maldivak, Nauru eta Singapur.

⁴⁰ Uruguai.

⁴¹ Dok. 14674/22.

⁴² Hong Kong eta Malaysia.

⁴³ Singapur.

⁴⁴ Qatar.

⁴⁵ Costa Rica.

⁴⁶ Qatar eta Singapur.

⁴⁷ Jurisdikzio horietan sartzen dira hamabi zerga-jurisdikzio deusezak edo soilik nominalak (Aingira, Bahama uharteak, Bahrain, Barbados, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak, Guernese, Jersey, Kaiman uharteak, Man uharteak, Marshall Uharteetako

2022ko ekainaren 2ko bileran, Taldeak erabaki zuen, 2023tik aurrera, jurisdikzio horien urteko jarraipenak kontuan hartuko zituela FHTPre azken ondorioak, hau da, EBko zerrenda eguneratu aurretik argitaratutakoak.

Gainera, Taldeak 2.2 irizpidearen irismenean oso mugikorrek diren jarduerak egin ditzaketen entitateen edo akordioen egoera eztabaidatu zuen, oraindik ez baitira sartu substantzia ekonomikoaren betekizunei buruzko estatuko legeriaren irismenean 2.2 jurisdikzio guztietan.

Taldeak erabaki zuen fideikomisoak eta beste lege-akordio batzuk hautatzeko ariketa bat hastea, 2019an elkarteekin erabili zenaren antzekoa; izan ere, 2.2 irizpideak irismen integrala du, eta, hasiera batean, entitate edo akordio guztiak hartzen ditu barnean. Helburu horrekin, Taldeak erabaki zuen lan hori FHTPrekin lankidetzat estuan egitea. FHTPk 2022ko azaroko bileran erabaki zuen mapaketa paraleloko ariketa bat egitea. Lan hori abian da, eta Taldeak berriro helduko dio gai horri, 2.2 irizpidearen irismenean garrantzitsuak diren entitate guztiak sartzeko lana amaitze aldera.

2022ko ekainaren 2ko bileran, Taldeak erabaki zuen, halaber, berriki hartutako FHTP gida kontuan hartzea, kapital hutseko sozietateei eta egoitza fiskala beste jurisdikzio nominal edo deusez batean dutela dioten entitateei buruzkoa, 2.2 irizpidearen arabera.

FHTPk 2022ko azaroaren 21ean eta 22an egin zuen bileraren ondoren, zeinak funtsezko jardueren betekizunen praktikako aplikazioaren urteko bigarren jarraipena amaitu baitzuen, presidentek gutunak bidali zizkien lau jurisdikziorik⁴⁸ 2023ko urtarrilean, FHTPk egindako gomendioekin lotuta behar ziren neurriak hartzera gonbidatuz. 2022ko azaroko bileran, Barbadosen FHTPre gomendio «gogor» bat jaso zuen informazio-trukeari buruz. Hala ere, 2023ko urtarrilaren 31n, FHTPk prozedura idatzi bidez onetsi zuen ebaluazio eguneratu bat Barbadoserako, eta jurisdikzio horri egindako gomendio «gogorra» ezabatu zuen 2022ko monitorizazio-prozesuaren parte gisa. Beraz, 2023ko otsailaren 1eko bileran, Taldeak gomendatu zuen II. eranskinean dagokion ataletik Barbadosi buruzko aipamena kentzea, 2023ko otsailen EBko zerrenda eguneratzeari dagokionez.

2022rako (monitorizatutako urtea) funtsezko jardueren betekizunen aplikazioaren 2023ko monitorizazioaren aurretiazko ebaluazioa FHTPk 2023ko urriaren 26tik 27ra egin zuen bileran aurkeztu zen. FHTP estandarren irismenean deusezak edo soilik nominalak diren 12 zerga-jurisdikzioetatik 4k⁴⁹ gomendio leunak jaso zituzten, bereziki datu estatistikoak eta betetze-programei buruzkoak. Gainera, lau jurisdikzio⁵⁰ informazio-trukeari buruzko gomendio zorrotzak jaso zituzten. ELGAren Jardunbide Fiskal Kaltegarrien Foroaren (FHTP) ebaluazio osagarrian, Birjina Uharte Britainiarrei egindako gomendia ezabatu egin zen, jurisdikzioak eskatutako informazio-truke guztiak osatu zituelako. Gainera, bai Bahamentzako bai Turk eta Caico uharteentzako gomendioak gomendio «gogorak» izatetik «bigunak» izatera igaro ziren, eta, horri esker, Jokabide Kodea taldeak iritzi zion jurisdikzio horiek betetzen dutela errenta korporatiboaren gaineko zergarik ez duten edo soilik nominalak dituzten jurisdikzioetarako estandarra, eta EBko zerrendako I. eranskinetik ezabatu ziren 2024ko otsailean eguneratu ondoren. Aingiraren sarrerak ez zuen aldaketarik izan, zeren jurisdikzioak ez baitzituen araupean eskatutako informazio-trukeak egin. FHTPk ondorioztatu zuenez, 2023ko ekainaren 1ean errenta korporatiboaren gaineko zergaren % 9ko tasa sartu zenetik, Arabiar Emirerri Batuak jada ez dira jurisdikzio fiskal nominal edo deuseza, eta 2024ko urtarrilaren 19an, COCGk jurisdikzio hori 2.2 irizpidearen irismenetik kendu zuen, eta orain 2.1 irizpidearen arabera gainbegiratzen da.

Errepublika eta Turk eta Caico uharteak).

⁴⁸ Bahrain, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak eta Kaiman uharteak.

⁴⁹ Aingira, Bahamak, Barbados eta Turk eta Caico uharteak.

⁵⁰ Aingira, Bahamak, Turkak eta Caicoak, baita Birjina Uharte Britainiarrak ere.

Inbertsio Kolektiboko Funtsetarako (CIV) Substantzia Ekonomikoen Eskakizunen Jarraipen Prozesua 2.2 irizpidearen arabera

2018ko maiatzean, Taldeak inbertsio kolektiboko funtsetarako (CIV) substantzia-betekizunei buruzko orientazio tekniko bat adostu zuen. Orientazio horrek CIVentzako tratamendu bereizgarri bat ezartzen du, substantzia ekonomikoaren betekizunei dagokienez, 2.2 irizpideari buruzko irismen-dokumentuan.

2018ko irailean, Taldeak EBko zerrenda-prozesuaren irismenean aurkitu zuen lau jurisdikziok (Bahamak, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak eta Kaiman uharteak) funtsen sektore «garrantzitsua» zutela. Ondoren, Taldeak jurisdikzio horiei eskatu zien beren funtsen esparrua aldatzeko, orientazio teknikoarekin bat etorri⁵¹ Taldeak onetsitako erreformak 2020an jarri ziren indarrean jurisdikzio horietan, hau da, substantzia ekonomikoaren beste betekizun batzuk (substantzia orokorraren betekizunak) baino urtebete geroago.

2022ko maiatzean, Taldeak urteko jarraipen espezifiko bat hasi zuen, ukitutako lau jurisdikzioek CIVen esparru hobetua inplementatzearen inguruan; galdetegi espezifiko bat hartu zuen oinarri. CIVak FHTP arauaren aplikazio-eremutik kanpo daudenez, jarraipen hori Taldearen ardura izango litzateke oso-osorik, Batzordearen laguntza teknikoarekin.

CIVak monitorizatzeko lehen aldi garrantzitsurako, hots, 2020., 2021. eta 2022. urteetarako, Taldeak inplikaturako jurisdikzio guztiek egindako funtsezko ahaleginak aitortu zituen. Gomendioak lau jurisdikziotatik hiruri zuzendu zitzaizkien.

Gainera, 2023ko abuztuan, Taldeak galdetegi eguneratu bat adostu zuen jarraipenaren bigarren urterako (2023). Ondorioak 2023ko azaroaren 22ko bileran eztabaidatu ziren, ukitutako jurisdikzioei gomendio eguneratuak emateari begira.

Elkarteentzako substantzia ekonomikoaren betekizunak monitorizatzeko prozesua, 2.2 irizpidearen arabera

2020ko maiatzean, 2.2 jurisdikzioek gai ekonomikoei buruzko legerian sozietateak nola tratatzen dituzten ebaluatu zuen Taldeak. Emaitzek egiaztatu zutenenez, bost 2.2 jurisdikziok baino ez zituzten garrantzitsuak ziren elkarte guztiak barne hartzen gai ekonomikoei buruzko legeriaren irismenean⁵². Hori hala ez zen 2.2 jurisdikzioen kasuan⁵³, gai ekonomikoei buruzko legeriaren irismena 2021eko ekaina baino lehen zabaltu zezatela eskatu zien Taldeak, 2021eko uztailaren 1etik aurrera indarrean jartzeko.

2023ko maiatzean, Taldeak urteko jarraipen-prozesu bat adostu zuen elkarteentzat substantzia ekonomikoaren betekizuna denboran zehar behar bezala aplikatzen dela bermatzeko. Lehen urtean (2023), 2.2. jurisdikzioen 2021eko uztailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arteko informazioaren/datuen eta hartutako betetze-neurrien jarraipena egin zen.

FHTPko idazkaritzarekin koordinatu ondoren, eta kasuan kasuko jurisdikzioetarako prozesua errazte aldera, elkarteei zuzendutako galdetegi bat banatzea erabaki zen, enpresentzako substantzia ekonomikoaren betekizunak ezartzeari buruzko galdetegiaren eranskin gisa, bai eta denbora-ildo berari jarraitzea ere.

Jarraipenaren lehen urteko emaitzek agerian utzi zuten jurisdikzio gehienak oraindik ez zeudela elkarteei substantzia ekonomikoaren betekizunak aplikatzeari buruzko datu zehatzak emateko moduan.

⁵¹ Bahamak, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak eta Kaiman uharteak.

⁵² Bahamak, Bahrein, Marshall Uharteetako Errepublikak, Turk eta Caico uharteak eta Arabiar Emirerri Batuak.

⁵³ Aingira, Barbados, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak, Kaiman uharteak, Guernesey, Man uhartea eta Jersey.

Otsailaren 7ko bileran, COCGk erabaki zuen gabeziak dituzten gomendio leunei soilik heltzea⁵⁴. Jarraipenaren bigarren urtean, espero da estatu kideek hobeto ulertu eta ebaluatuko dutela arlo horretako betekizunen aplikazioa.

3.2 irizpidea implementatzea

2019an, Taldeak herrialdez herrialdeko txostenei (CbCR ingelesez) buruzko 3.2 irizpidearen betetze-maila ebaluatzeko ikuspegi orokor bat adostu zuen, bereziki CbCRari buruzko gutxieneko estandarra hartu zuten lehenengoentzat, hau da, 2017ko amaiera baino lehen Esparru Inklusiboarekin bat egin zuten jurisdikzioentzat.

2021eko urrian eta azaroan, Jokabide Kodea taldeak 3.2 irizpidea betetzeko garrantzitsuak diren jurisdikzioen ebaluazioa eztabaidatu eta erabaki zuen, CbCRari buruzko 2021eko BEPS Esparru Inklusiboaren Binakako Berrikuspen Txostenean oinarrituta. CbCRan identifikatutako gabeziak dituzten hamaika jurisdikziori eskatu zitzaizen hurrengo urterako gabezia horiei aurre egiteko konpromisoak har zitzatela, garaiz CbCRari buruzko 2023ko Esparru Inklusiboaren Binakako Berrikuspen Txostenean islatzeko. Konpromiso horiek 2022ko otsaileko EBko zerrendaren eguneratzean erregistratu ziren.

CbCRari buruzko Esparru Inklusiboaren azken Binakako Berrikuspen Txostena 2022ko urriaren 4an argitaratu ondoren, Jokabide Kodea taldeak, 2022ko urriaren 24ko bileran, erabaki zuen Barbados eta Birjina Uharte Britainiarrak II. eranskinetik kentzea 3.2 irizpiderako, eta 3.2 irizpidearen erreferentzia ezabatzea I. eranskineko Bahamen sarreran, 2023ko otsailean EBko zerrenda eguneratzean.

2023ko irailaren 25ean, esparru inklusiboak CbCRari buruzko 2023ko binakako berrikuspen-txostena argitaratu zuen. 2023ko urriaren 3ko bileran, Jokabide Kodea taldeak esparru inklusiboaren binakako berrikuspenaren emaitzak ebaluatu zituen, 3.2 irizpidearen inguruko konpromisoak bete gabe zituzten gainerako jurisdikzioetarako. 2023an, esparru inklusiboak ez ziren gomendio orokorrik egin Belize, Israel, Montserrat, Panama eta Thailandiari. Jurisdikzio horiek, halaber, beharrezko ziren neurriak hartu zituzten herrialdez herrialdeko txostenak EBko estatu kide guztiekin eraginkortasunez trukatzeko. Ondorioz, Taldeak betetzat jo zituen 3.2 irizpidearen inguruko konpromisoak, eta jurisdikzio horiei buruzko aipamenak zegozkien eranskinetatik kentzea gomendatu zuen, 3.2 irizpideari dagokionez. Trinidad eta Tobagok ez zuen adostutako epean bete CbCRari buruzko konpromisoa. Horrenbestez, taldeak Trinidad eta Tobago I. eranskinean sartzea gomendatu zuen, 3.2 irizpideari erreferentzia egiteko.

2022ko azaroaren 23ko, 2023ko urriaren 3ko eta 2023ko azaroaren 22ko bileretan, Jokabide Kodea taldeak aztertu zuen beste jurisdikzio batzuek CbCR estandarra ezartzea 3.2 irizpidearen irismenaren barruan, 2021ean eskas iritzi ez zirenak, bai eta orain arte 3.2 irizpidea aplikatu ez zaien jurisdikzio garrantzitsuei buruzko egoera ere, BEPSaren esparru inklusiboarekin 2018ko urtarrilaren 1ean edo geroago egin baitzuten bat. Taldeak 3.2 irizpidearen irismena talde horretako jurisdikzio garrantzitsuetara zabaltea erabaki zuen.

2023ko azaroaren 22ko bileran, Taldeak prozesua hastea erabaki zuen eta galderak egin zizkien EBko zerrendaren irismenaren barruan 2018ko urtarrilaren 1etik BEPSaren esparru inklusibora batu ziren jurisdikzioei, salbu eta CbCRari buruzko estandar globala erabat inplementatu dutenei, edo 2023an BEPSaren 13. ekintzaren binakako berrikuspen-prozesuan parte ez hartzea erabaki zutenei, CbCR txostenak aurkezteko atalasearen gainetik talde finkatuko diru-sarrerak dituzten enpresa talde multinazionalerako UPE egoiliarrei buruzko informazioa lortzeko.

2024ko apirilaren 24an, 18 jurisdikzioek emandako erantzunen berri eman zitzaion azpitaldeari, eta 3.2 irizpidearen etorkizuneko aplikazioari buruzko informazio-gutunak jaso zituzten jurisdikzioek. Espero

⁵⁴ Aingira, Bahamak, Barbados, Bermuda, Birjina Uharte Britainiarrak, Kaiman uharteak, Guernesey, Jersey, Man uhartea eta Turk eta Caico uharteak.

da esparru inklusiboak CbCRari buruzko 2024ko binakako berrikuspen-txostenak argitaratuko dituela 2024ko irailaren amaieran. Hori oinarri hartuta, COCGk jurisdikzio garrantzitsuen aurrerapenaren balantzea egingo luke, eta konpromiso-eskaera posiblei buruz erabakiko luke.

Hirugarren herrialdeetako jurisdikzioen aurkako defentsa-neurri fiskalak

Defentsa-neurri fiskalei buruz 2019ko abenduan adostutako Orientazioarekin bat etorritik, Taldeak berriro ekin zion defentsa-neurrii buruzko lanari.

2022ko ekainaren 2ko bileran, Taldeak erabaki zuen lanean jarraitzea defentsa-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko, etapen araberako ikuspegi batean, adostutako Orientazioarekin bat etorritik. Lehen urrats gisa, azterketa bat egin liteke estatu kideek defentsa-neurri fiskalak eraginkortasunez nola aplikatu dituzten aztertzeko. Analisi horren emaitzak oinarri gisa balio lezake eztabaidatu ahal izateko ea etorkizunean neurrien koordinazioa hobetu daitekeen, eta nola.

2022ko irailaren 20ko bileran, Jokabide Kodea taldeak estatu kideek defentsa-neurriak aplikatzeari buruzko galdetegi-proiektua adostu zuen.

2022ko abenduaren 6ko ondorioetan, Kontseiluak adierazi zuen lanean jarraitu behar dela estatu kideen esparru fiskaleko defentsa-neurrien aplikazioa ebaluatzeko, 2019ko Orientazioak aurreikusten duen bezala.

2023ko otsailaren 1ean, Taldeak erabaki zuen estatu kideek egoera eguneratu beharko luketela ondorio fiskaletarako jurisdikzio ez-kooperatiboekiko aplikatzen dituzten defentsa-neurrii dagokienez.

Taldeak, 2023ko otsailaren 1eko eta apirilaren 26ko bileretan, eta azpitaldeak, 2023ko martxoaren 3ko eta 29ko bileretan, Batzordeak egindako proposamen hau aztertu zuten: estatu kideek praktikan eremu fiskalean defentsa-neurriak nola ezartzen dituzten monitorizatzeko prozesu bat ezartzea. Apirileko bileran, Taldeak ondorioztatu zuen lan gehiago behar dela monitorizazioa eraginkorra eta malgua izateko, defentsa-neurrien eraginkortasuna neurtzeko lana barne.

2024ko martxoaren 1ean, apirilaren 24an eta maiatzaren 23an egindako bileretan, azpitaldeak defentsa-neurri fiskalen urteko jarraipenaren ikuspegiari buruzko dokumentu berrikusi bat aztertu zuen. COCGren 2024ko ekainaren 10eko bileran, ikuspuntua eta jarraipen-galdetegia adostu ziren (ikus II. eranskina). Monitorizazioko lehen ariketa 2025ean egingo da, 2021ean monitorizatutako urtearekin alderatuta.

Lurralde-eremua

2019ko martxoan, Ecofin Kontseiluak gogorarazi zuen «EBko hautaketa-jardunaren eremu geografikoa 2018an adostutako beste jurisdikzio batzuetara zabaltzea»,⁵⁵ eta Jokabide Kodea taldeari eskatu zion «2020an jurisdikzioak hautatzeko erabilgaitako datu ekonomikoak berrikusteko, 2021etik aurrera aplikatzeko». Eskaera hori 2020ko otsailean errepikatu zen, «jurisdikzio garrantzitsuenetan arreta jartzeko, 2018an identifikatutako irismen geografiko zabalduaren gainean adostutako lana kontuan hartuta».

Taldeak, 2023ko otsailaren 1eko, apirilaren 26ko, ekainaren 2ko, urriaren 3ko eta azaroaren 22ko bileretan, eta azpitaldeak 2023ko martxoaren 3ko bileran, EBko zerrendaren eremu geografikoa zabaltzeko aukerari buruzko iritzia trukatu zituzten, Batzordeko zerbitzuek egindako proposamen batean oinarrituta. Horrez gain, jurisdikzio hauek EBko zerrendan sartzeko ariketaren eremu geografikoan sartzea erabaki zuten: Brunei Darussalam, Kuwait eta Zeelanda Berria. 2023ko abenduan, presidenteak gutunak

55 14364/21 AE.

bidali zituen jurisdikzioetara, EBko zerrendako irizpideak ezartzeko hautaketa-prozesua hasi zela iragartzeko.

COCGk gogoeta egingo du EBko zerrendaren eremu geografikoa etorkizunean aldatzeko egokienak diren hautaketa-adierazleei buruz.

4. Balio erantsiaren gaineko zerga

4.1. BEZa aro digitalean

2022ko abenduaren 8an, Batzordeak «BEZaren arauak aro digitalean» paketea aurkeztu zuen. Hiru proposamen biltzen ditu:

- Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena, aro digitaleko BEZaren arauari dagokienez⁵⁶.
- Kontseiluaren erregelamendu-proposamena, 904/2010 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, aro digitalean beharrezkoak diren BEZaren arloko administrazio-lankidetzako xedapenei dagokienez⁵⁷.
- Kontseiluaren betearazpen erregelamendu-proposamena, 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamendua aldatzen duena, BEZaren araubide jakin batzuei aplikatu dakizkiekeen jakinarazpen-betekizunei dagokienez⁵⁸.

Paketeak hiru helburu ditu. Lehenik eta behin, BEZaren ondorioetarako jakinarazpen-betebeharrak modernizatzea du helburu, fakturazio elektronikoan oinarritutako jakinarazpen digitalaren betekizunak txertatuz. Bigarrenik, plataformen ekonomiaren erronkei heltzea proposatzen da, BEZaren arloan aplikatu beharreko arauak eguneratuz. Eta, hirugarrenik, administrazio-kargari aurre egin nahi dio, BEZaren ondorioetarako erregistro bakar baterantz aurrera eginez.

Datuak Babesteko Europako ikuskatzaileak 2023ko martxoaren 3an eman zuen neurri sortari buruzko irizpena⁵⁹. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak 2023ko apirilaren 27an eman zuen neurri-paketari buruzko irizpena⁶⁰. Europako Parlamentuak 2023ko azaroaren 22ko osoko bilkuran onetsi zuen bere irizpena⁶¹.

Batzordeak taldearen bilera batean aurkeztu zuen neurri sorta, Txekiar Errepublikaren presidentetzan, eta Suediaren presidentetza pakete hori lantzen hasi zen, baita proposamenen hiru alderdiei buruzko transakzio-testuak ere. Ordezkaritzek babesia eman zieten, lanean jarraitzeko oinarri sendo gisa.

⁵⁶ 15841/22 AE.

⁵⁷ 15842/22 AE.

⁵⁸ 15843/22 AE.

⁵⁹ 7071/23 AE.

⁶⁰ Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena, «BEZa aro digitalean», ECO/606 (<https://webapi2016.eesc.europa.eu/v1/documents/EESC-2022-06315-00-00-AC-TRA-ES.docx/content>).

⁶¹ Europako Parlamentuaren legegintza-ebazpena, 2023ko azaroaren 22koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren zuzentarau-proposamenari buruzkoa, aro digitaleko BEZaren arauari dagokienez (https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2023-0421_ES.pdf); Europako Parlamentuaren legegintza-ebazpena, 2023ko azaroaren 22koa, 904/2010 (EB) Erregelamendua aldatzen duen Kontseiluaren erregelamendu-proposamenari buruzkoa, aro digitalean BEZaren arloan beharrezkoak diren administrazio-lankidetzarako xedapenei dagokienez (https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2023-0422_ES.pdf).

Txosten horri buruzko etorkizuneko lanak bideratzeko, 2023ko ekainaren 16an, Kontseiluak proposamenari buruzko orientazio-etzabaida bat izan zuen, Goi Mailako Taldeak 2023ko ekainaren 1ean prestatua. Eztabaidan, ministroek, oro har, ontzat hartu zituzten Batzordearen proposamenen ildo nagusiak eta Suediaren presidentetzan egindako aurrerapenak. Ministroetako askok malgutasuna eskatu zuten jakinarazpen digitalen esparru nazionaleri eta plataformei BEZaren bilketan paper garrantzitsuagoa emateko konponbideari dagokienez.

Espainiaren presidentetzak eta Belgikaren presidentetzak lanean jarraitu zuten, Kontseiluaren orientabideetatik abiatuta:

a) Jakinarazpen digitalen eta fakturazio elektronikoaren betekizunen harira, Batzordearen proposamena estatu mailako esparru batekin osatu zen, faktura elektronikoetan sartutako datuen kalitatea bermatzen duena, esparru hori abian jartzeko malgutasunez. Estatu kideei ere eskaini zitzaizen bezeroak datuen jakinarazpenetik salbuesteko aukera. Fakturazio elektronikoaren sistema eta EB barruko jakinarazpen digitaleko baldintzak aplikatzeko epea bi urte eta erdiz atzeratu zen (2030eko uztaila), informatikan inbertsio handiak egin behar direlako. Fakturazio elektronikoari eta estatu mailako jakinarazpenari buruzko xedapenak betetzeko epe gehigarri bat eman zitzaizen eragiketetan oinarritutako informazioa komunikatzeko estatu mailako betebeharra duten estatu kideei.

b) Plataformen ekonomiari buruzko xedapenei dagokienez, egokitu egin zen ostatuen iraupen laburreko alokairuaren definizioa, estatu kideek estatuko legeriaren bidez heldu ahal izan diezaieten ostatu-sektorearen zerga-arloko berezitasun nazionaleri; izan ere, estatu kide guztiek ez dute distorsiorik plataformen eta hotel-sektorearen arteko lehian. Alde horretatik, estatu kideek enpresa txiki eta ertainei (ETEak) hornitzailetzat hartzen den subjektu pasiboaren araubidea aplikatzea galarazteko aukera jaso zen.

c) BEZaren ondorioetarako erregistro bakarraren ildotik, Kontseiluak ez zituen onartu Batzordeak proposatu zituen elementu berri guztiak. Hornitzailetzat jotzen den subjektu pasiboaren araubideari buruzko xedapena plataformen bidez hornitutako ondasun propio guztietara eta ondasun propioen transferentziara zabaltzeak (horren arabera, transakzioak errazten dituzten plataformak arduratzen dira BEZa biltzeaz, azpiko hornitzaileen ordezt) ez zuen babesik jaso, eta ordezkariak ez zeuden ados artelanei eta zaharkinei aplikatu beharreko irabazi-marjinaren araubidean izandako aldaketekin. Gainera, batez ere aurreikusitako betearazpen-arazoengatik, ordezkariak ez zeuden ados inportazio-leihatila bakarraren nahitaezkotasuna ezartzearekin. Gaur egun Kontseiluan eztabaidatzen ari den Batasunaren Aduana Kodearen erreformaren barnean, BEZarekin lotutako alderdien esparruan, inportazio-leihatila bakarraren erabilera sustatzeko beste irtenbide bat aurreikusi beharko da.

Belgikaren presidentetzan, Gai Fiskalak taldearen bost bilera egin ziren, eta Goi Mailako Taldearen bilera bat, Ecofin Kontseiluaren 2024ko maiatzaren 14ko bilkura prestatzeko. Bilera horretan, Estoniako ordezkariak ezin izan zituen onartu onesteko aurkeztu ziren Presidentetzaren transakzio-testuak. Eragozpenak agertu zituen plataforma-ekonomiari buruz proposamenak jasotzen zituen zatien inguruan.

Eta Ecofin Kontseiluaren ekainaren 21eko bilkuran, Kontseiluak iritzi-trukea izan zuen «BEZa aro digitalean» neurri sortari buruz —horren helburua BEZaren iruzurraren aurka borrokatzea, enpresei laguntzea eta digitalizazioa sustatzea da—, baina ez zen akordio batera iritsi.

5. Zerga bereziak

5.1. Energiaren fiskalitateari buruzko zuzentaraua berrikustea

2021eko uztailaren 14an, Batzordeak Kontseiluaren zuzentarau-proposamen bat aurkeztu zuen, produktu energetikoak eta elektrizitatea zergapetzeko Batasunaren araubidea berregituratzen duena (bat-egitea)⁶² (aurrerantzean, «DFE proposamena»).

DFE proposamena «55. helburua»⁶³ neurri sortaren parte da. Neurri horien helburua EBren asmo handiko helburuak bete ahal izatea da: 2030erako emisioak gutxienez % 55 murriztea, 1990eko mailekin alderatuta, eta beranduenez 2050erako, klima-neutraltasuna lortzea. Sortan elkarrekin lotutako proposamen multzo bat dago, guztiak helburu berera bideratuak: hemendik 2030era eta harago trantsizio bidezkoa, lehiakorra eta ekologikoa bermatzea.

DFE proposamenak helburu hauek ditu:

- 2030erako EBren helburuak lortzen eta hemendik 2050erako klima-neutraltasuna lortzen lagunduko duen esparru egokitu bat eskaintzea, Europako Itun Berdearen testuinguruan; horretarako, beharrezkoa da produktu energetikoen eta elektrizitatearen ezarpena EBk energiaren, ingurumenaren eta klimaren arloan dituen politikekin harmonizatzea, eta, horrela, EBk emisioak murrizteko egiten dituen ahaleginak laguntzea;
- EBko barne-merkatua zaindu eta hobetuko duen esparru bat eskaintzea, produktu energetikoen aplikazio-eremua eta zerga-tasen egitura eguneratuz, eta estatu kideek salbuespen eta murrizketa fiskalen erabilera arrazionalizatuz; eta
- estatu kideen aurrekontuetarako diru-sarrerak sortzeko gaitasunari eustea.

2022ko ekainaren 17an, Kontseiluak (Ecofin) kontuan hartu zuen Presidentetzaren egoerari buruzko txostena, energiaren fiskalitateari buruzko zuzentarau-proposamenari buruzkoa⁶⁴. 2022ko abenduaren 6an, Kontseiluak (Ecofin) proposamenari buruzko orientazio-eztabaida⁶⁵ bat izan zuen, eta aurrera egiteko moduari buruzko orientazio politikoa eman zuen. Oro har, ministroek Presidentetzaren planteamendu malguenaren alde egin zuten, eta ebazteke zeuden kontuei konponbideak aurkitzeko eskatu zuten. Orientazio politikoak kontuan edukita, azterketa teknikoarekin jarraitu da.

Aurreko presidentetzek egindako aurrerapenetatik abiatuta, Belgikaren presidentetzak energiaren fiskalitateari buruzko zuzentaraua berrikusteko lanekin jarraitu zuen. Espedientea Gai Fiskalak taldean aztertu zen otsailaren 29an, martxoaren 13an eta apirilaren 25ean. Gainera, martxoaren 26an Goi Mailako Taldean iritzi-truke bat izan zen. Presidentetzak hiru aldiz prestatu zituen transakzio-testu osoak, eta transakzio-testu partzialak ere aurkeztu zituen, artikulua jakin batzuen idazkera alternatibo posibleekin.

Landu gabe zeuden gaiak aztertu ziren, batez ere honako alderdi hauek kontuan izanda: abiazioaren sektorean eta itsas sektorean erabiltzen diren produktu energetikoen eta elektrizitatearen zerga, gutxieneko zerga-mailen indexazioa, eta energiaren eta biomasaren prezioen ezohiko igoerak gertatzen direnerako larrialdiko balazta. Ordezkaritzek zenbait gai berri mahaigaineratu zituzten, hala nola produktu mistoen zerga, propulsaile gisa erabiltzen diren produktu energetikoen erabilera komertzialaren eta ez-komertzialaren arteko bereizketa eta hondakinen zerga. Ordezkaritzek eskatuta, aldi iragankorrak zabaltea eta estatu kideek sektore eta zerbitzu jakin batzuei salbuespen osoak edo partzialak emateko

⁶² 10872/21 AE.

⁶³ 10849/21 AE.

⁶⁴ 9874/22 AE.

⁶⁵ 14736/22 AE.

aukera jaso zuen Presidentetzaren transakzio-testuak. Azken transakzio-testuarekin, Presidentetzak iritzi zion ahal zuen guztia egin zuela ikuspuntu dibergenteen artean oreka fina aurkitzeko eta oraindik ere bazeuden kezkei heltzeko. Ordezkaritza batzuek eskatuta aldaketa gehiago egingo balira, beste ordezkaritza batzuek babes txikiagoa emango zuketean.

Horrenbestez, Presidentetzak transakzio-testua multzo gisa aztertzeraz eta malgutasunez jokatzera gonbidatu zituen ordezkaritzak. Ordezkaritzek transakzio-testua onartzen bazuten, Presidentetzak bilera gehigarriak programatzea proposatu zuen testua orrazteko, maila politikora helarazi aurretik. Hala eta guztiz ere, Gai Fiskalak taldearen apirilko bileran izandako eztabaidetan oinarrituta, Presidentetzak jakin zuen desadostasun handiak zeudela ordezkaritzen artean, eta ez zeudela Presidentetzaren transakzio-testuaren alde.

Presidentetzak aurrerapen garrantzitsuak lortu zituen, baina beharrezkoa da lanean jarraitzea ordezkaritza guztiek onar dezaketean transakzio-testua lortzeko.

6. Administrazio-lankidetzaz

6.1. Zerga-ondorioetarako informazio egokia automatikoki trukatzeko EBtik kanpoko herrialde eta lurraldeekin

Belgikaren presidentetzak aurrera eraman zituen datu pertsonalak babesteko arauak (bereziki, DBEO) EBkoak ez diren herrialde eta lurraldeekiko informazio-truke automatikoari aplikatzeko lanak. Lan horiek aurreko presidentetzetan gai horiei buruz izandako eztabaidetan oinarritu ziren⁶⁶.

Gai horiek estatu kideen eskumenekoak badira ere, fase horretan baliagarritzat jotzen da arlo horretan modu koordinatuan lan egiten jarraitzea. Beraz, gai horiek aldizka Gai Fiskalak taldean aztertuko direla aurreikusen da, beharrezkoa denaren arabera.

6.2. EBren akordioak Andorra, Liechtenstein, Monako, San Marino eta Suitzarekin

2023an, 2024ko urtarrilaren 17an, «Gai Fiskalak» (Goi Maila) taldean izandako eztabaiden ondoren⁶⁷, Batzordeak Kontseiluaren erabaki-gomendio bat aurkeztu zion Kontseiluari. Gomendio horren bidez, baimena eman zitzaion Batzordeari finantza-kontuei buruzko informazio-truke automatikoaren inguruko bost akordioak aldatzeko negoziazioak hasteko, Europar Batasunaren, eta, hurrenez hurren, Suitzako Konfederazioaren, Liechtensteingo Printzerriaren, Andorrako Printzerriaren, Monakoko Printzerriaren eta San Marinoko Errepublikaren arteko nazioarteko zerga-betetzea hobetzeko⁶⁸.

Bost akordio horiek aldatzeko aurreikusitako negoziazioek honako helburu hauek dituzte:

a) 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, EBko estatu kideen eta EBkoak ez diren bost herrialdeen arteko finantza-kontuei buruzko informazio-truke automatikoa, EBko bost akordioen esparruan, ELGAK egindako Informazioa Komunikatzeko Estandar Komun Eguneratura (ECCI) egokitzen zaiola eta estandar horren arabera garatzen jarraitzen duela bermatzea; ECCI eguneratuaren aplikazioa 2023/2226 Zuzentarauan (DCA 8) sartu da EBn.

⁶⁶ Ikus 10710/23 AE, 31. eta 32. puntuak, 15506/22 AE, 46.-48. puntuak, 9970/21 AE, 81. eta 82. puntuak, eta 14651/21 AE, 50.-59. puntuak.

⁶⁷ 16411/23 AE, 17.-18. or.

⁶⁸ 5598/24 AE + ADD 1.

b) 95/46/EE Zuzentarauari buruzko erreferentzia juridikoak eguneratzea 2016/679 (EB) Erregelamenduari (DBEO) erreferentzia eginez, hala dagokionean.

«Gai Fiskalak» (Goi Maila) taldearen 2024ko otsailaren 7ko bileraren eta «Gai Fiskalak» (zuzeneko fiskalitatea) taldearen 2024ko martxoaren 7ko bileraren ostean, eta ondorengo kontsulten ostean, ordezkari guztiek Kontseiluaren erabaki-proiektuaren transakzio-testua eta negoziazio-gidalerroen transakzio-testua babestu ahal izan zituzten. Kontseiluan izandako eztabaiden ondorioz, Kontseiluaren erabakia eta negoziazio-gidalerroak aldatu egin ziren Batzordearen gomendioarekiko. Lehenik eta behin, Kontseiluaren erabakian argi eta garbi ezartzen dira honako elementu hauek: 1) oinarri juridiko substantiboa gehitu da (EBFTren 115. artikulua), EBko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeko; 2) negoziazio-gidalerroak negoziazioen bilakaeraren arabera berrikusiko dira eta garatzen jarraituko dira, dagokionaren arabera; 3) negoziazioak Kontseiluaren Gai Fiskalak taldearekin kontsulta zorrotzak eginez burutuko dira, eta taldea lantalde berezi izendatuko da, EBFTren 218. artikuluen 4. apartatuaren zentzuan; 4) Batzordeak aldian behin emango dio informazioa eta aldian behin egingo dio kontsulta lantalde bereziari; betiere Kontseiluak hala eskatzen badu, Batzordeak negoziazioen garapenari eta emaitzari buruzko informazioa emango dio, baita idatziz ere. Bigarrenik, negoziazio-gidalerroetan Suitzarekin egindako akordioaren aldaketa aipatzen da, zuzeneko eta zeharkako zergen bilketan laguntzearen harira.

2024ko maiatzaren 21ean, Kontseiluak Kontseiluaren erabakia onartu zuen, alegia, Europar Batasunaren eta Suitzako Konfederazioaren, Liechtensteingo Printzerriaren, Andorrako Printzerriaren, Monakoko Printzerriaren eta San Marinoko Errepublikaren artean, hurrenez hurren, nazioarteko zerga-betetzea hobetzeko finantza-kontuei buruzko informazio-truke automatikoaren inguruko akordioak aldatzeko negoziazioei hasiera ematea baimentzen duena⁶⁹, eta negoziazio-gidalerroei buruzko akordio bat lortu zuen⁷⁰.

6.3. Europar Batasunaren eta Norvegiako Erresumaren arteko akordioa, administrazio-lankidetzari, iruzurraren aurkako borrokari eta BEZaren eremuan kredituak kobratzeari buruzkoa

2023ko urrian, Batzordeak Norvegiako agintariekin administrazio-lankidetzari, iruzurraren aurkako borrokari eta BEZaren eremuan kredituak kobratzeari buruzko akordioa aldatzeko abian dauden negoziazioen berri eman zien ordezkariari, eta akordioa aldatzeko proiektuekin duten harremanari buruz galdu zuten.

Ordezkaritzen gehiengo zabal batek aldaketa-proiektuak onar zitzakeenez, Presidentetzak ondorioztatu zuen hurrengo pausoa Batzordeak akordioa sinatzeko eta egiteko proposamenak aurkeztu arte itxarotzea zela, EBFTren 218. artikuluari jarraikiz.

2023ko azaroaren 24an, Batzordeak proposamenak aurkeztu zituen. Ordezkaritzek idatzizko kontsultaren bidez eragozpenik jarri ez zutenek, Kontseiluak otsailaren 20an hartu zuen akordioa sinatzeari buruzko erabakia, eta 2024ko otsailaren 28an argitaratu zen aldizkari ofizialean.

2024ko apirilaren 10ean, Europako Parlamentuak akordioa egiteari buruzko irizpena eman, eta Kontseiluak akordioa egiteko bidea erraztu zuen.

⁶⁹ 9543/24 AE, 9245/24 AE.

⁷⁰ 9245/24 AE + ADD 1.

6.4. Fiskalis programa, fiskalitatearen arloko lankidetzarako

Fiskalis programaren helburua da zerga-agintariei barne-merkatuaren funtzionamendua hobetzen laguntzea, lehiakortasuna sustatzea, iruzur fiskalaren, ihes fiskalaren eta saiheste fiskalaren aurka borrokatzea eta zerga-bilketa hobetzea. 2024ko ekainean, Batzordeak Fiskalis programaren 2023ko egoerari buruzko urteko txostenaren berri eman zion Goi Mailako Taldeari⁷¹.

7. Politika fiskalen koordinazioa (legegintzakoak ez diren jarduerak)

Jarraian adierazten den bezala, lan garrantzitsua egin da politika fiskalen koordinazioaren arloan (zerga-arloko EBko legeriaren aplikazio-eremutik kanpo).

7.1. Nazio Batuen Ebazpena, tributazio-gaietan nazioarteko lankidetzaren inklusioa eta eraginkorra Nazio Batuetan sustatzeari buruzkoa

2022ko abenduaren 30ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak ebazpen formal bat onetsi zuen tributazio-gaietan nazioarteko lankidetzaren inklusioa eta eraginkorra sustatzeari buruz (77/244 Ebazpena). Ebazpenean, Nazio Batuetako kideek Nazio Batuetako idazkari nagusiari eskatu zioten txosten bat prestatzeko (Batzar Nagusiak 2023ko iraileko 78. bilkuraldian eztabaidatu zuen). Txosten horretan, beharrezko ziren nazioarteko tresna juridiko guztiak, eta tributazio-arloko nazioarteko lankidetzari buruzko beste dokumentu eta gomendio batzuk aztertuko ziren, dauden nazioarteko eta alde anitzeko mekanismoak erabat kontuan hartuta. Horretarako, 2023ko otsailean, idazkari nagusiak kontsulta publiko bat jarri zuen abian.

2023ko martxoaren 8an, kontseilari/agregatu fiskalek EBren ekarpen baten aurkezpena babestu zuten. Babes horren ondorioz, 2023ko martxoaren 15ean, Goi Mailako Taldeak isilbidezko prozedura informalararen bidezko ekarpen-proiektu bat banatu eta onartu zuen. Ondoren, Goi Mailako Taldearen Presidentetzak sinatu zuen ekarpena, eta EBko eta Suediako ordezkariak batera aurkeztu zioten Nazio Batuen Idazkaritzari⁷².

2023ko apirilaren 25ean Goi Mailako Taldeak izandako eztabaidan, ordezkariak adierazi zuten babesa ematen zutela estatu kideek nazioarteko lankidetzaren fiskalari buruzko posizioak koordinatzeko, beharrezkoa denean, posizio horiek Nazio Batuen foroetara bidal daitezkeen, eta, aldi berean, lana ez bikoizteko. Goi-mailako taldeak gertakarien zain jarraituko du.

Nazio Batuetako idazkari nagusiaren txostena, tributazio-gaietan nazioarteko lankidetzaren inklusioa eta eraginkorra sustatzeari buruzkoa, 2023ko abuztuaren 8an argitaratu zen⁷³. Bertan, nazioarteko lankidetzaren fiskalaren arloan dauden nazioarteko mekanismoak aztertzen dira, bai eta lankidetzaren hori indartzeko hainbat aukera ere, inklusioari arreta berezia eskainiz.

2023ko irailaren 15eko bileran, kontseilari/agregatu fiskalek EBren eta estatu kideen izenean Nazio Batuetako lankidetzaren fiskalari buruzko posizio-proiektu bat aztertu zuten, eta txostenaren ondorioak jasotzen zituen horrek. Posizioa 2023ko irailaren 28an onartu zuen Kontseiluak⁷⁴.

⁷¹ 9294/24 AE.

⁷² 7564/23 AE.

⁷³ <https://financing.desa.un.org/es/node/3962>

⁷⁴ 12967/23 AE.

2023ko azaroaren 22an, Nazio Batuen Bigarren Batzordeak, botoen gehiengoz, Afrikako Taldearen eba-
zpen-proiektu berrikusia onartu zuen, «Nazio Batuetan tributazio-gaietan nazioarteko lankidetzaren inklu-
siboa eta eraginkorra sustatzea» izeneko (A/C.2/78/L.18/Rev.1). Ebazpenak Nazio Batuetako idazkari
nagusiaren txostenaren bigarren aukeraren alde egin zuen, eta, besteak beste, gobernuarteko ba-
tzorde berezi bat sortzea erabaki zuen, osaera irekikoa, estatu kideek zuzendua eta Nazio Batuen tributa-
zio-gaietako nazioarteko lankidetzari buruzko esparru-hitzarmen baterako erreferentzia-terminoak idaz-
teaz arduratuko zena.

Gai Fiskalak taldearen 2024ko urtarrilaren 26ko bileran, ordezkartzek lehen iritzi-trukea izan zuten EBk
eta estatu kideek [...] Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 78/230 Ebazpenaren bidez hasitako lanetan duten
zereginari buruz («Nazio Batuetan tributazio-gaietan nazioarteko lankidetzaren inklusiboa eta eraginkorra
sustatzea»).

Otsailaren 7ko bileran, Belgikaren presidentetzak Nazio Batuetako lanaren egoerari buruzko informazioa
eman zion Goi Mailako Taldeari, eta ordezkartzek jarrera bateratua (Batasunarena eta estatu kideena)
eztabaidatu zuten, komite bereziaren etorkizuneko lanari begira. Bilera horretan, ordezkartzek hiru
mezu bateratu adostu zituzten, lehen antolaketa-saioan (New Yorken, otsailaren 20tik 22ra) partaidetza
eraikitzailea izateko printzipio gidari nagusi gisa.

Bilkura horren eta komite bereziko presidentek, beranduenez martxoaren 15ean, aginte-proiektuari
buruzko ekarpenak idatziz aurkezteko egindako eskaeraren ondorioz, Presidentetzak agregatu fiska-
len bilera bat antolatu zuen martxoaren 11n, hurrengo negoziazioak aurreikusteko estrategia bat ezta-
baidatu eta ezartzeko. Ordezkartzek bidalitako ekarpenak oinarri hartuta, Presidentetzak sarrerako tes-
tu-proiektu bat egin zuen. Bertan, Nazio Batuen Idazkaritzari aurkeztuko zaizkion ekarpenak orientatzeko
printzipioak eta tresnak biltzen dira. Ondoren, estatu kide batzuek sarrerako testu hori idatzizko ekarpe-
netan erabili zuten, eta beste estatu kide batzuek funtsezko gaiei buruzko proposamenak aurkeztu zi-
tuzten, aginte-proiektuan sar zitezten.

Goi Mailako Taldearen 2024ko martxoaren 26ko bileran, ordezkartzek jarrera bateratuari (EBrena eta es-
tatu kideena) buruzko eztabaidak egiten jarraitzeko eskatu zieten agregatu fiskalei, komite bereziaren le-
hen bilkuraldia baino lehen (New Yorken, 2024ko apirilaren 26tik maiatzaren 8ra).

2024ko apirilaren 12an, agregatu fiskalek Europar Batasunaren eta estatu kideen izenean posizio-proie-
ktu bat aztertu zuten, komite bereziaren lehen bilkuraldirako baliozkoa (New York, 2024ko apirilaren
26tik maiatzaren 8ra), Presidentetzaren proposamen batean oinarrituta.

2024ko apirilaren 25ean, Kontseiluak Europar Batasunaren eta estatu kideen izenean hartu zuen posi-
zioa, komite bereziaren lehen bilkuraldirako baliozkoa⁷⁵.

Adostutako posizioa Europar Batasunaren Ordezkartzak aurkeztu zuen Nazio Batuen aurrean, EBren
eta estatu kideen izenean, eta Belgikak, Europar Batasuneko estatu kideen izenean, Kontseiluaren Pre-
sidentetza duen estatu kide gisa, 2024ko apirilaren 26an, komite bereziaren lehen bilkuraldia irekitzeko
saioan. Bilkuran parte hartu zuten beste estatu kide batzuek posizio bateratua babestu eta osatu zuten.
Bileran, Belgikaren presidentetzak, EBko Ordezkartzak eta Batzordeko zerbitzuek lankidetzaren estua izan
zuten informazioa trukatzeko eta koordinatzeko bilerak aldian-aldian egiteko EBn. Ordezkartzek hiri-
buruetatik bertutalki parte hartzea eta kontseilari/agregatu fiskalek Bruselan parte hartzea baimendu zen.
Bilera horiek Europa mendebaldeko estatuen taldearen eta beste estatu batzuen bilerekin txandakatu
ziren. Bilera horien ondoren, EBko estatu kide guztiek azken eztabaiden berri izan zuten. Hirugarren he-
rialdeei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak ere egin ziren, eta bilerak egin ziren bazkide garrantzit-
suekin, hala nola gizarte zibileko erakundeekin, in situ eztabaidatu zen bezala.

⁷⁵ 9129/24 AE, REV 1.

2024ko ekainaren 11n, Goi Mailako Taldeari komite bereziaren emaitzaren eta Nazio Batuetako negoziatioetan aurrera egiteko bidearen berri eman zitzaion.

Ekainaren 21eko Ecofin Kontseiluan, Presidentetzak ministroei jakinarazi zien Nazio Batuen tributazio-gaietako nazioarteko lankidetzari buruzko esparru-hitzarmen baterako erreferentzia-terminoak idazteaz arduratzen den komite berezian egindako lana.

7.2. Errusiak Ukrainari egindako eraso

Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren testuinguruan, zeinean Bielorrusiak parte hartu duen, Kontseiluko Gai Fiskalak taldeak zenbait neurri aztertu zituen, estatu kideek har zitzaten EBren neurri murriztaileak aplikatzen laguntzeko (Errusiarekin eta Bielorrusiarekin lotuta) eta lankidetzaren fiskaleko tresnen bidez horiek saihestea eragozteko.

Lehenik eta behin, estatu kideek erabaki zuten helburu fiskalak zituen informazio-truke oro etetea Errusiako Federazioarekin eta Bielorrusiarekin. Bigarrenik, EBko estatu kideek neurri batzuk aztertu zituzten administrazio-lankidetzaren eta zerga-arloko beste tresna batzuen erabilera areagotzeko, neurri murriztaileak aplikatzeko testuinguruan.

Ildo horretan, Gai Fiskalak taldeak egoeraren bilakaera aztertzen jarraituko du neurri horiei dagokionez, baita Batzordeak 2022ko ekainaren 3an sortu zuen aldi baterako plataforman egiten ari diren lanei dagokionez ere. Plataforma horrek «Ibilgetzea eta Konfiskazioa» izeneko lantaldearen azpialde baten forma hartu du, betearazpen fiskalari buruzkoa.

Goi Mailako Taldearen 2024ko ekainaren 11ko bileran, Batzordeak azpialde horren lanari buruz emandako informazioa jaso zuten ordezkariak.

7.3. Nazioarteko egoeraren bilakaera

Politika fiskalaren arloan interesgarriak diren nazioarteko berrikuntzen berri eman zitzaion Goi Mailako Taldeari aldizka. Bereziki, ELGaren BEPSaren eta G20ren Esparru Inklusiboaren egoerari eta egiten ari diren lanei buruzko informazioa eman zitzaion ordezkariak aldizka, bai eta Ekonomia eta Ogasuneko ministroek eta banku zentraletako gobernadoreek G20aren bileretan aztertutako politika fiskalaren alderdiei buruzkoa ere. Orobat, Nazioarteko Tributazioari buruzko Sinposioan eztabaidatutako gaien berri eman zitzaion ordezkariak. Sinposioa 2024ko maiatzaren 21etik 23ra izan zen, Brasilian.

Estatu Batuetako Atzerriko Kontuen Zergak Betetzeari buruzko Legearekin (FATCA) lotutako gaiak ordezkariak jakinarazi izan zaizkie aldizka, Goi Mailako Taldearen bileretan. «Estatubatuar akzidentalak» deiturikoen gaiari dagokionez, Estatu Batuetako Zerga Administrazioak (IRS) iragarki bat argitaratu zuen 2022. urtearen amaieran, zeinaren bitartez IFZarik ez izateagatik entitate bat ezgai irizteko arauak aldi baterako leundu baitziren 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietarako. 2023ko urtarrilean, aldaketa horren berri eman zitzaion Goi Mailako Taldeari. 2023ko apirilean, Goi Mailako Taldeko kideek azpimarratu zuten beharrezkoa zela konponbide iraunkor eta orokorragoa ematea, EBko finantza-erakundeei IFZarik ez izateagatik ezgai ez irizteko, finantza-erakundeei IFZarik lortu ezin dutenean. 2023ko uztailean, Goi Mailako Taldean, ordezkariak Estatu Batuetara gutun bat bidaltzea iradoki zuten, irtenbide iraunkorragoa eta irismen handiagokoa ahalik eta lasterren eskaintzeko eskatuz. Beraz, 2023ko irailean, gutun bat bidali zitzaion Estatu Batuei Goi Mailako Taldearen izenean. 2024ko martxoan, FATCArekin lotutako azken aurreapenen berri eman zitzaion Goi Mailako Taldeari. 2024ko azaroan, Belgikaren presidentetzak eta Estatu Batuetako Finantza Agintek 2024ko maiatzaren 22an izandako bilera konstruktiboaren berri eman zitzaion Goi Mailako Taldeari.

7.4. Fiskalitatea fiskalitetik kanpoko eremuetan

2013ko azaroaren 19an, Goi Mailako Taldeak erabaki zuen «alerta informaleko mekanismo» baten esparruan tratatuko zirela zerga-arlokoak ez diren espedienteen xedapen fiskalak, baldin eta estatu kideek zergen arloan dituzten legerian edo administrazio-jardueretan aldaketak eragiten badituzte edo fiskalitatean bestelako ondorioak badituzte. Zerga-adituei kasu horien berri emateko irizpide sistematikoak, Idazkaritza Nagusiaren babesarekin, aukera eman die estatu kideei gai horien berri behar bezala izaten jarraitzeko, eta EBren eta hirugarren herrialdeen arteko akordioei buruzko negoziazioen berri izateko. Goi Mailako Taldeak gainbegiratu zituen gaien artean, honako hauek daude: «Emakumeen ahalduntze ekonomikoa eta independentzia finantzarioa, genero-berdintasun eraginkorra lortzeko bide gisa» izeneko Kontseiluaren Ondorioak; «Trantsizio ekologiko bidezko eta inklusiboa sustatzen duen eta munduko konpromisoak betetzea babesten duen EBko diplomazia» izeneko Kontseiluaren Ondorioak; Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren zerga-araubide kaltegarrien aurkako borrokaren inguruko adierazpen politiko bateratuari dagokionez Kontseiluak eta Batzordeak egin dezaketen balizko adierazpen bateratuari buruzko lana, eta kapitalak zurtzearen aurka borrokatzeko neurrien sorta.

8. Arau-hausteetarako prozedurak

8.1. Hitzaurrea

EBren tratatuen arabera, Europako Batzordeak ekintza judizialak has ditzake (arau-hausteetarako prozedurak) Batasuneko zuzenbidea aplikatzen ez duten estatu kideen aurka. Batzordeak EBko Justizia Auzitegiari (aurrerantzean, EBJA) igor diezaioke gaia, zeinak, kasu jakin batzuetan, zehapen ekonomikoak ezartzen baititu.

Arau-haustearen prozeduraren etapak

Batzordeak EBko legeriaren balizko arau-hausteak detektatzen ditu, bere ikerketetan oinarrituta edo herriarren, enpresen eta gainerako alderdi interesdunen salaketetan oinarrituta.

Batzordeak arau-hauste prozedura formal bat has dezake, baldin eta ukitutako estatu kideak ez baditu jakinarazten zer neurri hartu dituen zuzentarauen xedapenen transposizioa osoki egiteko, edo EBko legeriaren ustezko ez-betetzea zuzentzen ez badu. Prozedura EBren Tratatuetan jasotako zenbait etapari jarraituz garatzen da, eta erabaki formala hartzen da haien amaieran:

- Batzordeak epatze-gutun bat bidaltzen dio estatu kideari, informazio gehiago eskatzeko; estatu kideak epe jakin bat du (bi hilabete, oro har) erantzun xehatua bidaltzeko.
- Batzordeak ondorioztatzen badu estatuak ez dituela EBren legediaren araberrako betebeharrak betetzen, baliteke irizpen arrazoitua bidaltzea; hau da, eskaera formal bat, legeria hori bete dezan, eta bertan azalduko du zergatik uste duen Batasunaren zuzenbidea urratzen ari dela. Batzordeak estatu kideari eskatuko dio, halaber, hartutako neurrien berri eman diezaiola, epe jakin batean (bi hilabete, oro har).
- Estatu kideak ez-betetzeari eusten badio, auzia EBJAri igortzeko aukera izango du Batzordeak. Hala ere, gai gehienak puntu horretara iritsi aurretik ebatzen dira.
- Estatu kide batek ez baditu garaiz jakinarazten zuzentzaren baten xedapenak gehitzeko neurriak, Batzordeak zehapenak ezartzeko eska diezaioke EBJAri.
- EBJAk ikusten badu estatu kide batek EBko legeria hautsi duela, agintari nazionalak behartuta daude Auzitegiaren epara egokitzeko neurriak hartzera.
- EBJAren epaia gorabehera, estatu kideak egoera zuzendu gabe jarraitzen badu, Batzordeak gaia Auzitegiari itzuliko dio, eta oroharreko zenbatekoan edo eguneko isunetan oinarritutako zehapen ekonomikoak ezartzea proposatuko du. Zehapenak kalkulatzeko, honako hauek hartzen dira kon-

tuan: urratutako arauen garrantzia eta arau-hausteak interes orokor eta partikularrentzat dituen ondorioak; araua aplikatu ez den aldia; eta estatu kideak zehapenak ordaintzeko duen gaitasuna, horiek disuasio-eragina izango dutela bermatzeko.

EBJAK bere epaian alda dezake Batzordeak proposatutako zenbatekoa.

8.2. Epatze-gutunak

2024ko otsailak 7

BATZORDEAK EBKOAK EZ DIREN HERRIALDEEKIN DITUEN LURREKO MUGETAKO ZERGARIK GABEKO DENDEK ZERGA BEREZIAK ORDAINTEKO SALBUESPENA KENTZECO ESKATU DIO GREZIARI

Europako Batzordeak arau-hauste prozedura bat hastea erabaki du, eta epatze-gutun bat bidali dio Greziari [INFR(2020)2268], zerga berezien araubide orokorrari buruzko EBren arauak⁷⁶ ez betetzeagatik. Greziak zerga berezitik salbuesten ditu Albania, Ipar Mazedonia eta Turkiarekin dituen lurreko mugetan dauden zergarik gabeko dendek emandako produktuak. 2017ko urtarrilera arte, zuzentarauak salbuespen horri heltzeko aukera ematen zien 2008ko uztailaren 1ean aireportu edo portu batetik kanpo zergarik gabeko dendak zituzten estatu kideei. EBko legediak jada baimentzen ez duen arren, Greziak salbuespen horri heltzen jarraitzen du. Beraz, Batzordeak epatze-gutun bat bidali dio Greziari, eta orain bi hilabete ditu erantzun eta Batzordeak adierazitako gabeziak konpontzeko. Erantzun egokirik jaso ezean, Batzordeak irizpen arrazoitua eman dezake.

2024ko maiatzak 23

BATZORDEAK BESTE ESTATU KIDE BATZUEKIN PLATAFORMA DIGITALEN BIDEZ LANKIDETZAN ARITZECO BETEBEHARRA BETE DEZATELA ESKATU DIE ALEMANIA, HUNGARIA, POLONIA ETA ERRUMANIARI, LORTUTAKO DIRU-SARREREN GARDENTASUN FISKALAREN HARIRA

Europako Batzordeak arau-hauste prozedura hastea erabaki du, eta epatze-gutun bat bidali die Alemaniari [INFR(2024)2043], Hungariari [INFR(2024)2045], Poloniarri [INFR(2024)2047] eta Errumaniari [INFR(2024)2048], partikularrek eta enpresek lortutako diru-sarrerei buruzko informazio egokia trukatu ez dutelako online plataformen bitartez. 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak⁷⁷, zeinak aldatu egiten baitu 2011/16/EB Zuzentaraua⁷⁸, zerga-arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa (DCA7), 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, gardentasun fiskaleko arau berriak sartu zituen plataforma digitaletako transakzioetarako. Helburua zerga zein egoeretan ordaindu behar den hobeto zehaztea da. Komunikazioa bi fasetan egin behar zen. Lehenik eta behin, online plataformek partikularrek eta enpresek 2023an lortutako diru-sarrerei buruzko informazioa bildu behar zuten, eta plataformako estatu kideari jakinarazi. Ondoren, estatu kide horrek informazioa trukatu behar zuen, 2024ko otsailaren 29an beranduenez ere. Jakinarazpena eta trukea funtsezkoak dira Batasunean baldintza berdinak daudela eta DCA7 zuzentarauak ondo funtzionatzen duela bermatzeko estatu kide guztietan. Alemaniak, Hungariak, Poloniak eta Errumaniak ez dute bete beste estatu kide batzuetako zerga-administrazioekin beharrezkoa den informazioa trukatzeko betebeharra, eta hori oztupoa da tokiko zerga-legeria betearazteko orduan. Beraz, Batzordeak epatze-gutunak bidali dizkie Alemaniari, Hungariari, Poloniarri eta Errumaniari, eta orain bi hilabete dituzte erantzun eta Batzordeak adierazitako gabeziei heltzeko. Estatu kideen erantzun egokirik jaso ezean, Batzordeak irizpen arrazoitua eman dezake.

⁷⁶ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?qid=1704720530843&uri=CELEX%3A02020L0262-20220426>

⁷⁷ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:32021L0514>

⁷⁸ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX%3A32011L0016>

8.3. Irizpen arrazoituak

2024ko otsailak 7

BATZORDEAK EBko BEZAREN ARLOKO ARUAUAK BETETZEKO ESKATU DIO ALEMANIARI, IRAKASKUNTZA PRIBATUKO ZERBITZUEI DAGOKIENEZ

Europako Batzordeak Alemaniari [INFR(2015)2011] irizpen arrazoitua bidaltzea erabaki du gaur, irakaskuntza pribatuko zerbitzuen BEZaren salbuespenari buruzko EBren arauak behar bezala ez aplikatzea-gatik, BEZari buruzko zuzentarauan ezarrita dagoen bezala⁷⁹, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak argitu du. Zuzentaru horrek eskola- edo unibertsitate-irakaskuntzarekin zerikusia duten klase pribatuak BEZetik salbuesteko eskatzen die estatu kideei. Salbuespen hori behar bezala eta erraz aplikatzen dela bermatzeko eta iruzur, ihes edo abusu fiskalak saihesteko baino ezin izango dituzte estatu kideek baldintza gehigarriak ezarri. Ahalmen diskrezional hori baliatu behar dute, BEZetik salbuesteko eskubidea duen subjektu pasiboak eskubide hori benetan baliatu ahal izan dezan. Alemanian, irakasle pribatuek ziurtagiri bat aurkeztu behar dute BEZaren salbuespena eskatzeko. Ziurtagiria Alemaniako estatu federatuko agintaritzak eskudunak eman behar du, eta egiaztatu behar du irakaskuntza-zerbitzuak lanbide baterako edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko baten aurrean egingo den azterketa baterako prestatzen ari direla. Hori ez dator bat EBko Zuzenbidearekin, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren interpretazioari jarraikiz. Hori dela eta, Alemaniak ez ditu betetzen BEZari buruzko zuzentaruaren arabera dagozkion betebeharrak. Horrenbestez, Batzordeak Alemaniari irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du, eta orain bi hilabete ditu erantzun eta beharrezko diren neurriak hartzeko. Hori egin ezean, Batzordeak auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igor diezaioke.

2024ko maiatzak 23

BATZORDEAK FISKALITATEARI ETA IBILGAILUEN MATRIKULAZIOARI BURUZKO LEGERIA ALDATZEKO ESKATU DIO GREZIARI

Europako Batzordeak Greziari [INFR(2020)4001] irizpen arrazoitua bidaltzea erabaki du gaur, ez dituelako egokitu fiskalitatearen eta ibilgailuen matrikulazioaren arloko arauak. Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, Tratatuen 110. artikulua⁸⁰ hausten da inportatutako automobilen gaineko zergak eta antzeko automobil nazionalen gaineko zergak modu berean kalkulatzeko ez direnean. Horrek inportatutako produktuari zerga handiagoak aplikatzea eragiten du. Gaur egun Grezian indarrean dauden xedapenen arabera, matrikulazio-zerga, alegia, ibilgailu guztiak zergapetzen dituenak, handiagoa da inportatutako bigarren eskuko ibilgailuen kategorian jakin batzuetarako, estatuko antzeko bigarren eskuko ibilgailuetarako baino. Gainera, Greziako ingurumen-zergak, hau da, ibilgailu-kategoria jakin batzuk zergapetzen dituenak, bereizketa bat ezartzen du bigarren eskuko ibilgailu nazionalen eta beste estatu kide batzuetan erosi eta ondoren Grezian matrikulatutako bigarren eskuko ibilgailuen artean. Batzordearen ustez, Greziako legeria ez da bateragarria Tratatuen 110. artikuluekin; izan ere, beste estatu kide batetik inportatutako automobilek zerga-karga handiagoa dute ibilgailu nazionalen baino. Aldi berean, Greziak debekatu egiten du bere lurraldera inportatzen diren bigarren eskuko ibilgailu jakin batzuk matrikulatzea; aldiz, ibilgailu nazionalen kategoriei ez zaie horrelako debekurik ezartzen. Debeku horrek argi eta garbi mugatzen du salgaien zirkulazioa askea, eta EBFTren 34. artikulua⁸¹ eta 36. artikulua⁸² aurkakoa da. Horrenbestez, Batzordeak Greziari irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du, eta orain bi hilabete ditu erantzun eta beharrezko diren neurriak hartzeko. Hori egin ezean, Batzordeak auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea erabaki lezake.

⁷⁹ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A02006L0112-20220406>

⁸⁰ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:12008E110&qid=1715848686467>

⁸¹ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:12008E034&qid=1715847626924>

⁸² <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:12008E036&qid=1715847712958>

BATZORDEAK ZERGADUN EZ-EGOILIARREK EPEKA ORDAINDUTAKO GAINBALIOEN ZERGAPETZEARI BURUZKO ARAUAK ALDATZEKO ESKATU DIO ESPAINIARI

Europako Batzordeak Espainiari [INFR(2021)4035] irizpen arrazoitua bidaltzea erabaki du gaur, zergadun ez-egoiliarrek Espainian lortutako gainbalioak zergapetzeko arauak kapitalen zirkulazio askera egokitzeagatik (EBFTren 63. artikulua)⁸³. Aktiboen transferentzia batetik datozen gainbalioen kasuan, ordaintzen urtebete baino gehiago geroratzen denean edo urtebete baino epe luzeagoan epeka ordaintzen denean, zergadun egoiliarrek zerga gainbalioak sortzen direnean ordaintzeko aukera dute, edo, bestela, geroratzeko eta diru-fluxuaren oinarriaren gainean proportzionalki ordaintzeko. Dena den, zergadun ez-egoiliarrei ez zaie geroratzeko aukera hori eskaintzen, eta zerga ordaindu behar dute aktiboak transferitzeko unean ondare-irabaziak sortzen direnean. Batzordeak arau-hauste prozedura hasi zuen, eta epatze-gutun bat bidali zion Espainiari 2021eko abenduaren 2an. Espainiak ez duenez bere legeria EBko Zuzenbidearen eskakizunetara egokitu, Batzordeak Espainiari irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du, eta orain bi hilabete ditu erantzun eta beharrezko diren neurriak hartzeko. Hori egin ezean, Batzordeak auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea erabaki lezake.

BATZORDEAK «2. ZUTABEA» ZUZENTARAUAREN BARNE-ORDENAMENDU JURIDIKORAKO TRANSPOSIZIO-NEURRIAK JAKINARAZTEKO ESKATU DIE ESPAINIA, ZIPRE, LETONIA, LITUANIA, POLONIA ETA PORTUGALI

Europako Batzordeak irizpen arrazoitua bidaltzea erabaki du gaur Espainiari [INFR(2024)0049], Zipreri [INFR(2024)0020], Letoniari [INFR(2024)0094], Lituaniari [INFR(2024)0080], Poloniari [INFR(2024)0113] eta Portugali [INFR(2024)0119], ez dutelako jakinarazi Kontseiluaren 2022ko abenduaren 14ko 2022/2523 (EB) Zuzentaraua⁸⁴, Batasunean enpresa talde multinazionalentzako eta munta handiko talde nazionalentzako gutxieneko zerga-maila globala bermatzeari buruzkoa («2. zutabea » zuzentaraua), barne-zuzenbidean sartzeko neurririk. Batzordeak lehentasunezkoztat jotzen du bi zutabeko konponbidea. Horren arabera, enpresa multinazional handi guztiek gutxienez % 15eko zerga-tasa efektiboa ordaindu beharko dute. EBko estatu kide guztiek beranduzenez 2023ko abenduaren 31n jarri behar zuten indarrean «2. zutabea» zuzentaraua betetzeko legeria. Orain arte, EBko estatu kide gehienek bete dituzte betebeharrak. Hala ere, Espainiak, Ziprek, Letoniak, Lituaniak, Poloniak eta Portugalek oraindik ez dituzte jakinarazi beren neurri nazionalak. Horrenbestez, Batzordeak estatu kide horiei irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du, eta orain bi hilabete dituzte erantzun eta beharrezko diren neurriak hartzeko. Hori egin ezean, Batzordeak auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea erabaki lezake.

BATZORDEAK KONTRATISTA ATZERRITARREN ERRENTAREN GAINEKO AURRETIAZKO ZERGARI BURUZKO ARAUAK ALDA DITZALA ESKATU DIO SUEDIARI

Europako Batzordeak Suediari [INFR(2023)4007] irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du gaur, errentaren gaineko aurretiazko zergari buruzko legeria EBko zuzenbidearen betekizunekin harmonizatze eskatzeko. EBko beste estatu kide batzuetan edo Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) herrialdeetan kokatutako kontratistek egindako lanagatik ordaintzen duten bezero suediarrek errentaren gaineko aurretiazko zerga bat atxiki behar dute, dagozkien ordainsarien % 30eko tasan, salbu eta atzerriko kontratistak Suediako zerga-agintaritzak baimendu baditu (eskuarki «F baimen fiskala» deitzen zaio). Batzordearen ustez, kontratista atzerritarrek Suedian establezimendu iraunkorrik ez duten eta, beraz, Suediako errentaren gaineko zergaren mende ez dauden egoeretan aurretiazko errentaren gaineko zerga atxikitze betebeharrak zerbitzuen prestazio librea urratzen du (EBFTren 56. artikulua⁸⁵ eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioaren 36. artikulua⁸⁶). Horrenbestez, Batzordeak Suediari irizpen arrazoitu bat bidaltzea erabaki du, eta orain bi hilabete ditu erantzun eta beharrezko diren neurriak hartzeko. Hori egin ezean, Batzordeak auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea erabaki lezake.

⁸³ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:12016E063>

⁸⁴ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32022L2523&qid=1715014010046>

⁸⁵ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX%3A12008E056>

⁸⁶ <https://www.efta.int/sites/default/files/documents/legal-texts/eea/the-eea-agreement/Main%20Text%20of%20the%20Agreement/EEAagreement.pdf>

8.4. Gaiak Justizia Auzitegiari igortzea

2024ko maiatzak 23

BATZORDEAK ZERGA-GERORAPENEN BALDINTZA GEHIGARRI MURRIZTAILEAK EZABATZEKO ESKATU DIO ESPAINIARI, BAT-EGITEEI BURUZKO ZUZENTARAUAREN ARABERA, ENPRESAK ZATITZEN DIREN KASUETAN

Europako Batzordeak Espainia [INFR(2018)4084] Europar Batasuneko Justizia Auzitegiara eramatea erabaki du gaur, EBk enpresen zatiketen arloan dituen arau bateratuak (Kontseiluaren 2009/133/EE Zuzentaraua⁸⁷, «bat-egiteei buruzko zuzentaraua») murrizten dituzten baldintza gehigarriak sartu dituelako zuzenbide nazionalen. Bat-egiteei buruzko zuzentaruari esker, tributazioak ez ditu enpresen berrantolaketak (bat-egiteak eta zatiketak) oztopatzen, berregituraketaren unean. Hasiera batean, berrantolaketa horren ondoriozko gainbalioen tributazioa aktiboan eta akzioen ondorengo salmenta edo besterentze batera geroratu behar da. Hala ere, Espainiako legeriak baldintza murriztaileak ezartzen ditu enpresen zatiketa guztietarako. Zergaren ordainketa geroratzea ez da onartuko, baldin eta zatitutako sozietatearen akziodunek ez badute akzioen proportzio bera jasotzen zatiketaren ondorioz sortutako sozietate guzti-guztietan, salbu eta eskuratutako aktiboak jarduera-adarrak direnean. Batzordeak irizpen arrazoitu bat bidali zion Espainiari 2019ko azaroan. Harrezkero, Espainiak oraindik ez du bat-egiteei buruzko zuzentaraua EBko zuzenbidearen arabera erabat egokitu, eta horrek lehia-baldintza desberdinak sortzen ditu barne-merkatu osoan jarduten duten enpresen artean. Espainiako agintaritzek ez dutenez neurri egokirik hartu Batzordearen irizpen arrazoitua betetzeko, Batzordeak irizten dio agintaritzen ahaleginak ez direla nahikoak izan orain arte, eta, hortaz, Espainia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiara eraman du. Horri buruzko informazio gehiago lor daiteke dagokion prentsa-agirian⁸⁸.

9. EB-ko Justizia Auzitegia

2024ko urtarrilak 25 - C-743/22 gaia: DISA SUMINISTROS Y TRADING SLU (DISA), Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurka (Auzitegi Gorenak planteatutako erabaki prejudizialaren eskaera)⁸⁹

Gai horrek aukera ematen dio Justizia Auzitegiari argitzeko ea, 2003/96 Zuzentarauak ezarritako gutxieneko zerga-mailak errespetatuta ere, zuzentaru honek zerga-maila uniformea ezartzen duen estatu kide baten lurralde osoan, edo estatu kideei marjina diskrezional bat uzten dien produktu eta erabilera bererako zerga-tasa berezi desberdinak ezartzeko, produktu hori kontsumituko den lurralde nazionalaren zatiaren arabera.

Ondorioa: «Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentaraua, 2003ko urriaren 27koa, produktu energetikoak eta elektrizitatea zergapetzeko Batasuneko araubidea berregituratzen duena, bereziki 5. artikulua,

honela interpretatu behar da:

estatu kideek hidrokarburoen gaineko zerga berezitik eskualde mailako zerga-tasa berezia ezartzearen aurka dago —produktu eta erabilera bererako eskualde-karga desberdina aplikatzea dakar—, zuzentaru horretan zehatz-mehatz adierazitako kasuetatik kanpo».

⁸⁷ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A02009L0133-20130701>

⁸⁸ https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_24_2667

⁸⁹ <https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=282080&pageIndex=0&doclang=ES&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=14398690>

2024ko maiatzak 30 - JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Bosgarren Sala), C-743/22 Gaia, DISA Suministros y Trading SLU (DISA) / Zerga Administrazioako Estatu Agentzia (Espainia)⁹⁰

Justizia Auzitegiak (Bosgarren Sala) adierazten du:

Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentaraua, 2003ko urriaren 27koa, produktu energetikoak eta elektrizitatea zergapetzeko Batasunaren araubidea berregituratzen duena, bereziki 5. artikulua, Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/74/EE Zuzentarauak eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/75/EE Zuzentarauak aldatu duten bertsioan,

honela interpretatu behar da:

eskualde edo autonomia-erkidegoei produktu eta erabilera bererako zerga-tasa berezi bereziak ezartzeko baimena ematen dien araudi nazional baten aurka dago, produktua kontsumitzen den lurraldearen arabera, horretarako adierazitako kasuetatik kanpo.

10. Albisteak, ekitaldiak eta argitalpenak

Danimarkak karbonoaren lehen zerga ezarri du nekazaritzan

Danimarkako gobernuak, lehen aldiz Europan, karbonoaren zerga txertatuko du nekazaritzan, nekazaritzako eta ingurumeneko taldeekin bost hilabetez negoziatu ondoren.

2030etik aurrera, nekazariak 120 koroa daniar (16 euro) ordaindu beharko dituzte aireratutako karbono dioxido baliokide tona bakoitzeko, eta zifra hori 300 koroara (40 euro) igoko da 2035etik aurrera. Modu berean, gobernuak 5.300 milioi euro bideratuko ditu 2045erako 250.000 hektarea nekazaritza-lur basoberritzera, 140.000 lur baxu 2030erako erreserbatzera eta zenbait etxalde eroztera, nitrogeno-emisioak murriztearren.

Danimarka txerri okelaren eta esnekien esportatzaile erraldoia da, eta 2030erako emisioen % 46 nekazaritzakoak izatea aurreikusten da. Adituen ustez, karbonoaren zergari esker 1,8 milioi tona murriztuko dira 2030ean —orduan ezarriko da lehen aldiz—. Horrela, Danimarkak urte horretarako emisioen % 70 murrizteko helburua beteko du.

Otsailean hasi ziren negoziatzen Danimarkako Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua, Danimarkako Natura Kontserbatzeko Elkartea, Danimarkako Elikadura Federazioa (NNF), Danimarkako Metalurgiako Langileen Elkartea eta Danimarkako Industriaren Konfederazioaren artean.

Karbonoaren zergak Europan (2024)⁹¹

Azken urteotan, hainbat herrialdek neurriak hartu dituzte karbono-emisioak murrizteko: ingurumen-araudiak, emisioen merkataritza-sistemak (ETS) eta karbono-zergak ezarri dituzte. 1990ean, Finlandia izan zen karbonoaren zerga bat sartu zuen munduko lehen herrialdea. Harrezkero, Europako 23 herrialdek ezarri dituzte karbono-zergak: Ukrainan euro 1 baino gutxiago karbono-emisioen tona bakoitzeko, eta Suedia, Liechtenstein eta Suitzan 100 euro baino gehiago.

⁹⁰ <https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=286567&pageIndex=0&doclang=ES&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=14398690>

⁹¹ <https://taxfoundation.org/data/all/eu/carbon-taxes-europe-2024/>

Suitzak eta Liechtensteinek dute karbonoaren zerga-tasarik altuena gaur egun: 120,16 euro karbono-emisioen tona bakoitzeko; ondoren, Suedia (115,34 euro) eta Norvegia (83,47 euro) daude. Karbonoaren zerga-tasarik txikienak Polonian (0,09 euro) eta Ukrainan (0,72 euro) daude. Europako 23 herrialdeen artean, karbonoaren zergaren batez besteko tasa 49,23 eurokoa zen 2024ko apirilaren 1ean.

Berotegi-efektuko gas mota desberdinen gaineko karbonoaren zergak ezar daitezke; adibidez, karbono dioxidoa, metanoa, oxido nitrosoa eta gas fluordunak. Karbonoaren zergaren irismena desberdina da herrialde bakoitzean, eta, horregatik, zergak estalitako berotegi-efektuko gasen emisioen proportzio desberdinak dituzte. Esaterako, Espainiako karbonoaren zerga gas fluordunei bakarrik aplikatzen zaie, eta herrialdeko berotegi-efektuko gasen guztizko emisioen % 2 soilik zergapetzen ditu. Albaniak, Liechtensteinek eta Luxenburgok, aldiz, berotegi-efektuko gasen emisioen % 72 baino gehiago estaltzen dituzte.

Online ekitaldia: «Taxation for Competitiveness: enhancing EU's own resources»

2024ko ekainaren 5ean, Bruegel think tankak «Taxation for Competitiveness: enhancing EU's own resources» izeneko ekitaldia antolatu zuen.

Bertan, ELGAko eta DG TAXUDEko ordezkariak parte hartu zuten, besteak beste, eta 2 gai jorratu zituzten:

- EBren aurrekonturako baliabide propioak
- EBren zerga-efizientzia

Baliabide propioak EBren aurrekontura doazen diru-sarreraren partidak dira, eta aho batez onetsi behar den dokumentu batean zehazten dira. 4 motatako baliabide propio daude:

- Aduana-eskubideak. Operadore ekonomikoek kobratzen zaizkie eta EBren kanpo-mugetan biltzen dira. Estatu kideek bilketa-kostuen zenbatekoaren % 25.
- BEZa. % 0,3ko erreferentziazko tasa uniformeak aplikatzen zaie estatu kide bakoitzaren BEZaren zerga-oinarriari.
- Birziklatzen ez diren plastikozko ontzien hondakinetan oinarritutako baliabide propioa. Estatu kideek 0,80 euro ematen dituzte birziklatzen ez duten plastikozko ontzien hondakinen kg bakoitzeko.
- EBren aurrekontuaren finantzaketa-iturri nagusia errenta nazional gordinen oinarritutako baliabide propioa da. Herrialde bakoitzak EBko guztizko errenta nazional gordinen dagokion zatia araberak laguntzen du. Estatu kide batzuek murrizketa gordina jasotzen dute.

Lau baliabide propio horiek diru-sarreraren % 90 baino gehiago dira.

EBren baliabide propioak eta estatu kideen mailako zerga-efizientzia lotuta daude nolabait: zerga-sistema efizienteagoa bada, herrialdea gehiago hazten da eta ekarpen handiagoa egiten dio EBri.

Nolanahi ere, gai horien azpian 2 filosofia daude: batetik, efizientziako eta lehiakortasuneko irabazi handiak aurrekontuaren gastuaren zati baten bidez iritsiko dira, eta horrek esan nahi du estatu mailako gastu batzuk EB mailara berresleitu behar direla, eta gehiago gastatu nahi badugu, baliabide propio gehiago sortu behar direla. Bestetik, efizientzia eta lehiakortasuna EBko zerga-sistemaren bidez handitu daiteke, harmonizatuago bihurtu, baliabide propioak areagotu gabe.

Eztabaida webgune honetan dago eskuragarri:

<https://www.bruegel.org/event/taxation-competitiveness-enhancing-eus-own-resources#tab-video>

Broader border taxes: a new option for European Union budget resources⁹², Pascal Saint-Amans-en eskutik

Europako Batzordearen baliabide propioen proposamena, 2023ko ekainekoa, Next Generation funtsak finantzatzeko baliabide propio gehigarriak hartzeko urratsa azkar egitea bermatu beharragatik egin zen. EBren zorraren bidezko finantzaketari ekiteko akordioak baliabide propio berriak hartzeko akordio bat biltzen zuen. Aurrera ez egiteak arriskuan jarriko luke EBk proiektuak finantzatzen jarraitzeko duen gaitasuna, bereziki interes-tasen igoeren ondorioz, bai kapitalaren bai interesen itzulketara garestiagoko izango delako. Denbora amaitzen ari da, eta Batzordeak mekanismo doitu bat proposatu zuen. Pragmatikoa da eta karga orekatzen du, Europa ekialdeko herrialdeentzat onargarriagoa izan dadin Neurri ona da, baina oraindik ez da elkarrizketa seriorik egin Kontseiluan.

Oraindik ere benetako eztabaida izan behar da zinezko baliabide propioak ezartzeko moduari buruz. Emisio-eskubideen merkataritza araubidearen eta CBAMaren diru-sarrerak banatzeko trantsizioa ona da, eta pisu handiagoa emango lieke EBren helburu politikoei bat datozen benetako baliabide propioei. Beharrezkoa da gehiago egitea, eta azken aldiko nazioarteko zerga-aurrerapenak aukera paregabea dira EBk azter dezan nola eman liezaiekeen koherentzia handiagoa EBko zerga-sistemei eta, aldi berean, nola gara ditzakeen baliabide propioak.

Super-aberatsen gaineko zerga: A blueprint for a coordinated minimum effective taxation standard for ultra-high-net-worth individuals, Gabriel Zucman

G20aren Brasilen presidentetzak txosten⁹³ bat egiteko eskatu dio Gabriel Zucman ekonomialari frantziarrari, hots, EBko Behatoki Fiskaleko zuzendaria eta nazioarteko ihes eta saiheste fiskalean aditu handienetako bat denari, planetako aberatsenek zerga gehiago ordain ditzaten. Ekainaren 26an aurkeztu zen dokumentua, eta haren arabera, munduko pertsona aberatsenek (3.000 pertsona inguru) urtero beren aberastasunaren % 2 ordainduko balute gutxienez, estatuek 200.000 eta 250.000 milioi dolar arteko diru-sarrera gehigarriak izango lituzkete mundu mailan.

Elkarrekin, «13.000 bilioi dolar inguru dituzte, bakoitzak 5.000 milioi dolar batez beste». Proposamenak haien aberastasunei % 2ko gutxieneko karga globala aplikatzea aipatzen du. Bide hori iruditzen zaio eraginkorrena, «errentaren gaineko zergek ez dutelako funtzionatzen aberatsen kasuan eta oinordetzen gaineko zerga behin bakarrik kobratzen zaielako».

Txostenari jarraikiz, ultra-aberatsak ia planeta osoan daude banatuta. Kalkuluen arabera, 800 inguru Estatu Batuetan daude, 800 Asiako hego-ekialdean, beste 500 Europan eta 100 baino gehiago Latinoamerikan.

Aberastasunaren gaineko zergen kostu handia⁹⁴

Nazio Batuak, EBko Behatoki Fiskala, Europar Batasuna eta G-20ko herrialdeak ondarearen gaineko zerga berriak eta ondare garbiaren gaineko zergaren inguruko akordio globala ari dira aztertzen. Aldi berean, Espainiak ondarearen gaineko zerga solidario berria aplikatu du duela gutxi, ondarearen gaineko egungo eskualde-zergez gain (fortuna handien aldi baterako solidaritate-zerga). Azken hiru hamarkadetan, EBko herrialde gehienek ondare garbiaren gaineko zergak indargabetu dituzte, eta aitortu dute

⁹² <https://www.bruegel.org/policy-brief/broader-border-taxes-new-option-european-union-budget-resources>

⁹³ https://www.g20.org/en/news/at-the-g20-brasils-proposal-to-tax-the-super-rich-may-raise-up-to-250-billion-dollars-a-year/report-g20-24_06_24.pdf

⁹⁴ Cristina Enache, «The High Cost of Wealth Taxes», Tax Foundation, 2024ko ekainak 26, <https://taxfoundation.org/research/all/eu/wealth-tax-impact/>

ondarearen gaineko zergek ekintzaitza sustatzea eragozten dutela eta berrikuntza eta epe luzerako hazkundea kaltetzen dituztela.

Proposatutako aberastasun-zergei buruzko gaur egungo eztabaidetan, herrialde garatuetako aberastasun-zergen joerei buruzko informazio gutxi edo partziala jaso da. Hala ere, joera horiek eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeetako ondarearen gaineko zergen gaur egungo egoera proposamenak egiteko testuingurua izan daitezke.

Aberastasun garbiaren gaineko zergaren inguruko akordio orokor bat egitea ez da oso gertagarria, herrialde kopuru erabakigarri batek sinatu beharko lukeelako akordioa (Suitza barne, non zergadunek edozein zerga-igoera onetsi behar duten), eta horrek proposamena bideraezina izatea eragingo luke. Gainera, aberastasunak akordioa sinatzeko prest ez dagoen edozein herrialdera alde egin lezake.

Inflazio handiaren eragina Europa osoko diru-sarrerera fiskaletan⁹⁵

EBko herrialdeen inflazio-prozesua, 2020ko hamarkadaren hasieran, Europako estatu kideei ez ezik, beste ekonomia aurreratu batzuei ere eragin zieten hainbat gertaera garrantzitsuk bultzatu zuten. Inflazioa gorantz egiten hasi zen COVID-19aren krisia gutxitu ahala, eta nabarmen bizkortu zen Errusiak Ukraina inbaditu ondoren. 2022an inflazio orokorrak gorakada handia izan zuen energiaren eta elikagaien prezioen igoera historikoki handiengatik, baita eskaintzaren botila-lepoengatik eta pandemiaren osteko berrirekitzearen ondorioengatik ere.

2020ko urtarriletik 2023ko abendura, prezioak % 21,3 igo ziren EBn eta % 18,9 eurogunean.

Inflazioak zerga-oinarri nominalak igotzen ditu, eta zerga-sarrerak handitzen ditu «zerga-oztopoa» dela eta, zerga-tarteak inflazioarekin bat ez datozenean. Presio fiskala % 0,84 igo zen batez beste, 2019 eta 2022 arteko inflazioaren eraginez.

EBko estatu kideek modu desberdinean erantzun diote inflazioari, batez ere neurri diskrezionalekin, doikuntza automatikoen ordez. Inflazioak bultzatutako zerga-bilketaren ondorioz, gobernuaren diru-sarrerak % 1,5 handitu dira BPGari dagokionez, eta 2019tik zerga-bilketak izan duen igoeraren % 40 da.

Zerga-politikan indexazio automatikoak doikuntza bidezko eta efizienteak bermatzen ditu zerga-atalaseen eta inflazioan oinarritutako onuren harira. Austria, Danimarka eta Herbehereek soilik dituzte inflazioagatiko doikuntza automatikoak errentaren gaineko zergaren atalaseetarako, eta Belgikak, Finlandiak, Frantziak, Alemaniak eta Suediak, aldiz, aldizkako doikuntzak egiten dituzte indexazio automatikorik gabe.

Inflazioak zerga-oinarri nominala eta zerga-sarrerak handitu ditu, eta horrek zerga-karga handiagoa eragin die zergadunei Espainian, esaterako. Batez beste, Espainiako etxeek 557 euroko igoera izan zuten errentaren gaineko zergan eta 392 euroko igoera balio erantsiaren gaineko zergan (BEZ) 2021etik 2023ra, 10.450 milioi euroko inpaktuarekin.

⁹⁵ Santiago Calvo López eta Diego Sánchez de la Cruz, «The Impact of High Inflation on Tax Revenues across Europe», Tax Foundation, 2024ko ekainak 28, <https://taxfoundation.org/research/all/eu/high-inflation-tax-revenue-europe/>

11. Europako herritar ekimena: «Planeta salbatu, lanaren fiskalitatea berotegi-efektuko gasen emisioetara eramanez»

2024ko maiatzaren 13an, Batzordeak Europako Herritarren Ekimen bat erregistratu zuen: «Planeta salbatu, lanaren fiskalitatea berotegi-efektuko gasen emisioetara eramanez»⁹⁶.

Ekimenaren antolatzaileek Batzordeari eskatu diote «55. helburua» neurri sorta eta EBko karbonoaren tarifazio-sistema indartzeko; horretarako, doako emisio-eskubideak azkarrago ezabatu behar dira pixkanaka, eta karbonoaren prezioa mugagabea izan behar da, emisioak murrizteko helburuak lortzeko. Halaber, zera eskatu dute: karbonoaren tarifatik eratorritako diru-sarreraren zati handi bat errenta baxuak dituzten etxeen artean birbanatzea, eta, hala, EBko Klimaren Gizarte Funtza indartzea, eta Klimaren Kluba sortzea sustatzea, bertan parte hartzen duten herrialdeek karbonoaren tarifakazio sendoa har dezaten. Horretarako, behar bezala hartu behar da kontuan karbonoaren tarifatik datozen diru-sarrerak errenta baxuak dituzten etxeen arteko birbanaketa.

Erregistratu ondoren, antolatzaileek sei hilabete dituzte sinadurak biltzeko. Baldin eta Europako herritarren ekimen batek, urtebeteko epean, gutxienez zazpi estatu kideetatik datozen milioi bat babes-adierazpen lortzen baditu, Batzordeak erabaki beharko du eskaerari bide eman ala ez, baina bi kasuetan arrazoi beharko du erabakia.

⁹⁶ https://citizens-initiative.europa.eu/initiatives/details/2024/000005_es

Zerga Kontsultak



Araugintza koordinatu eta ebaluatze-ko batzordearen kontsultak

Erabaki zk.	Zerga kontzeptua	Kontsultaren gaia	Testua
AKEB-2024.1	SZ, BEZ, EJZ	<p>Kontsultagilea enpresa bat da, egoitza fiskala foru-lurraldean duena. Enpresa horrek gas- eta elektrizitate-operadoreei askotariko zerbitzuak ematen dizkie (aholkularitza, teknologia, operazioak/backoffice eta merkatu-kudeaketa) telelanaren modalitatean. Administrazio-zerbitzuak, berriz, egoitza fiskalean garatzen dira. Aldi berean, langile guztiek beren etxetik lan egiten dute, langileek Espainiako hainbat probintzian dituzten egoitzetatik egiten dute lan.</p> <p>Oro har, Ekonomia Itunaren ondorioetarako eragiketen kokapenari buruz eta zerga-betebeharrei dagokienez eskumena duen administrazioari buruz egindako kontsultari erantzun zaio..</p>	Testura sartzeko esteka

AKEB-2024.1 SZ, BEZ, EJZ. – Kontsultagilea enpresa bat da, egoitza fiskala foru-lurraldean duena. Enpresa horrek gas- eta elektrizitate-operadoreei askotariko zerbitzuak ematen dizkie (aholkularitza, teknologia, operazioak/backoffice eta merkatu-kudeaketa) telelanaren modalitatean. Administrazio-zerbitzuak, berriz, egoitza fiskalean garatzen dira. Aldi berean, langile guztiek beren etxetik lan egiten dutenez, langileek Espainiako hainbat probintzian dituzten egoitzetatik egiten dute lan.

Oro har, Ekonomia Itunaren ondorioetarako eragiketen kokapenari buruz eta zerga-betebeharrei dagokienez eskumena duen administrazioari buruz egindako kontsultari erantzun zaio.

Planteatutako gertaerak

Kontsultagilea merkataritza-entitate bat da, egoitza fiskala Bilbon (Bizkaia) duena. Bertan, bulego bat du zerbitzu guztiekin (idazkaritza, harrera, telefonoa, etab.); hau da, negozio- eta zerbitzu-zentro bat. Kontsultagilea honako epigrafe hauetan alta emanda dago: 1 84700 Aholkularitza-enpresa eta 1 99900 Beste zerbitzu batzuk B.I.S.G. Entitateak garatzen dituen jarduerak honako hauek dira:

- a) Aholkularitza: Aholkularitza espezializatua eta independentea, esperientzian eta profesionaltasunean oinarritua. Zerbitzuak ematen die elektrizitate- eta gas-merkatuzaileei, banatzaileei, ekoizleei eta, oro har, energia-negozioarekiko interesa edo presentzia duen edozein parte-hartzaileri.
- b) Teknologia: Bere softwarea garatuta, enpresei ingurune digital eta aldakor batean beharrezko tresnak ematen die, horiek beren jarduera modu eroso eta errentagarrian garatzeko.
- c) Operazioak/BackOffice: Merkatuzaileei eskaintzen die eskarmentu handiko lantalde tekniko eta administratiboa, urte asko daramatzana kudeaketan, eguneroko lanak egiteko ahalik eta eraginkortasun handienarekin eta kontsumitzaileentzako irudi hoberenarekin.
- d) Merkatuko kudeaketa: Spot merkatuan eragiketak egitea, erakundearen energia kudeatzeko eki-pauren bidez, 24x7 eragiketa-txandan; horrek esan nahi du, merkatuzailearekin ezarritako marjinen eta mugen barruan, bermeen eskakizunean eraginik ez izateko, eragiketak egingo lituzkeela merkatuetan, errentagarritasun gehigarria lortzeko, merkatu ez-tradizionalen bidez, eta desbideratzeengatik zigor ekonomikoa murrizteko, eragiketen emaitza ekonomikoa partekatuz.

Merkatua kudeatzeko zerbitzu hori 20 GWh-tik gorako urteko kontsumoa duten merkatuzaileei baino ez zaie ematen, inolako kostu gehigarririk gabe. Jarduera horiek telelangileen plantillarekin garatzen dituzte, hau da, beren etxetik lan egiten dute, eta egoitza horiek Espainiako hainbat probintzian daude kokatuta, hala nola Cadizen, Pontevedran, Madrilen, Murtzian, Alacanten, Malagan eta probintzia horietako hainbat udalerritan. Administrazio-zerbitzuak Bilboko negozio-zentroak garatzen ditu. Ukrainako gerrak izandako eragina energiaren prezioen igoeran, hau da, 2022ko egoera ekonomiko globalaren aurrean (inflazioa eta energiaren eta lehengaien kostuen igoera), erakundeak 2022ko ekitaldian izan zuen eragiketa-bolumenaren ezohiko igoera eragin du, 10 milioi eurotik gorakoa. Ondorioz, erakundeak enpresa handia izatera igaro da (Bizkaiko Foru Ogasunari 036 ereduaren bidez jakinarazi zitzaion). Erakundeak aurreikusten du eragiketa-bolumenaren salbuespenezko egoera horrek ez duela berriro errepikatuko 2023an, elektrizitatearen prezioak modulatzeko eta topatzeko neurriak aplikatzen ari direlako; adibidez, Kontseilu Europarrean lortutako ituna, zeinak argi berdea ematen baitio merkatu elektriko «salbuespen iberikoari». Kontsulta egin duen erakundeak adierazten du ez duela establezimendu iraunkorrik, eta ez duela horretan jarduten.

Proposatutako galdera

Deskribatutako gertaeren arabera erakunde kontsultagileak honako hauek ezagutu nahi ditu:

- a) Non jotzen diren gauzatutzat bere eragiketak Ekonomia Itunaren ondorioetarako.
- b) Zein administrazioak dituen zerga-eskumenak (ordainarazpena, kudeaketa, likidazioa, ikuskapena, berrikuspina eta diru-bilketa) sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren eta lan pertsonalaren atxikipenen arloan, Ekonomia Itunean xedatutakoa kontuan hartuta.
- c) Nola agertu behar du sozietateak enpresaburuen erroldan, eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren ondorioetarako, zer epigrafetan? Ordaindu behar al ditu udal- eta estatu-kuotak edota tokiko kuotak?

Erantzuna

Kontsulta hau maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak (Ekonomia Ituna) onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu behar da. Horren arabera,

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan jasotako lotura-puntuari buruz egiten diren kontsultak ebaiztea. Kontsulta horiek, jaso eta bi hilabeteko epean, dagokien gainerako administrazioei helaraziko zaizkie, azter ditzaten, ebazpen-proposamenarekin batera. Bi hilabeteko epean ebazpen-proposamenari buruzko oharrik egiten ez bada, proposamena onartutzat joko da. Oharrak badaude eta onartzen ez badira, horiei buruzko akordio bat lortu ahal izango da Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordean. Nolanahi ere, ohar horiek egiten direnetik bi hilabete igarotzen badira horiei buruzko akordiorik lortu gabe, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak eta eraginpeko edozein administrazioak hilabeteko epean helarazi ahal izango diote desadostasuna Arbitraje Batzordeari.»

Planteatutako kasuan araugintzako eta ordainarazpeneko eskumena aztertzen hasi aurretik, adierazi behar da erakunde kontsultagileak adierazi duela bere zerga-egoitza Bilbon dagoela, eta, beraz, erantzun honetan datu hori aintzat hartu da.

Nolanahi ere, adierazi behar da, Ekonomia Itunaren 43. artikuluen arabera:

«(...) Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela: (...) b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren mende dauden gainerako erakundeak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan badute sozietate-egoitza, eta, betiere, egoitza horretan zentralizatuta badute beren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten denean. Irizpide horien arabera bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non duten hartuko da kontuan (...).»

Sozietateen gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gaineko araugintza-eskumena.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, Ekonomia Ituna aplikatu behar da. Horren 14. artikulua honela dio:

« Bat. Sozietateen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan. Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko araudia bete beharko dute. Araudi autonomoa aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboek egoitza fiskala lurralde erkidean badute, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badute. Salbuespenez, subjektu pasiboak talde fiskal baten parte badira, talde fiskal horren egoitza fiskala lurralde erkidean badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, orduan, araudi autonomoa aplikatuko da eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin badira bakarrik. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak. Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, artikulua honetako Bat apartatuan aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke baldin eta, 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, lurralde horretan egiten badira ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak. Lau. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratu zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira. Harik eta ekitaldi horretako eragiketek zenbat egin duten eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzeko dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera. (...) ».

Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, Ekonomia Itunaren 26. artikulua honako hau arautzen du:

« Balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango. »

Beraz, Sozietateen gaineko Zergarekiko, Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko ez bezala, lurralde historikoek araugintza-eskumena dute eta horregatik ezarri behar dira zerga hori aplikatzeko arauak; horretarako araudi bat edo bestea (erkidea edo forala) aukeratu behar da.

Talde fiskalak alde batera utzita, Sozietateen gaineko Zergan: 1) Egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboek dagokien euskal araudia aplikatuko dute. 2) Hala ere, lurralde erkideko araudiaren mende geratuko dira aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan duten subjektu pasiboak eta aldi berean ekitaldi horretan eragiketa-bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dutenak.

Sozietateen gaineko Zergan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan ordainarazteko eskumena.

Sozietateen gaineko zergaren ordainarazpenari dagokionez, Ekonomia Itunaren 15. artikulua honako hau xedatzen du:

« Bat. Foru-aldundiei dagokie, ez beste inori, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboek sozietateen gaineko zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez ere 10 milioi eurokoa bada. Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, egoitza fiskala edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete tributua, ekitaldian lurralde horietariko batean edo bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi dezimalekin biribilduta. »

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, Ekonomia Itunaren 27. artikulua honako hau zehazten du:

« Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira: Lehenengoa. Euskadiko lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga osoa dagokien foru-aldundian ordaindu behar dute; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dute. Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zerga bi administrazioetan ordaindu behar dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotuneak erabili behar dira. Hirugarrena. Aurreko urtean 10 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zerga Estatuko Administrazioan ordainduko dute, egoitza fiskala lurralde erkidean baldin badaukate; eta egoitza fiskala Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Jardueran hasi berriak diren kasuan, 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan. Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da jarduketak proportzio berean urteko bihurtzeko. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun-emateak edo Zerbitzu-prestazioak. »

10 milioi euroko muga zehazteko, bai sozietateen gaineko zergarako bai balio erantsiaren gaineko zergarako, eragiketa-bolumentzat hartuko da subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateetan eta zerbitzu-prestazioetan ekitaldi batean lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta, hala badagokio, baliokidetasun-errekargua kenduta. Ondasun-emateetat eta zerbitzu-emateetat hartuko dira halakotzat definitutako eragiketak balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian.

Besterik da lurraldeka banatzeko eragiketen bolumena; izan ere, Ekonomia Itunaren 29. Bat artikulua adierazten duen bezala (aurrerago transkribatuko dugu), Balio Erantsiaren gaineko Zergan administrazio bakoitzari dagokion tributazio-ehuneko kalkulatzeko aldera, benetan zergapetutako eragiketak (ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak) eta kenkarirako eskubidea (erabateko salbuespenarekin) duten salbuesitakoak baino ez dira kontuan hartu behar. Beraz, ondorio horietarako, ez dira kontuan hartu behar zergari lotuta ez dauden eragiketak, ezta kenkarirako eskubiderik gabe salbuesita daudenak ere (salbuespen mugatuarekin). Hala ere, ez dago jasota horrelako eragiketak egin direnik planteatutako kasuan.

Nolanahi ere, horrek guztiak zerga-ordainketa egiteko aukerak aztertu beharra dakar, zerga-egoitza foru-lurraldean dagoen kasu honetarako:

1) Euskal lurraldean zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta aurreko ekitaldian gehienez 10 milioi euroko eragiketa-bolumena izan duten subjektu pasiboek bakarrik ordaindu beharko dituzte zergak, sozietateen gaineko zergan zein balio erantsiaren gaineko zergan, eragiketak edozein lekutan egiten dituztela ere. Irizpide bera aplikatu behar zen, lehen adierazi den bezala, sozietateen gaineko zergaren arloko araugintza-eskumena zehazteko.

Era berean, aurreko urtean 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan duten baina euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboen kasuan, EAEk bakarrik izango du ordainarazteko eskumena. Era berean, eta Sozietateen gaineko Zergaren eremuan soilik, eragiketak EAEn soilik egiten badira, EAEko erakundeek izango dute araugintza-eskumena.

2) Subjektu pasiboaren eragiketa-bolumena aurreko urtean 10 milioi eurotik gorakoa bada eta bi lurraldeetan (lurralde erkidean eta euskal lurraldean) jarduten badu, bi administrazioei ordainduko dizkie zergak, uneko urteko eragiketa-bolumenaren proportzioan, bai sozietateen gaineko zergan, bai balio erantsiaren gaineko zergan. Kasu horretan, Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko araudia aurreko ekitaldian lurralde erkidean eta Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketen bolumenaren arabera izango da, kontuan hartuta eragiketen % 75era iristen den lurralde erkidean.

Sozietateen gaineko zergaren eremuan, zergak lurralde erkidean eta foru-lurraldean ordaintzen badira, Ekonomia Itunaren 17. artikuluko 2. apartatuak honako hau xedatzen du:

«(...) Bi. Zerga bi administrazioei ordaindu behar dieten subjektu pasiboek lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera egingo dituzte zergaren ordainketa zatikatuak. Horretarako, zergaren azken aitorten-likidazioan adierazitako proportzio bera erabiliko da. (...) Hiru. Hiru. Administrazio bakoitzari benetan egindako ordainketa zatikatua administrazio horri dagokion kuota-zatitik kenduko da.»

Eta Ekonomia Itunaren 18. artikulua arabera:

« Zerga bi administrazioei ordaintzen zaien kasuan, honako arau hauek bete beharko dira: Lehenengoa. Zerga likidatuta lortutako emaitza Estatuko eta Euskadiko administrazioei egotziko zaie, zergaldi bakoitzean lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Bigarrena. Zerga bi administrazioetan ordaindu behar duten subjektu pasiboek behar diren aitorten-likidazioak aurkeztu behar dizkiete administrazio biei, arauetan agindutako epeak eta formalitateak errespetatuta. Aitorten-likidazio horietan, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko proportzioa eta dagozkion kuotak eta itzulketak zein diren zehaztu beharko da beti. Hirugarrena. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokionaren arabera.»

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan, Ekonomia Itunak kudeaketa-sistema ere aipatzen du, lurralde erkideko eta EAEko bi administrazioei zergak ordaindu behar zaizkienean. Zehazki, indarreko Ekonomia Itunaren 29. artikulua honako hau xedatzen du:

« Bat. Zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Kontraprestazio horiek kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagozkie, baita salbuetsie ere kenkarirako eskubidea badakarte. Bi. Egutegiko urte bakoitzean behin-behingo aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira. (...) Hiru. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean zergaren azken aitorten-likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatu dituzte epe horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako aitortenak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan. Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitorten-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorten-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira

beti. Bost. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan. (...).»

Sozietateen gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga ikuskatzeko eskumenak.

Sozietateen gaineko zerga ikuskatzeko eskumenei dagokienez, Ekonomia Itunaren 19. artikulua hona ezaugarritzen du:

« Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu egoitza fiskala, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena. Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da. Halaber, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboak ikuskapena lurralde dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztien % 75 edo Euskadin egin bada. Bi. Ikuskapen-jarduketetan, administrazio eskudunaren araudia bete beharko da, aurreko apartatua ezarritakoaren arabera, gainerako administrazioen elkarlana eragotzi gabe. Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Hiru. Aurreko apartatua xedatutakoa ulertu behar da foru-aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak eragotzi gabe. Baina foru-aldundien jarduketa horiek ez dute inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan, administrazio-organoen eskudunen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta. Lau. Egiaztapenetan administrazio eskudunak ezartzen dituzten proportzioek ondorioak izango dituzte subjektu pasiboarekiko, likidatutako betebeharrei dagokienez, baina horiek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea. Bost. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu behar dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-zenbatekoaren kalkuluarri eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketak guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horiek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari.»

Eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ikuskapenari dagokionez, Ekonomia Itunaren 29. artikuluko sei-garren paragrafoan:

« Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da: a) Zerga foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko tributu-ikuskaritzen lana izango da. b) Zerga lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira: Lehenengoa. Egoitza fiskala lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioaren organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Organo horiek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan duen tributu-egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio batari eta besteari dagokion tributazio-proportzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago Euskadiko lurraldean egina bada –edo % 100, erakunde-talderako araubide berezian sartzen diren erakundeen kasuan–, zehaztutako lotuneen arabera, lurralde dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo ditu egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Bigarrena. Egoitza fiskala Euskadiko lurraldean daukaten subjektu pasiboak: egoitza fiskalari dagokion foru-administrazioaren organo eskudunak egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Ondorioak administrazio eskudun guztietan izango ditu, administrazio horiei dagokien tributazio-proportzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago lurralde

erkidean egina badu, zehaztutako lotuneen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru-aldundiekiko elkarlana eragotzi gabe. Jarduketa horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-jarduketa horiek egin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Hirugarrena. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, foru-aldundiek – zeinek bere lurralde barruan– egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien ahalmenak izango dituzte. Baina foru-aldundien jarduketek ezin dute zergadunen artean inongo ondorio ekonomikorik izan, administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan. Laugarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea. Bosgarrena. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu ahaliko dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketazentzakoaren kalkuluari eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari.»

Hala, Sozietateen gaineko Zergaren eremuan, egoitza fiskala euskal lurraldean eta, zehazki, Bizkaian duen erakunde dela kontuan hartuta: 1) Subjektu pasiboak egoitza fiskala Euskadin duenean, zergaren ikuskapena dagokio lurraldearen arabera eskuduna den foru-aldundiak. 2) Hala ere, aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan eta ekitaldi horretan eragiketa-bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin duten subjektu pasiboen ikuskapena Estatuko Administrazioari dagokio.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan: 1) Zergak foru-aldundiei edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioari soilik ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboen ikuskapena, berriz, administrazio horietako bakoitzeko tributuen ikuskapenen bidez egingo da. Horrek, zerga-egoitza EAEn eta, zehazki, Bizkaian duen erakunde bat kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikuskapen-eskumena ekarriko du, baldin eta aurreko ekitaldian eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa ez bada, bai eta EAEn soilik jarduten badu ere, aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan arren. 2) Zergak euskal lurraldean zerga-egoitza duten eta lurraldeka banatzen diren eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen dituzten subjektu pasiboak zerga-egoitzari dagokion foru-administrazioari organo eskudunek ikuskatuko dituzte. Hala ere, Estatuko Administrazioa izango da eskuduna subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin baditu, ezarritako lotura-puntuen arabera.

Eragiketen kokapena eta eskumenak zehaztea sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren esparruetan.

Erantzun honetako egitateen deskribapenaren atalean adierazten den bezala, Ukrainako gerrarekin bizi izan zen salbuespenezko egoerak eta horrek energiaren prezioen igoeran izan zuen eraginak, hau da, 2022ko egoera ekonomiko globalaren aurrean (inflazioa eta energiaren eta lehengaien kostuen igoera), erakundeak 2022ko ekitaldian izan zuen eragiketa-bolumenaren ezohiko igoera eragin du, 10 milioi eurotik gorakoa.

Hori dela eta, aurreko guztiaren arabera:

1) 2023ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari dagokionez, araugintza-eskumena Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokiona izango da, salbu eta 2022an eragiketa-bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badu.

2) Horregatik, gainera, 2023ko ekitaldian bi tributuetan, BEZa eta SZa, ordainarazteko eskumena uneko urtean (2023) egindako eragiketen bolumenaren arabera izango da, bi lurraldeetan (lurralde erkidean eta EAEn) jarduten duen neurrian.

3) Eta, azkenik, 2023ko ikuskapen-eskumena ere lurralde erkidean 2022an egindako eragiketen ehunekoak baldintzatzen du. Hala, lurralde erkideari egokituko zaio, baldin eta 2022ko ekitaldian eragiketa-bolumenaren 100eko 75 edo gehiago egin badu lurralde horretan, kokapen-arauen arabera. Bestela, euskal lurraldeari egokituko zaio, eta, zehazki, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiari, hots, Bizkaiari.

Beraz, erabakigarria izango da erakundeak egiten dituen eragiketen kokapena eta, zehazki, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako eragiketak egiten diren tokiari dagokionez, Ekonomia Itunaren 16. artikulua honako hau arautzen du:

« Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira: (...) B) Zerbitzu-prestazioak: 1.- Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira. 2.- Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpora daude ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duten prestazioak. Ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira prestazio horiek Euskadin egindakotzat. (...)».

Eragiketak BEZaren ondorioetarako kokatzeko arauari dagokionez, Ekonomia Itunaren 28. artikulua honako hau ezartzen du:

« Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, zergaren mendeko eragiketen artetik honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat: (...) B) Zerbitzu-prestazioak: 1. Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira. 2. Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpora daude ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duten prestazioak. Ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira prestazio horiek Euskadin egindakotzat. (...)».

16. artikulua horretako B) letran eta 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bat. B) Ekonomia Itunetik, ondasun higiezinekin zuzenean lotuta ez dauden zerbitzuak eta aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak Euskal Autonomia Erkidegoan egindakotzat joko dira lurralde horretatik egiten direnean. Hori dela eta, kasu bakoitzean zergadunak zerbitzuak ematen dituen lekua zehaztu behar da.

Horri dagokionez, Ekonomia Itunaren 14. Bi artikulua zehazten du ondasun-ematetzat eta zerbitzu-ematetzat hartzen direla Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen legerian halakotzat definitutako eragiketak.

Ondorioz, kontsulta-egileak lurralde erkidean edo euskal lurraldean egiten dituen eragiketen kokapena zehaztu ahal izateko, lehenik eta behin Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian aurreikusitako hartu behar da kontuan, haiei dagokien izaera mugatze aldera, dela ondasun-emateena, dela zerbitzu-emateena.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudiak zerbitzuak ematearen kontzeptua ezartzen du, eta honela definitzen du: zergari lotutako eragiketa oro, araudi erregulatzaileraren arabera, entregatzat, erkidego barruko eskuraketatzat edo ondasunen inportaziotzat hartzen ez dena.

Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen araudiak ondasun-ematetzat jotzen du ondasun gorpuzdunak xedatzeko ahalmenaren transmisioa, baita ondasun horien ordezkaritza-tituluen lagapenaren bidez egiten bada ere. Ondorio horietarako, gorputz-ondasuntzat hartzen dira gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia-modalitateak. Ondasun-ematetzat hartzen dira, halaber, komisiomailearen eta bere izenean diharduen komisiomailearen arteko ondasun-eskualdatzeak, salmenta-komisioko edo erosketa-komisioko kontratuen arabera egindakoak, bai eta edozein euskarri materialetan egindako produktu informatiko normalizatu baten hornidura ere. Ondorio horietarako,

produktu informatiko normalizatutzat hartzen dira edozein erabiltzailek erabiltzeko funtsezko aldaketarik behar ez dutenak.

Kontsulta-idazkian adierazitakoaren arabera, honako hauek dira kontsultatzaileak garatzen dituen jarduerak, gertakarien azalpenean emandako deskribapenekin: aholkularitza, teknologia, eragiketak/backoffice eta merkatuko kudeaketa:

- Aholkularitza. Aholkularitza espezializatua eta independentea. Elektrizitatearen eta gasaren merkaturatzaileei, banatzaileei, ekoizleei eta, oro har, energia-negozioarekiko interesa edo presentzia duen edozein parte-hartzailerik emandako zerbitzuak dira.

Aholkularitza- eta aholkularitza-jarduerak, balio erantsiaren gaineko zergaren eremuan, zerbitzu-prestaziotzat jotzen dira.

- Teknologia. Bere softwarea garatuta, energia-enpresei ingurune digital eta aldakor batean beren jarduera modu eroso eta errentagarrian garatzeko behar dituzten tresnak emateko.

Kontsultagileak teknologikotzat jotzen dituen jarduerak, gehiago zehaztu gabe, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan zerbitzu-prestaziotzat jotzen diren jarduerak dira.

Hala ere, edozein euskarri materialetan egindako produktu informatiko normalizatu baten hornidura ondasun-ematetzat hartzen da. Ondorio horietarako, produktu informatiko normalizatutzat hartuko dira edozein erabiltzailek erabiltzeko funtsezko aldaketarik behar ez dutenak. Hala ere, emandako datuetatik ez da ondorioztatzen produktu informatikoak fisikoki entregatu direnik, eta horrek azalpen gehigarri zehatz bat eskatuko zukeen.

- Operazioak/Backoffice. Merkaturatzaileen esku jartzen du bere talde teknikoa eta administratiboa, eguneroko lanak eraginkortasun handiagoz eta kontsumitzaileentzako irudi hobearekin egiteko.

Backoffice izeneko jarduerak, gehiago zehaztu gabe, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan zerbitzu-prestaziotzat jotzen diren jarduerak dira.

7/2024	15/2022	Ebazpen honen bidez, 2014ko ekitaldian eta 2015eko 1., 2. eta 3. hiru hilekoetan langile jakin batzuei lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoen gainean zergapekoak egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazten da. Urriaren 11ko 1240/2023 Auzitegi Gorenaren ebazpenari erreferentzia eginez, EIABk zehazten du itzulketa erreklamatzeko eskubideak preskribatu egin duela; izan ere, administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontu-eskubide publikoa da, zerga-zuzenbidez bestelakoa, eta lau urteko preskripzio-epea hasten da atxikipenaren bidegabeko sarrera Foru Aldundian egiten den uanean.	7/2024 E

	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
8/2024	60/2022	Ebazpen honen xedea da zehaztea norena den zergapekoak PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, 2017ko ekitaldian langile jakin batzuei lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoen gainean. Urriaren 11ko 1240/2023 Auzitegi Gorenaren ebazpenari erreferentzia eginez, EIABk zehazten du 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan bidegabe sartutako zenbatekoen itzulketa erreklamatzeko eskubideak preskribatu egin duela; izan ere, administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontu-eskubide publikoa da, zerga-zuzenbidez bestelakoa, eta lau urteko preskripzio-epaia hasten da atxikipenaren bidegabeko diru-sarrera Foru Aldundian egiten den unean. Hala ere, azken hiruhilekoak itzultzeko eskubidea aitortzen du, preskribatuta ez daudelako.	8/2024 E
9/2024	26/2022	Ebazpen honen xedea da zehaztea zer eskumen duen zergapekoak 2016ko ekitaldian langile jakin batzuei lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoen gainean egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko. Urriaren 11ko 1240/2023 Auzitegi Gorenaren ebazpenari erreferentzia eginez, EIABk zehazten du itzulketa erreklamatzeko eskubideak preskribatu egin duela; izan ere, administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontu-eskubide publikoa da, zerga-zuzenbidez bestelakoa, eta lau urteko preskripzio-epaia hasten da atxikipenaren bidegabeko sarrera Foru Aldundian egiten den unean.	9/2024 E
10/2024		Ebazpen honen xedea da zehaztea norena den 2010etik 2012ra bitarteko ekitaldiei dagokien BEZa ordainarazteko eskumena. Zergapekoaren betebeharren artean, besteak beste, petrolioaren deribatuen handizkako merkataritza dago, eta, horretarako, foru-lurraldean kokatutako hainbat gordailu fiskal erabiltzen ditu. Auzitegi Gorenaren 2016/02/09ko Epaia jarraituz, EIABk adierazi du ondusun-emateak dagozkien gordailu fiskaletan kokatzen direla, eta, beraz, HFri dagokiola zergapekoak bere lurraldean dituen gordailuei dagokien proportzioa.	10/2024 E
11/2024	07/2020	Erakundearen helbide fiskala 2003/03/07aren datatik aurrera zehaztea. EIABk ezartzen du hori zehazteko kontuan hartu behar direla egitezko elementu guztiak eta enpresaren jardura bera. Ondorioztatzen du, kasu honetan, inguruabarrak aztertuta, zergapekoaren egoitza foru-lurraldean dagoela.	11/2024 E
12/2024	19/2018	Ebazpenak pertsona fisiko batek egindako kontsulta zehazten du. Kontsultagileak lurralde erkidean zuen zerga-egoitza, baina BEZaren autolikidazioak aurkezteari buruzko kontsulta egin zuen, oinordetzan hartu zituelako bi merkataritza-lokal foru-lurraldean kokatutako enpresei alokatuta zeudenak. EIABk prozedura beste izapiderik gabe artxibatutzat jotzen du, bere xedea, arrazoizko epe batean erantzun bat eskaintzea delako, kontsultagileari bere zerga-betebeharretan segurtasun juridikoa emateko. Bere ustez, administrazioen arteko kointzidentziak nahikoak dira zergapedunarik bere betebeharrak betetzean beharrezko segurtasun juridikoa emango dion erantzun bat emateko.	12/2024 E

	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
13/2024		Ebazpenaren xedea da zergapekoak beste erakunde bati hainbat ekitalditan egindako dibidenduengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. EIABk adierazten du ZAEAK ez duela bete zergapekoari lotutako eragiketen erregularizazioan laguntzeko zuen betebeharra, eta, ondorioz, akta hasi zenetik jarduketak baliogabetu behar ditu eta foru-ogasunaren lankidetzan ahalbidetu R8/2012 Ebazpenaren irismen berarekin, lotura-perimetroa osatzen duten erakundeen multzoan gainezarpena saihestuko duen akordio bat lortzen saiatzeko.	13/2024 E
14/2024	62/2021	Ebazpenak Frantzia bizi den pertsona fisiko batek egindako kontsulta zehaztu nahi du; izan ere, foru-lurralde batean bulego bat erosteko asmoa azaldu zuen, eta, ondoren, obra bat egin, bulego gisa erabiltzeko eta alokatzeko. Ondorioz, BEZaren ondorioetarako tratamendua zein izango litzatekeen jakin nahi du. EIABk prozedura beste izapiderik gabe artxibatutzat jotzen du, bere xedea, arrazoizko epe batean erantzun bat eskaintzea delako, kontsultagileari bere zerga-betebeharretan segurtasun juridikoa emateko. Bere ustez, administrazioen arteko kointzidentziak nahikoak dira obligaziodunari bere betebeharrak betetzean beharrezko segurtasun juridikoa emango dion erantzun bat emateko.	14/2024 E
15/2024	24/2019	Ebazpenaren xedea da zehaztea zein administrazioak duen eskumena erregularizatzeko zergapekoak 2013ko eta 2014ko ekitalditan alde bakarrez egindako eragiketa lotetsiak. EIABk adierazten du ZAEAK ez duela bete Ekonomia Itunak bere eskumeneko betebeharkoari lotutako eragiketak erregularizatzeko ezarritako laguntzeko betebeharra. Bere ustez, ZAEAK baimena eman behar zion Foru Aldundiari Sozietateen gaineko Zergan lotutako eragiketak erregularizatzeko prozeduran parte hartzeko. Horren helburua zen fede onez atxikimendu-perimetroko erakunde guztientzat irizpide desberdinak hartetik ondorioztatzen den gainezarpena saihestea.	15/2024 E
16/2024	11/2020	Ebazpen horren xedea da foru-ogasun batek eskumena duela zehaztea 2017ko eta 2018ko ekitaldietako BEZari eta SZari dagokienez zergapekoak egindako eragiketen bolumena eta bolumena egiaztatzeko jarduketak egiteko. EIABk zehazten du egiaztapen-jarduerek gainditu egiten dutela Ekonomia Itunak ikuskapen-eskumenik gabeko Administrazioari esleitzen dizkion eskumenen eremua. Auzitegi Gorenaren 2092/2015 eta 1959/2016 epaiei egiten die erreferentzia.	16/2024 E

	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen- testurako sarbidea
17/2024	65/2021	Ekitaldi desberdinetako BEZa ordainarazteko eskumena zehazteko xedea duten ebazpenak. EIABk 11/2017 Erregelamenduaren ondorioen hedapena deklaratu du, eta, ondorioz, deklaratu du ondasun-emateak dagozkien gordailu fiskaletan kokatuta daudela, eta, beraz, Foru Ogasunari dagokiola zergapekoak foru-lurralde horretan dituen gordailuei dagokien proportzioa.	17/2024 E
18/2024	2/2022, 3/2022 eta 4/2022 es- pediente metatuak		18/2024 E
19/2024	2/2023		19/2024 E
20/2024	6/2023		20/2024 E
21/2024	20/2021	Ebazpenaren xedea da zehaztea erakunde horrek eskumena duela egoitza foru-lurraldean duen talde fiskal jakin baten ekitaldi batzuetako eragiketa lotetsiak alde bakarretik erregularizatzeko. EIABk ondorioztatzen du ZAEAk ez duela bete Ekonomia Itunak 28/96 Talde Fiskalari lotutako eragiketen erregularizazioan laguntzeko ezarritako betebeharra, foru-ogasunaren ikuskapen-eskumena duten zergapekoei dagokienez.	21/2024 E
22/2024	13/02021	Ebazpenaren xedea da foru-lurraldean egoitza fiskala duen zergapekoak 2017ko BEZa ordainarazteko duen eskumena ebaztea, BEZaren tributazio-proportzioa erregularizatzearen ondoriozko zorra konkurtso-zor edo konkurtso osteko zor gisa hartzei dagokienez. EIABk adierazten du ZAEAk gainditu egin dituela zergak kudeatzeko dituen ahalmenak, eta tributazio-proportzioa erregularizatzearen ondoriozko zorra ez dela ex lege konkurtso ostekoa. Ondorio horretara iristeko, EIABk kontuan hartzen du Auzitegi Gorenaren 2010/06/17ko Epaia irizpidea. Horren arabera, BEZaren sortzapenaren berehalakotasunari erreparatu behar zaio eta baita Ekonomia Itunaren oinarrian dagoen «zerga-baliabideen banaketa ekitatiboa» kontuan hartzeko beharri ere. Zentzu horretan hartzekodunen konkurtsoen kasuetan konkurtso-zorren eta konkurtso ondoko zorren bi erregularizazio egin beharko dira, hurrenez hurren, uste baita erregularizazioaren beraren ondoriozko zorra ez dela oso-osorik konkurtso ostekoa.	22/2024 E
23/2024	136/2023	Hainbat ekitaldiri dagokion BEZa ordainarazteko eskumena zehazteko ebazpena. EIABk 11/2017 Ebazpenaren ondorioen aplikazioa dagokiola azaltzen du, eta, ondorioz, deklaratu du ondasun-emateak dagozkien gordailu fiskaletan kokatuta daudela, eta, beraz, Foru Ogasunari dagokiola zergapekoak foru-lurralde horretan dituen gordailuei dagokien proportzioa.	23/2024 E

	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen- testurako sarbidea
24/2024	75/2021	Ebazpenak zehaztu nahi du foru-lurraldean egoitza fiskala duen eta foru-lurralde horretan eta Nafarroan kokatutako bi establezimenduren bitartez jarduten duen entitate batek planteatutako kontsulta. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergak kargatutako eragiketen kokapenari buruzkoa da kontsulta. EIABk adierazi du kontsultari erantzun egin behar zaiola, eta ohartarazi egin behar dela ondorio lotesleak kontsulta egiteko unean deklarazioa aurkezteko epea amaitu ez den ekitaldietarako baino ez direla izango, eta aplikatzen dela Ekonomia Itunaren 34. artikuluko Bi zenbakiaren hondar-araua azken kontsumitzaileak produktuak bere instalazioetan, aparatuetan edo ekipoetan sartzen ez dituenean.	24/2024 E
25/2024	12/2023	Ebazpenak zehaztu nahi du lurralde erkidean egoitza fiskala duen erakunde batek planteatutako kontsulta bere eragiketen kokapenari buruzkoa, Bizkaian tailer berri batetik garatuko dituen jardueri dagokienez. EIABk prozedura beste izapiderik gabe artxibatutzat jotzen du, bere xedea delako, arrazoizko epe batean erantzuna eskaintzea, kontsultagileari bere zerga-betebeharretan segurtasun juridikoa emateko.	25/2024 E
26/2024	137/2023	Hainbat ekitaldiri dagokion BEZa ordainarazteko eskumena zehazteko ebazpena. EIABk 11/2017 ebazpenaren ondorioen aplikazioa deklaritzen du, eta, ondorioz, azaltzen du ondasun-emateak dagozkien gordailu fiskaletan kokatuta daudela, eta, beraz, Foru Ogasunari dagokiola zergapekoak foru-lurralde horretan dituen gordailuei dagokien proportzioa.	26/2024 E
A 1 /2024	64/2022	Ebazpenaren xedea da ebaztea Foru Ogasun batek 104/2023 ebazpenaren aurka aurkeztutako argitze-errekurtsoa . EIABk adierazten du 104/2023 eta 111/2023 ebazpenei dagokienez, egoitza lotura-puntua dela soilik prestazio pasiboetarako atxikipenentarako, eta zerbitzuak emateko tokia, berriz, konexio-puntua dela prestazio aktiboentarako.	A1/2024 E
A 2/2024	31/2021	Ebazpenaren helburua da zuzentzea 93/2023 ebazpenaren zergapekoaren izenean egindako akats materiala.	A2/2024 E

Foru Aldundien diru-bilketa



EAE-ko tributu itunduen bidezko 2023ko diru-bilketa

Igor Guinea Palacios

Dirusarrera kudeaketaren eta dirubilketaren azterketaren zerbitzuaren arduraduna
Eusko Jaurlaritzako finantza eta ogasun saileko Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

I. 2023ko diru-bilketaren datu orokorrak

2023an, foru-aldundiek 18.212,5 milioi euro bildu dituzte tributu itundu guztien bidez: 2022an baino 1.081,8 milioi euro gehiago (+% 6,3). Gainera, 110,5 milioi euro gehiago bildu dira Herri Dirubideen Eusko Kontseiluaren 2023ko urriaren 11ko itxiera-aurreikuspenean jasotakoa baino, eta urrian aurreikusitakoa baino ehuneko sei tasa handiagoa lortu da (% 5,7).

2023rako onartutako aurrekontuaren % 100,8 exekutatu da, hots, aurrekontuan sartutako zenbatekoa baino 139,6 milioi euro gehiago bildu dira.

2023ko ekitaldia (milaka eurotan)

	Aurrekontua	Itxierako aurreikuspena	Zerga-bilketa	Aurrekontuaren gauzatzea (%)	Urriko aurreikuspenaren gauzatzea (%)
Zerga itunduen bidezko bilketa, guztira	18.072.910	18.102.029	18.212.486	100,8	100,6

2023ko bilketa handiagoa izan da, batez ere, zuzeneko zergapetzearen bilakaera positiboaren ondorioz (+% 11,5), eta, haren barruan, protagonismo berezia hartu dute lan-etekinengatik atxikipenek (+% 10,0), kapital higigarriaren etekinengatik atxikipenek (+% 30,8), ez-egoiliarren atxikipenek (+% 65,9) eta sozietateen kuota diferentzialak (+% 24,7).

Zeharkako zergapetzeagatik diru-sarreraren guztizkoa, berriz, gutxi hazi da (+% 0,6), batez ere jaitsi egin delako inportazioengatik Estatuarekin eginiko BEZaren doikuntzaren ondoriozko bilketa (-% 14,3; -271,5 milioi euro).

Azkenik, 2023. urtean lehen aldiz bildu dira honako bi zerga hauek: plastikozko ontzi ez-berrera-bilgarrien gaineko zerga berezia (25,4 milioi euro, Estatuarekiko doikuntza barne) eta hondakinak zabortegetan uztearen gaineko zerga (10,7 milioi euro); Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022/11/17ko erabakiaren bidez hitzartu ziren zerga biak.

2023/2022 Diru-bilketaren aldera

(milaka eurotan)

	2023ko zerga-bilketa	2022ko zerga-bilketa	23/22 Diferentzia	22/21 Aldakuntza %
PFEZ	7.085.533	6.497.698	587.835	9,0
Sozietateen gaineko zerga	1.635.679	1.351.267	284.412	21,0
BEZ	6.930.344	6.921.389	8.955	0,1
Fabrik. ZZ.BB. eta Elektriz. Zerga	1.445.341	1.367.123	78.218	5,7
Gainerako zergak	1.115.590	993.240	122.350	12,3
Zerga-bilketa guztira	18.212.486	17.130.717	1.081.770	6,3
Zuzeneko zergak	9.265.815	8.309.931	956.424	11,5
Zeharkako zergak	8.833.994	8.785.378	48.616	0,6

Hurrengo taulan, urtea ixtean bilketak izandako hazkundera ez ezik, aurrekontuaren nahiz 2023ko urriko aurreikuspenaren betetze-maila ere ikusten da, lurralde bakoitzeko.

2023ko Zerga itunduen bilketa eta alderaketa, lurralde historikoen arabera

Lurralde-banaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Parte-hartze erlatiboa	15,6 %	51,7 %	32,7 %
Urte arteko aldakuntza	4,1 %	6,9 %	6,5 %
Parte-hartze erlatiboa	100,1 %	101,2 %	100,4 %
Urriko aurreikuspenaren gauzatzea %	99,8 %	100,6 %	101,0 %

II. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

PFEZaren bidez, 2023an, 7.085,5 milioi euro bildu dira EAEn. Zifra hori aurreko ekitaldian lortutakoa baino % 9,0 handiagoa da, eta gainditu egiten du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) 2023ko urrian aurreikusitako itxiera (% 7,7). Kopuru absolututan, 2022an baino 587,8 milioi euro gehiago bildu dira.

**EAEko PFEZrengatiko diru-bilketa
(2013-2023 aldia)**

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2013	4.264.991	(1,5 %)
2014	4.390.205	2,9 %
2015	4.647.680	5,9 %
2016	4.839.847	4,1 %
2017	5.132.194	6,0 %
2018	5.407.614	5,4 %
2019	5.713.671	5,7 %
2020	5.650.225	(1,1 %)
2021	6.114.393	8,2 %
2022	6.497.698	6,3 %
2023	7.085.533	9,0 %

PFEZaren bidezko diru-bilketa, orotara, zuzeneko zergen bilketa osoaren hiru laurden baino gehiago izan da (% 76,5), eta 2023ko diru-bilketa osoaren herena baino gehiago (% 38,9).

PFEZaren osagai gehienek ekarpen positiboa izan dutenez, arlo horretan gehiago bildu da. Hala, lan-etekin atxikipenengatiko diru-sarrerek (osagai nagusia) % 10,0eko hazkundea izan dute urtea amaitzerako, lan-merkatuaren bilakaera positiboari esker batez ere. EUSTATen hiruhileko kontuen arabera, enplegua –lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuen arabera neurtuta– % 1,7 handitu da 2023an aurreko urtearekin alderatuta (16.000 lanpostu gehiago gutxi gorabehera), eta, aldi berean, % 4,1 inguru handiagoak izan dira ordainsariak.

Kapital higigarriaren etekin atxikipenengatiko bilketak ere bilakaera gorakorra izan du 2023an (+% 30,8), eskudiruzko dibidenduen banaketan izandako gehikuntzagatik, enpresek 2022an izandako etekinek bilakaera positiboa izan dutelako eta banku-kontuetako gordailuek ere errentagarritasun handiagoa.

PFEZaren ordainketa zatikatuek ere ekarpen handia egin dute (+% 19,4), baina kontuan hartu behar da konparaketa, kasu honetan, arau-aldaketaren baten eragina zuen aldi batekin egin dela, eta aldaketa hori zela-eta ordainketa zatikatuak egitetik salbuetsita geratu zirela batzuk.

Azkenik, PFEZaren kuota diferentzial garbiaren saldoa negatiboa izan da (–64,6 milioi euro), batez ere honako hauen ondorioz: likidazio-oinarri orokorra % 5,5 deflatatu da, kenkari pertsonalak eta familiarrak ehuneko berdinean eguneratu dira, kuota gutxitu da eta baterako tributazioak erreduzioa izan du.

Kuota diferentzial garbiaren bilakaera (PFEZ) (milaka euro)

	2022	2023	(Urte arteko aldakuntza- tasak) Δ23/22 %
Diru-bilketa likidoa	4.602	(64.597)	—
Diru-bilketa osoa	886.169	948.756	7,1 %
Itzulketak	(881.567)	(1.013.353)	(14,9 %)

III. SOZIETATEEN GAINEN ZERGA

Sozietateen gaineko zergaren ondoriozko bilketa 1.635,7 milioi eurokoa izan da 2023an. Urte arteko datuei dagokienez, zerga horren bilketa % 21,0 hazi da (+284,4 M €). 2023ko urriko HDEKren itxiera-aurreikuspenaren aldean, berriz, 57,7 milioi euro gehiago lortu dira.

EAEko BEZarengatiko diru-bilketa (2010-2022 aldia)

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2013	1.216.937	7,5 %
2014	1.159.223	(4,7 %)
2015	1.039.051	(10,4 %)
2016	1.002.703	(3,5 %)
2017	1.111.661	10,9 %
2018	1.476.010	32,8 %
2019	1.303.792	(11,7 %)
2020	1.042.548	(20,0 %)
2021	1.155.151	10,8 %
2022	1.351.267	17,0 %
2023	1.635.679	21,0 %

Sozietateen gaineko zergaren bilketa zuzeneko zergen bidez bildutakoaren % 18,0 inguru izan da, eta 2023ko bilketa osoaren % 9,0 inguru.

Bilakaera positiboa izan dutenez bai kapital higigarriaren etekin atxikipenek (% 30,8) bai kapital higiezinaren etekin atxikipenek¹ (% 7,8) nabarmen konpentsatu da—30 milioi euro inguru gehiago— on-dare-irabaziengatik atxikipenek izandako atzerakada (—% 47,1). Nolanahi, osotara bilketak gora egin badu, funtsean, zergaren kuota diferentzial garbiaren hazkunde handiagatik izan da (+% 24,7), batez ere 2022ko sozietate-kanpainaren emaitza positiboekin esker. Emaitza horiek agerian uzten dute urte horretan enpresen mozkinak izugarri handitu direla. Gutxiago bada ere, 2022an onartutako foru-aldaketak ere izan du eragina kanpainako diru-sarrerak handitzen: aldaketa horren ondorioz, zatikako ordainketak egitetik salbuesita baitzeuden zergaldian 50 milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena zuten sozietateak, salbuespen horretatik kanpo utzita zerga-baterakuntzako araubide berezian tributatzeko zuten entitateak.

Urtean, guztira, kuota diferentzial garbiaren diru-sarrera gordinak % 24,7 hazi dira. Itzulketek ere antzeko eritmoan egin dute gora (+% 20,5).

Kuota diferentzial garbiaren bilakaera (Sozietateen gaineko zerga) (milaka euro)

	2022	2023	(Urte arteko aldakuntza- tasak) Δ %
Diru-bilketa likidoa	1.030.489	1.285.466	24,7 %
Diru-bilketa osoa	1.394.302	1.723.907	23,6 %
Itzulketak	(363.813)	(438.441)	(20,5 %)

¹ Erdi bana banatzen dira PFEZaren eta SZaren artean, on-dare-irabaziengatik atxikipenekin batera.

IV. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Kudeaketa propioko BEZaren diru-bilketa metatuak % 5,5eko igoerarekin (+230,8 M euro) itxi du urtea, aurreko urtearen aldean.

EAEko BEZarengatiko diru-bilketa (2010-2022 aldia)

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2013	3.139.434	6,0 %
2014	3.555.395	13,2 %
2015	3.645.246	2,5 %
2016	3.676.456	0,9 %
2017	3.762.184	2,3 %
2018	4.059.967	7,9 %
2019	4.129.679	1,7 %
2020	3.534.767	(14,4 %)
2021	4.152.038	17,5 %
2022	4.210.645	1,4 %
2023	4.441.457	5,5 %

Osagaien arabera, bilketa gordina % 0,5 jaitsi da. 2022aren amaieran oinarrizko zenbait produkturentzat (zerealak, olioak, frutak, etab.) eta energiaren eremuarentzat (elektrizitatea, gasa, pelletak, etab.) onartutako tasa-murrizketek eragin dute bilakaera hori, hein handi bat behintzat, prezioen igoera moteldu egin denez gure testuinguru ekonomikoan.

Berezko kudeaketa diru-bilketaren bilakaera (BEZ) (milaka euro)

	2022	2023	Urte arteko aldakuntza- tasak Δ %
Diru-bilketa likidoa	4.210.645	4.441.457	5,5 %
Diru-bilketa osoa	7.235.471	7.198.741	(0,5 %)
Itzulketak	(3.024.826)	(2.757.284)	(8,8 %)

Itzulketei dagokienez, % 8,8 murriztu dira; gehienbat, konparazioa egin den urtean zergadun bati ezohiko itzulketak egin zitzaizkiolako (195 milioi euro) Arbitraje Batzordearen ebazpen baten ondorioz.

Estatuarekin egindako BEZaren doikuntzari dagokionez, foru-aldundiek jasotako zenbatekoa % 8,2 jaitsi da 2022arekin alderatuta; inportazioen kontzeptuak nabarmen egin du behera (% 14,3), eta barne-eragiketetan, berriz, % 6,1eko hazkundera izan da.

Azkenik, BEZaren diru-bilketa osoak (kudeaketa propioa gehi doikuntzak) % 0,1eko hazkunde-tasa izan du 2022. urtearekin alderatuta.

V. FABRIKAZIOAREN ZERGA BEREZIAK ETA ELEKTRIZITATEAREN ZERGA BEREZIA

Fabrikazioaren, elektrizitatearen eta plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bereziek osatzen duten atalaren bilketak -kudeaketa propioa da- % 1,1eko jaitsiera izan du. Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zergagatiko diru-sarrerak (11,5 milioi euro inguru) urtetik urtera arteko konparaziotik kanpo geratzen badira, murrizketa handixeagoa izango da (-% 1,8). Zerga hori Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022/11/17ko erabakiaren bidez itundu zen, eta 2023ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

2023ko urriko HDEKren itxiera-aurreikuspenaren aldean, berriz, zerga horietan 45,9 milioi euro gehiago lortu dira.

Urte arteko aldakuntza-tasak (%)
(2015-2022 aldia)

Urtea	Alkohola	Hidrokarburoak	Tabakoa	Garagardoa	Elektrizitatea	Batez besteko haztatua
2013	(13,1)	14,4	(6,0)	(12,8)	(4,6)	10,7
2014	(2,7)	(0,1)	5,7	(26,2)	(16,3)	0,9
2015	(4,7)	3,5	(3,9)	(16,5)	(12,9)	0,9
2016	(9,4)	4,9	4,2	3,6	4,8	4,6
2017	(25,4)	5,4	(4,4)	(7,7)	(2,7)	2,8
2018	(33,2)	1,6	3,8	21,1	4,7	2,0
2019	23,4	13,9	1,4	(37,2)	(5,5)	10,5
2020	(42,8)	(12,6)	(6,0)	(22,9)	(12,2)	(11,5)
2021	35,0	18,6	(9,8)	24,9	(9,1)	12,0
2022	(17,8)	(3,1)	16,7	36,0	(69,6)	(1,7)
2023	3,0	(2,4)	2,2	(1,3)	(31,3)	(1,1)

Atal horretan, kudeaketa propioko hidrokarburoen zerga bereziaren diru-bilketak urtetik urterako % 2,4ko beherakada izan du urtearen itxieran (bilketa 1.445,1 milioi eurokoa izan da guztira). Zerga horren bidez bildutako diru-kopuruak arrastan dakar, iaztik, erregaien prezio altuen eta garraio publikoa sustatzeko neurriak luzatu izanaren eragina. Administrazio publikoek 2022ko hirugarren hiruhilekoan jarrizituzten martxan neurriok.

Diru-sarreraren are murrizketa handiagoa izan da elektrizitatearen gaineko zerga berezian (-% 31,3), eskaria eta energia elektrikoaren merkatuko prezioak jaitsi egin direlako 2023an.

Tabako-laboreen gaineko zerga bereziagatik diru-sarrerak bilakaera ona izan dute (+% 2,2), urteko azken hilabeteetako prezio-igoeraren ondorioz, eta, bilakaera on horri esker, zerga-bloke honetako bilketaren jaitsiera orokorra itxuratu egin da azkenean, ehuneko hamarren batzuk besterik ez bada ere.

Zerga berezien doikuntzei dagokienez, foru-aldundiek Estatuari 2023an transferitutako guztizkoa txikiagoa izan da 2022an ordaindutakoa baino (-99,4 milioi euro). Horren arrazoia da, batez ere, hidrokarburoen gaineko zerga bereziak doikuntza positiboa izan duela; izan ere, EAEk 2022an baino 76,5 milioi euro gutxiago ordaindu dizkio Estatuari zerga horrengatik.

Gainera, atal horren barruan, 2023an, 2022/11/17ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren hamahirugarren erabakia aplikatuta, zerga itundu berri honen inportazioen (4,2 milioi euro) eta barne-eragiketen (9,8 milioi euro) ondoriozko doikuntzak mamitu dira: plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga.

VI. BESTELAKO TRIBUTUAK ETA ZERGA-SARRERAK

Gainerako zergek (tributu itunduen ondoriozko diru-bilketa osoaren % 5, oro har), honako bilakaera hau izan dute:

**Bestelako zergak
(2010-2022 aldia)**

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2013	619.758	1,9 %
2014	639.446	3,2 %
2015	617.298	(3,5 %)
2016	697.622	13,0 %
2017	762.046	9,2 %
2018	840.611	10,3 %
2019	823.144	(2,1 %)
2020	765.698	(7,0 %)
2021	915.351	19,5 %
2022	993.240	8,5 %
2023	1.115.590	12,3 %

Itundutako tributuengatik Foru Aldundien diru-bilketa

Ekonomia Itunaren araubidea dela eta, lurralde historikoetako zerga-sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, bakoitzari bereak. Esteka honetan eguneratutako informazioa kontsulta daiteke foru aldundiek zerga itunduengatik bildutakoa..

<https://www.euskadi.eus/zerga-diru-bilketa/web01-a2ogazer/eu/>

Dokumentu interesgarriak



Dokumentu interesgarriak

Informazio guztia honako esteka hauetan eskuragarri dago.

Zergak gaur egun

Zerga-arauak gaur egun

Aldizkari ofizialetan argitaratutako zerga-araudia biltzea.

Zerga-arauei buruzko aldizkaria da, hilean behin dagokion hilean argitaratu diren zerga-arauen berri ematen duena. Bost ataletan egituraturik dago eta horietako bakoitza dagokio jarraian aipaturiko aldizkari ofizialetan argitaratu den araudiari. Hauek dira aldizkari ofizialak: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (BOTH), Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (BOB), Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (BOG), Nafarroako Aldizkari Ofiziala (BON) eta Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE).

Zergei buruzko zenbait argitalpenetatik ateratako iritzi-artikuluak eta administrazio-doktrina

Hilean behin argitaratzen da. Alde batetik, zerga arloko hainbat argitalpenetan jasotako iritzi-artikuluak biltzen dituena; bestetik biltzen ditu Estatuko arau-proiektuei buruzko aipamen batzuk betiere proiektu horiek zerga gaitan eragina badute; eta azkenik zerga albiste garrantzitsu batzuk, eratorri diren iturriaren aipamena egiten delarik.

Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak prestatutako txostena, Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko 3/1989 Legeak emandako egitekoak betetze aldera. Txostenaren helburua da urtean behin eta izaera bateratuaz Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen sarea osatzen duten ogasunen jardura erakustea. Urteko Txosten Bateratuak bi atal nagusi dauka, A eta B, alegia, alde batetik I. eta II. Kapituluak, eta bestetik, III., IV. eta V. Kapituluak, hurrenez hurren, bere baitan darabizmatzatenak. I. eta II. Kapituluetan gure ogasunaren ezaugarri bereziak aurkezten dira baita haren zerga harremanak eta Euskal Herriaren finantzaketa sistema ere. Itunaren edukiari, araugintzarako eta ordainarazteko ahalmenari eta itundutako zergen arteko konexio guneei berrikuste bat ematen zaie. Gainera jaso da barne antolamendurako eredu ogasun gaiei dagokienez: Estatuari ordaindu beharreko kupoa, zeharkako zergengatiko doiketak, eta euskal erakundeen arteko baliabideen banaketa. Bigarren atalean aztergai dugu Administrazioaren maila bakoitzeko jardura eta horretarako III. Kapituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia aztertzen du eta IV. Kapituluak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru ogasunak, ordea, eta V. Kapituluak toki ogasunak. Zerga eta ekonomia alorretako kudeaketak azpimarragarri dituen gaiak, zerga bakoitzari lotuta, eta gainera arauetan izandako aldaketa esanguratsueni buruz analisi labur bat egin da. Azkenik, Urteko Txosten Bateratuak lau eranskin dauka osagarri moduan. I. Eranskinak laburpen bat eskaintzen du foru ogasunek araugintzan eginiko jarduketari buruz, II. eta III. Eranskinak, ordea, ekonomia eta zerga alorretan ogasun horiek egin duten kudeaketari buruz informazioa ematen dutelarik. Azkenik, IV. Eranskinak aztergai du zerga eta ekonomia alorretan toki ogasunek eginiko kudeaketa, udalerrien arabera xehatua datorrena.

Iruzur Fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak —Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien ordezkari baita— sortu zuen, 2013ko urriaren 14ko erabakiz, urte horretako irailaren 26an Eusko Legebiltzarrak emandako Ebazpen bati erantzuteko; ebazpen horrek iruzur fiskalaren aurkako lankidetzaren estrategia bat normalizatzeko eskatzen zuen.

Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako beste batek osatzen dute eta honako eginkizun hauek ditu: i) Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratua egitea urtero, eta, horretan, irizpide orokorrak eta egin beharreko jarduketa koordinatuak zehaztea, eta ii) urteko txosten integratua igortzea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruz, eta, horretan, aipatutako urteroko plan bateratuetako jarduketaren emaitza eta efikazia ebaluatzea, eta gauzatze-maila zehaztea.

2024. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratua

Alde batera utzirik Foru Aldundi bakoitzak bere banakako planak egin ditzakeela iruzurraren aurka borrokatzeko eta tributuak egiaztatzeko eta autonomia duela arlo horretan esleitua duen eskumena gauzatzeko, oro har, bat datoz egokia dela baterako politikak eta estrategiak garatzea iruzur fiskalari aurre egiteko, eta, haien aburuz, eraginkortasuna indartuko da zergaadministrazioaren arloan eskumena duten erakundearen artean aliantzak eratuz eta lankidetzaren harremanak estutuz gero.

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuak testuinguru jakin batean sortu dira; sinergiak sustatu nahi dira, eta efikazia handitu, hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren bidez.

Urtero egiten den Plan Bateratuak irizpide orokorrak zehazteaz gainera, Foru Aldundiek gauzatu beharreko jarduketa koordinatuak hartu behar ditu kontuan, eta jarduketa horien artean egongo diren informazioa lortzeko ekintzak, prebentzioaren ingurukoak eta erregularizatzeko eta kobrantza-ekintzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratua

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratuaren bidez, aipatutako urteroko plan bateratuetako jarduketaren emaitza eta efikazia ebaluatzen da, eta gauzatze-maila zehazten da.

Zerga-hezkuntza programa

Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren barruan, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak prebentzio-neurriak indartzearen aldeko apustua egiten dugu, baita zerbitzu publikoei eusteko lagundu behar delako balio sozialaz kontzientziatzearen aldekoa ere.

Horri lotuta, eta erakunde arteko lankidetzaren bitartez, gizalegeko eta zergei lotutako hezkuntza-programa bateratu bat sustatu da; programa horrek unitate didaktiko bakarra du ekonomiarik eta fiskalitateari buruz, programan parte hartu nahi duten Euskadiko ikastetxeetan eman beharrekoa. Foru-aldundiek garatu dituzten unitate didaktikoak irakatsi nahi dira herritarren zerga-kontzientzia gaztetatik indartzeko. Alde batetik, ikasleek erakundearen egituraren eta funtzionamenduaren gainean ezagutza erraza baina didaktikoa eta zorroztza jaso dezaten lortu nahi da, baita erakundearen antolaketaren, administrazioen arteko eskumen-banaketaren eta horiek finantzatzeko moduen gainean ere. Beste alde batetik, ikasleek zerga-iruzurrak eragiten dituen bidegabekeriaren eta ondorio kaltegarrien gainean kontzientziatu nahi dira, funts publikoen erabilerrari buruzko ezagutza sustatu ahala. Hau da, berariaz azalduko zaie zein zerbitzu ematen diren herritarren ekarpenekin eta nola laguntzen duten inguru solidarioago eta orekatuagoa lortzen.

2023-2024 ikasturtea. Zerga Hezkuntzako Programaren emaitzen Txostena

TicketBAI

TicketBAI (aurrerantzean, TBAI) hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean partekatutako proiektua da, eta zenbait betebeharrak legal eta tekniko ezartzea du helburu; hala, TBAI indarrean sartzen denetik aurrera, jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazio-software bat erabili beharko dute, argitaratzen diren baldintza teknikoak betetzen dituen.

Sistema berriari esker, foru-ogasunek zergadunen jarduera ekonomikoen diru-sarrerak kontrolatu ahal izango dituzte, eta, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzuak ematen dizkieten sektoreetako jarduerenak, neurri handi batean eskudirutan kobratuta. Era berean, informazio hori erabiltzeko da zergadunei zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko.

Ekonomia Itunaren Zabalkundea

Ekonomia Ituna Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren web orrialdean

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak tarte zabala eskaintzen dio bere web orrialdean Ekonomia Itunaren zabalkundeari: i) zer den, ii) araudi erregulatzailerak, testuen konparazioak eta hainbat hizkuntzako bertsio kontsolidatua (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) barne hartzen dituen, Itunari buruzko terminoen glosario batekin osatuta, ingelesezko azalpen didaktikoa eta euskarazko eta gaztelaniazko baliokidetasun terminologikoak erantsita, iii) Ekonomia Itunaren III. kapituluaren araututako organoari buruzko informazioa (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa, Ekonomia Itunaren Koordinazio eta Ebaluazio Arauemailearen Batzordea eta Arbitraje Batzordea) eta iv) euskarazko Itunaren terminologiari buruzko atal bat, Eusko Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren (IZO) gomendioak jasotzen dituen eta 700 termino baino gehiagotara iristeko tresna dinamiko bat bideratzen duena.

Ad Concordiam

Ad Concordiam Ekonomia Ituna Sustatzeko eta Zabaltzeko Elkarrekin irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta bere bazkide sustatzaileak Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea dira. Elkarrekin helburua fiskalitatearekin eta ogasun publikoarekin lotutako gaiak zabaltzea eta aztertzea da, bereziki Ekonomia Itunarekin lotutakoak.

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari buruz

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak eztabaidatu eta ebazten ditu Estatuko zergen administrazioaren eta foru aldundien artean edo, bestela, foru aldundien eta edozein AEko administrazioaren artean sortzen diren tributuei buruzko gatazkak. Arbitraje Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 13ko 12/1981 Legean aurreikusita zegoen, eta bere helburua da ebaztea "Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo horien eta beste edozein autonomia-erkidegotako Administrazioaren artean pertsona fisikoaren ohiko bizilekua, zerga-egoitza eta pertsona juridikoen negozio-kopuru erlatiboa zehazteari dagokionez sortzen diren gatazkak".

Itun Ekonomikoaren eta Foru Organuen Ikerketarako Agiritegia (ITUNA)

Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegian EHUko Historia Garaikidea (Leioa), zuzenbide Publikoa (Leioa eta Donostia) eta Gizarte Zientzien Didaktika (Vitoria-Gasteiz) sailek hartzen dute parte. Zentroak Dokumentazio zerbitzua du, Ekonomia Ituna eta Hitzarmena, Foru Ogasun, euskal zerga sistema eta, oro har, federalismo fiskala edo deszentralizazio fiskala eta finantzarioari buruzko informazioa bildu, arrazionalizatu, aztertu eta zabaltzeko.

Azkenik, Agiritegiak Ekonomia Ituna eta Hitzarmena eta euskal zerga sistemaren ezagutza bultzatu, hedatu eta sustatzen du, batez ere euskal, espainiar eta europar iritzi publikoan, zein nazioarteko beste esparru batzuetan, euskal kasua federalismo fiskalari buruzko nazioarteko ikerketa korranteetan kokatuz.

El Concierto Económico Vasco: una visión personal. Pedro Luis Uriarte

Ekonomia Ituna buruzko dibulgazio-lana, hainbat ikuspegitatik ikusita. Bertan, bere 11 liburuetan zehar, egileak Ekonomia Itunaren oinarriak, ezaugarriak, funtzionamendua, bilakaera, arrakastak eta porrotak, erasoak eta defentsa, eta haren iragana, oraina eta etorkizuna azaltzen ditu.

Obra hau bereziki gomendagarria da Ekonomia Itunaren ezagutza sartu nahi dutenentzat, baina dagoeneko ezagutzen dutenentzat eta horren alderdi zehatzetan sakondu nahi dutenentzat ere baliagarria izango da. Bere ikuspegi didaktikoa eta lehen aldiz Ekonomia Ituna deskubritzen dutenek erraz eskuratzeko modukoa izateaz gain, erakunde honekiko interesa dutenek edozein kezka ase ahal izango duten material zabala eta osoa du ezaugarri.

Ekonomia Itunaren bilakaera bere lege-testuen bidez. Javier Armentia

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak argitaratutako liburua, Ekonomia Itunaren historia ezagutzeko, une historiko bakoitzean haren edukia jasotzen duten lege-testuen bitartez. Egilea, Javier Armentia Basterra, urte askoan Arabako Foru Ogasuneko Zerga Araudiko Zerbitzuaren arduraduna eta Kontzertu Ekonomikoaren ezagutzaile handia, lege-teknizismoetatik ihes egiten saiatzen da, eta termino eta azalpen ohikoagoak erabiltzea aukeratzen du, horiek ulertzen laguntzeko, laburpen-koadro askoren laguntzarekin. Estekaren bidez, liburuaren laburpena sartzen da, egilearen sarrera-oharrarekin eta hura errazago aurkitzeko beharrezkoak diren identifikazio-datuekin batera.

Global Tax evasion report 2024 - EUTAX OBSERVATORY

EUTAX OBSERVATORYk jasotzen duen bezala, Zerga Ihesari buruzko 2024ko Txosten Orokorra azterlan garrantzitsua da, nazioarteko zerga-ihesaren gaiari helden diona. Azken hamarkadan, gobernuek ekimen garrantzitsuak ezarri dituzte nazioartean zerga-ihesa murrizteko. Hala ere, garapen horiek garrantzitsuak izan arren, gutxi dakigu politika berri horien ondorioei buruz. Zerga-ihes globala gutxitzen edo handitzen ari da? Arazo berriak sortzen ari dira eta, hala bada, zein dira? Txosten honek galdera horiei erantzuten die aurrekaririk gabeko nazioarteko ikerketa lankidetzari bati esker, mundu osoko 100 ikertzaile baino gehiagoren lanean oinarrituta.

Las negociaciones del Concierto Económico y del cupo contadas por los protagonistas (1980-2022).

Lanaren koordinatzaileak: Jon Garro Albaina, Mikel Erkoreka González y Robert Ugalde Zabala

Itun Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiak (UPV/EHU) “Las negociaciones del Concierto Económico y del Cupo contadas por los protagonistas (1980-2022)” lanaren argitalpena bultzatu du, Jon Garro, Mikel Erkoreka eta Robert Ugalde ikertzaileen koordinaziopean.

Ekonomia Itunari buruzko historiografiaren ardatza negoziazio foroetan lortutako akordioak aztertzea izan da, bai legezko dokumentu gisa, bai akordio politiko gisa. Aldiz, pertsonalagoak eta gizatiarragoak diren gaiek bigarren mailako lekua hartu izan dute normalean. Baina ez dugu ahaztu behar, beren erakundeen ordezkari gisa jarduten badute ere, negoziatio-mahaien atzean pertsonak daudela, interesak, ezaugarriak, harremanak izateko moduak eta iritzi objektibo eta subjektibo oso desberdinak dituztenak. Beraz, negoziatio bakoitzaren atzean giza osagai bat dago, eta horrek ere negoziatioen bilakaera eta emaitza baldintzatzen ditu.

Liburu honek Ekonomia Itunaren esparruan negoziatio-prozesuek duten giza eginkizuna nabarmentzen du. Legeak edo akordioetatik eratorritako alderdi tekniko eta politikoak bezalako alderdi materialetan zentratu beharrean, negoziatzaileetan, haien ikuspegiaren eta esperientzia pertsonaletan zentratzen da. Ikuspegi hori berritzailea da Ekonomia Itunaren historia ikertzerako orduan, eta sistema hori osatzen duten alde biko negoziatioen eredu hobeto ulertzeko aukera emango digu, baita 1981etik aurrera garatutako negoziatio-prozesuen xehetasunak eta emaitzak ere.

Ituna Agiritegiaren lan-sareari eta laguntzaileei esker, 1981etik Ekonomia Itunarekin eta Kupoarekin lotutako negoziatio-zikloetan parte hartu duten pertsona nabarmenen testigantzak bildu ahal izan dira liburu honetan, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Foru Aldundiko ikuspegiak aintzat hartuta.

Sarrerako bi kapituluetan 1981az geroztik egon diren negoziatioen bilakaera eta bere printzipio gidariak azaltzen dira, eta ondoren honako hauen testigantzak jasotzen ditu liburuak: Espainiako Gobernu Ogasun ministro bat (Cristobal Montoro), Eusko Jaurlaritzako lehendakari bat (Juan José Ibarretxe), Eusko Jaurlaritzako hiru ogasun-sailburu (Pedro Luis Uriarte, José Luis Larrea eta Pedro Azpiazu), Nafarroako Gobernu Ogasuneko kontseilari bat (Mikel Aranburu), hiru diputatu nagusi (Juan Mari Ollora, Ramón Rabanera eta Unai Rementeria) eta Ogasuneko bi foru-diputatu (Javier Urizarbarrena eta Pello González). Horrela, liburuak gobernu anitzeko ikuspegi ematen du, eta Ekonomia Itunaren historia markatu duen negoziatioen unibertso konplexu eta liluragarriari buruzko lehen eskuko eza-gutza-iturria eskaintzen du.

Azkenik, aipatzekoa da liburuak ez duela formatu akademiko zorrotzik eta ez dela estandar zientifikotara atxikitzen; izan ere, autore bakoitzak bere ikuspegi pertsonaletik eta askatasun osoz jorratzeko askatasuna izan du. Hala ere, horrek ez du esan nahi obrak zorrotasunik, baliorik eta interes akademikorik ez duenik. Mota honetako argitalpenak epe luzerako ikuspegi dute, eta informazio-iturri aberatsa eskaintzen die etorkizuneko ikertzaileei, negoziatioen zirrikituei, negoziatzaileen profiei eta Euskadiren eta Estatuaren arteko alde biko harremanaren dinamikei buruz.

Beste esteka interesgarri batzuk

Zerga-gaietan eskumena duten Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren web-orrialdetarako sarbideak

Eusko Jaurlaritzako Ogasuna eta Finantzak Saila

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

ADMINISTRAZIOA ETA ERREDAKZIOA/ADMINISTRACIÓN Y REDACCIÓN

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa/Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi
Gaztelako Atea/Portal de Castilla, nº 15 – 01007 Vitoria-Gasteiz
Telefonia/Teléfono: 945/016770 – zergak@euskadi.eus

LEGE-GORDAILUA/DEPÓSITO LEGAL

VI-522/93
ISSN – 2253 - 7805

«ZERGAK» aldizkarian parte hartu nahi dutenek Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organora bidali behar dituzte artikuluak.

- Bina kopia posta elektronikoz bidaliko da, adierazitako helbidera.
- Idazlaren luzapenak ez ditu 20 orrialdeak gaindituko, lerroen artean tarte bikoitza utziz.
- Artikulu bakoitzari ehun baino gehiago edukiko ez duen laburpen bat erantsiko zaio.
- Idazlanean irudirik balego, bera osatzeko erabili diren zenbakizko datuak bidaliko lirateke.
- Artikulugile bakoitzak bere izena, helbide oso, telefonia eta NAN zenbakia bidaliko ditu.
- Idazlanak EAEko edozein hizkuntzatan, hots euskaraz zein gaztelaniaz, idatz daitezke.
- Artikuluak hizkuntza inklusiboa erabiliz idatziko dira, irudirik eta genero-estereotiporik gabe.
- Lankidetzari buruzko xehetasun gehiago jakiteko (ordainsariak, izapideak, etab.), harremanetan jar zaitezke zergak@euskadi.eus helbidera mezu bat bidaliz.

Erredakzio Kontseilua beretzat gordetzen du jasotako artikuluak argitaratzeko eskubidea, auzerik ebaletzaile anonimo baten edo batzuen iritzia ezagutuko duelarik. Era berean, bereziki gomendatzen eta baloratzen du datuak sexuaren arabera bereiztea, bai eta egindako azterketetan genero-ikuspegia txertatzea ere.

Idazlana argitaratzeak ez du, derrigorrez, bertan jakinarazi diren aburuekiko adostasunik adierazi nahi, iritziak egilearen erantzukizunpean gelditzen baitira.

Todas las personas que deseen colaborar en «ZERGAK» deberán enviar sus artículos al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi.

- Se remitirá una copia del trabajo mediante e-mail a la dirección de correo indicada.
- La extensión del artículo no debe superar las 20 páginas, a doble espacio.
- Los artículos deberán ir acompañados de un resumen, cuya extensión no deberá exceder de 100 palabras.
- Si el artículo contiene representaciones gráficas, se deberán incluir los datos numéricos que sirven de base para su elaboración.
- Se incluirá la autoría con nombre y dirección completos, teléfono y DNI.
- Los trabajos podrán ser redactados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la C.A.P.V.
- Los artículos se redactarán utilizando un lenguaje inclusivo sin imágenes ni estereotipos de género.
- Para concretar más detalles sobre la colaboración (remuneración, trámites, etc.) puede contactar enviando un correo a zergak@euskadi.eus.

El Consejo de Redacción se reserva el derecho de publicar los artículos que reciba, previo sometimiento a un proceso de evaluación anónima. Asimismo recomienda y valora especialmente la desagregación de datos por sexo así como la incorporación de la perspectiva de género en los análisis efectuados.

Su publicación no significa necesariamente un acuerdo con las opiniones expresadas que serán de la responsabilidad exclusiva de la autora o autor.